

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zumarraga



Aurkibidea

Udalerria: Zumarraga

Sarrera



Gipuzkoako Urola Garaia eskualdean kokaturik dagoen udalerria da, Donostiatik 53 kilometrora dago. Urola ibaiak banantzen ditu Zumarraga eta Urretxu. Honez gain, Antzuola, Azkoitia, Azpeitia, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Legazpi ditu mugakide. Aipamen berezia merezi du trenbideak, Zumarragaren historian erabakiorra gertatu den elementua baitugu, hiru geltoki desberdin izatera heldu da eta. 1864an inauguratu zuten Norteko Trenbidea -gaurko RENFE-, Madril-Paris lineaz; 1889an inauguratu zituzten Ferrocarriles Vascongados haiek, Zumarraga-Maltzaga lineaz; eta azkenik, 1926an, Urolako Trena, "Gure Trena" ospetsua, Zumarraga-Zumaia lineaz.

- **Biztanleak:** 9.957
- **Euskaldunak:** %45,4

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **50**
- Zintak: **42**
- Pasarteak: **714**
- Transkribatutakoak: **35**
- Audioak: **44**
- Bideoak: **486**

Proiektuak

- 101L - Bertakotzen Urretxu-Zumarraga
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Gure Nagusiak - Urola Garaia: Mende bat iruditan
- Lekaio Elkartearen grabazioak
- Urretxu eta Zumarragako ahotsak
- Urretxu eta Zumarragako euskara

Hizlariak

Xabier Agirrebengoa

Patxi Alberdi (1930)

Bautista Alberdi Urbietta (1920)



1920an Itziarko Txertubi baserrian jaio zen; eta, 3 urte zituela, Zumarragako Leturia auzoko Leturiondo baserrira joan zen. Ama Mendarokoa zuen, eta aita itziartarra. 9 anai-arreba ziren sendian. Etxetik kanpo lanean aritua den arren, baserritik bizi izan da beti eta esne-saltzen ibili zen Zumarraga-Urretxun. Leturia auzoko eskolan ibili zen, baita gau-eskolan ere. Gerra garaian etxetik gertu pasatako pasadizoak kontatzen ditu. Patrizio Etxeberria lantegian bonbak egiten eta Badiolan junkoak egiten aritu zen. 32 urterekin ezkondu zen Loiolan, eta 4 seme-alabaren aita da.

Ines Anduaga Makibar (1917-2008)

Matxainbehekoa baserrian jaiotakoa. Elkarrizketa berean Maria Jesus Segura ere ageri da (1941), Inesen alaba.

Julita Arana Urkiola (1917-2009)



Aita donostiarra zuen, eta ama Ezkiokoa; baina Zumarragara ezkondu ziren. Bertan jaio eta bizi izan da Julita. Bere denda oso ezaguna izan zen Zumarragan, ordura arte inork ez baitzuen lorerik saltzen inguru horretan. Loreak, lurrinak, jostailuak eta bitxiak ere eros zitezkeen dendan. Katekista izan zen.

Jose Inazio Aranberri Aldanondo (1939)



Zumarragako Santa Isabel auzoko Elorriagagoikoa baserrian jaioa 1939an; ama Elorriagakoa zuen, eta aita Azpeitiko Aratz Erreka auzokoa. Zortzi anai-arreba ziren sendian. Baserriko bizimodua gertutik ezagutu izan du, eta, eskolarako asti handirik izan ez bazuen ere, Zumarragako La Sallen ikasi zuen. Oso umetatik hasi zen morroi lanetan inguruko baserrietan: Iertzan, Zelaietan eta Ezkioko Garaion, besteak beste. 14 urte zituela, arotz ikasten hasi zen Uribesalgo lantegian, eta bertan aritu zen lanean, 18 urtera arte. 18 urterekin, Martxinporta lantegira joan zen, eta han ere arotz-lanetan jardun zen. Elorriaga baserriatik Arkaitzeta etxera joan zen bizitzera (Santa Isabel auzoan hau ere); ezkondu eta bi seme-alaba izan zituen.

Inaxio Aranguren Aranguren (1915-2012)



'Aranburualde' baserrian jaio zen 1915. urtean, zazpi senideko familian. Aita Agiña auzokoa zuen, ama Urretxuko 'Beain' baserrikoa. Eskolan, lehenbizi, Zumarragako maistra batekin ibili zen, eta geroago 'La Salle'-n. 11 urterekin, eskola utzi eta basoan hasi zen lanean aitarekin, egurra ateratzen. Gerra ere egokitu zitzaion, eta preso egon zen. Hainbat urtez 'Orbegozo' lantegian egin zuen lan, baina baserria utzi gabe.

Migel Arratibel Dorronsoro (1930)



Ataungo Aia auzoko kaminero etxean jaiotakoa, aita ataundarra eta ama lazkaotarra zituen. Bederatzi urte zituela, Zumarragako 'Anduezu' baserrira joan zen morroi, bertan 12 urte egin zituelarik. 22 urte zituela, Zumarragako 'Orbegozo' lantegian hasi zen lanean laminazioan, eta kalera joan zen bizitzera apopilo bezala. Lanean hasi eta urtebetera, lan-istripua izan zuen eta hanka bat galdu zuen. Osatu eta 'Orbegozo'-n lanean jarraitu zuen, ordea; baina ez laminazioan, gogorregia zen eta. 32 urte zituela, Felisa Murgiondorekin ezkondu zen eta hiru seme alaba izan zituzten.

Itziar Arrizabalaga (1933)

Eitza auzoan jaioa, Aranburuetxeberry baserrira ezkondu zen. Elkarrizketa bere gizonarekin batera egin zitzaion, [Imanol Etxezarreta](#) (1931).

Ana Arrizabalaga Agirre (1927-2014)

Eitza auzoan jaio zen, eta ondoren Aranburuetxeberri baserrira ezkondu (San Kristobal auzoa). Bere gizona [Joxe Mari Etxezarreta](#) da.

Luis Arzelus Imaz (1918)



Txikitatik izan zuen osasungintzarako joera, baina pertsonen osasunak errespetu handia sortzen zionez, albaitari izatea erabaki zuen. Madrilen eta Zaragozan egin zituen ikasketak. Eskoriatzan eta Bergaran aritu zen lanean, eta gerora Ordizian, 35 urtez, erretiratu zen arte.

Isidra Azkune (1920)



Aratz erreka auzoko Atxumarría Azpikoa baserrian jaio zen, San Isidro egunean; horregatik jarri zioten Isidra izena. Hamabost urterekin neskame joan zen Azpeitira. Gerora, Zumarragara etorri zen, jostun lanetan aritzera, eta bertan geratu zen, senarra ere bertakoa baitzen.

Juan Mari Balentziaga Arrondo *Balentxi* (1943)



Bertan jaio ez bazen ere, Juan Marik Zumarragako 'Matxain' baserrian ditu bere haurtzaro eta gaztaroko oroitzapenak, aitaren jaiotetxean. Zumarragako moja eskolan eta 'La Salle' ikastetxean bere ikasketak egin eta 15 urterekin Gabiriara joan zen, amaren aldeko senideek zuten aroztegi laguntzera. Mutikotatik Urretxuko pasiotarrei meza laguntzen ibilitakoa, gaztetan antzerki taldeko kide izan zen eta Urretxu-Zumarraga ikastolaren sorreran aktiboki parte hartu zuen.

Sidi El Bouanani Ouafa (1990)



Zumarragan jaioa, Isukitza baserrian. Gurasoak marokoarrak ditu. Hainbat tokitan bizi izan da: lehen urteak Zumarragan igaro zituen, eta mutikoa zela Markinan eta Azpeitian bizi izan ziren. 9 urte inguru zituenean, berriz, ama Marokora bueltatu zen lau umeekin. Sidik arabiera eta frantsesa ikasi zituen han. Hiru ikasturteren buruan Zumarragara itzuli ziren, eta Gainzuri herri eskolan ikasi zuen, euskaraz. Zumarragan bizi da geroztik. Informatika denda batean egiten du lan. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatu dugu, Souad amarekin batera.

Juli Elizburu Agirre (1939)



1939an jaio zen Urretxuko Santa Barbara auzoko Larrea baserrian. Aita Arantzazukoa zuen, eta ama Brinkolakoa. Urretxuko karidadeko mojen eskolan eta eskola nazionalean ibili zen. Berak dioen bezala, emakumea izan arren, baserriko bizimodu gogorra gertutik ezagutu beharra suertatu zaio. Elkarrizketan, bere senarrarekin, [Jesus Lizarazu](#)rekin, agertzen da.

Imanol Etxezarreta (1931)

Aranburuetxeberri baserrian jaiotakoa (San Kristobal auzoa). Elkarrizketan bere emaztea ere azaltzen da, Eitza auzoko [Itziar Arrizabalaga](#) (1933).

Jose Mari Etxezarreta (1932)

Aranburuetxeberri baserrian jaioa, San Kristobal auzoan, 1932an. Bere emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa ([Ana Arrizabalaga](#)).

Manuel Etxezarreta Sudupe (1931)



Zumarragako 'Aranburu-Etxeberri' baserrian jaio zen 1931n. Baserria San Kristobal auzoan kokatuta dago, Aranburu azpi auzoan, esan genezake. Aita zuen Manuelek bertakoa; eta ama, berriz, auzokoa bertakoa, Aranburu-Erdikoa, hain zuzen ere. 10 senidetan hirugarrena zen Manuel. Zumarragako "hermanoetan" ikasi zuen 11 urtera arte. 15 urterekin morroi joan zen auzoko 'Iburreta' baserrira, eta jateko aukera handirik gabe egin behar izan zuen urtebete bertan. Baserrian jaio eta hazi bazen ere, etxeko lanez gain, lantegian aritzea suertatu zitzaion. Arotz izateko ikasi, eta Zumarragako hiru lantegitan aritu zen langintza horretan; horietan aipagarriena, 'Patrizio Etxeberria' lantegia. 26 urterekin ezkondu zen Eitza auzora.

Rosa Fernandez Fernandez (1961)



Arnedillo herrian jaioa, Errioxan, sei urterekin Bartzelonara joan zen bizitzera, gurasoekin. Katalanez egin zituen ikasketak, eta Heziketa Berezia ikasi zuen. 28 urterekin Zumarragara etorri zen bizitzera, bertako mutil batekin ezkondu baitzen. Hasierako urteetan senarrak Zelai Arizti taberna izan zuen, eta Rosarentzat integratzeko bide bat izan zen. Euskaltegian eman zuen izena, eta euskara ikasteko prozesu luzea egin zuen, euskaraz lan egiteko beharrezko tituluak eskuratu arte. Gaur egun euskaraz ematen ditu eskolak. Urretxu-Zumarragako Mintzalagunearn parte hartzen du, proiektua sortu zenetik. Bi seme-alaba ditu. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua.

Maria Gallastegi Parejo (1995)



Zumarragan jaioa, ama bertakoa du eta aita Bergarako Angiozar auzokoa. Bere aitona-amonak kanpotik etorri ziren, eta amak, Irenek, ahalegin handia egin du euskara ikasteko. Mariak ikastolan ikasi du, eta euskara zein gaztelania erabiltzen ditu. Etxean batez ere aitarekin egiten du euskaraz. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua, Celia Rubio amonarekin batera.

Francisco Igartua Urkiola (1921-2011)



Zumarragako Soraiz auzoko 'Urruti' baserrian jaio zen 1921ean. Hiru anai-arreba ziren sendian, eta betidanik ezagutu izan dute baserriko bizimodua gertutik. Eskolan, mojetan eta geroago "hermanoetan" ibili zen. Baserriko produktuak saltzera azokara joan ohi zen, eta etxean ganadua zaintzea suertatu zitzaion. Gerra garaian, 'Aparizio' lantegian hegazkinetarako bonbak egiten aritu zen. Soldadutza Gasteizen egin zuen, artillerian egon zen eta ukuiluko lanetan aritu zen. 24 urterekin etxera bueltatu, eta ordutik baserrian jarraitu izan du.

Leandro Iraeta Elgarresta (1928)



Leandro Urretxuko Erratzu baserrian jaio zen. Ama zuen bertakoa, aita, berriz, donostiarra. 6 anai-arrebetan gazteena, jaioberritan ama hil zitzaion eta Azpeitiko izebaren etxean egon ondoren, lau urte zituela Zumarragara joan zen aitarekin bizitzera. Eskola nazionallean eta Zumarragako Hermanotan ikasi zuen Leandrok eta 13 bat urterekin morroi joan zen Zumarragako Agiña auzoko baserri batera. 15 urte bete zituenean, Arantzazuko fraide-etxera joan zen sukaldean aritzera. 27 urte zituela, [Bittori Zubeldia Garmendiarekin](#) ezkondu zen eta 4 seme-alaba izan zituzten. Leandroren familiak estankoa zuen eta elkarrizketa egunean gogoan ditu gerra ondorengo errazionamendu eta estraperlo kontuak.

Joxe Antonio Izagirre Pildain (1918-2005)

San Kristobal auzoko 'Atxibita' baserrian jaio zen. Elkarrizketan bere emazte Monika ere agertzen da, Betelukoa.

Joxe Mari Jauregi Amileta (1926)



1926an jaio zen, Zumarragako Aranburusakon auzoko Oraagoikoa baserrian. Aita bertakoa zen, eta ama Leturiondo baserrikoa. Hiru anai-arrebatan gazteena zen. Baserritik bizi izan da beti. Behiak izaten zituzten garai batean (baita grabazioa egin zitzaionean ere) eta esnea kalera saltzen zuten, etxez etxe. Eskolan, zazpi urterekin hasita, mojetan ibili zen lehenbizi eta, ondoren, "hermanoetan". 13 urterako hasi zen artzain, eta Pagotxeta mendiko bordan pasatzen zituen artzaintzako garaiak. Soldadutzan Afrikan egon zen, eta Lazkao Txikirekin bertan pasatakoak kontatzen ditu.

Benito Jauregi Lizarralde (1924-2002)

'Etxetxiki' baserrian jaio zen, Agiña auzoan. Elkarrizketan bere arreba ere azaltzen da, [Justina Jauregi \(1932\)](#).

Justina Jauregi Lizarralde (1932)



Zumarragako Agiña auzoko Etxetxiki baserrian jaio zen 1932an. Aita bertakoa zuen, eta ama auzoko Txerren baserrikoa. 5 anai-arreba ziren sendian. 5 urte inguru zituela hasi zen eskolan Agiñan bertan: apaiza eta bere neskamea izan zituen irakasle. Etxetik kanpo ez zuen sekula lanik egin, baina, baserrian jaiotakoa izaki, hantxe heztea eta lan egitea suertatu zitzaion. Gerra garaiko kontu tristeak buruan ditu eta haien inguruan ere zerbait kontatu zigun zigun grabazioan. Ama oso gazte zela hil zitzaion. Auzoko Urdanbieta baserria erosi eta bertara ezkondu zen.

Joao Pedro Lima (2007)



Brasil iparraldeko San Luis hirian jaioa. 11 urterekin Zumarragara joan zen bizitzera, gurasoekin eta anaia nagusiarekin, bizitza berri baten bila. Ikastolan ikasten hasi zen eta, hasieratik euskaraz egiten ziotenez, azkar ikasi zuen komunikatzen. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua izan da, Werner Lima aitarekin batera. Aita ere euskara ikasten ari da.

Werner Lima Brito (1968)



Brasil iparraldeko San Luis hirian jaioa. 2018an Brasilen zuten etxea eta kotxea saldu, eta Zumarragara joan zen emaztearekin eta bi semearekin, bizitza berri baten bila. Laguntza asko jaso dute herriaren eta elizaren partetik. Ikastaro batzuk egin ditu, eta orain Zumarragako enpresa batean ari da bekadun moduan lanean. Euskara ikasten ari da. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua izan da, Joao Pedro semearekin batera.

Jesus Lizarazu Unanue (1936)



1936an jaio zen Zumarragako Antio auzoko Elixalde baserrian. Aita bertakoa zuen; eta ama, berriz, San Kristobal auzoko Ora baserrikoa. 16 anai-arreba ziren sendian. Zumarragako herri-eskolan ibili zen. Baserriari oso lotua egon izan da beti. Legazpiko Patrizio Etxeberria lantegian eta Zumarragako Orbegozo lantegian aritu zen lanean, besteak beste. Elkarrizketan bere emaztearekin, [Juli Elizburu](#)rekin, batera egon zen.

Bitoriano Lizarralde (1936)

Zumarragako Agerre baserrian jaioa 1936an, aspaldiko kontuak eta ohiturak asko gustatzen zaizkio, eta bere ahotsa behin baino gehiagotan jaso izan da Zumarragako hizkera eta ohiturak batzeko.

Maria Dolores Madina (1941)

Leonor Nogales García (1953)

Leo Valle de la Serenan jaio zen, Badajozko probintzian. 5 urterekin Aizpurutxora joan zen bizitzera, gurasoekin (haiek pare bat urte lehenago etorriak ziren, lan kontuengatik). Badajozko herrian wolframioaren harrobi bat zegoen, eta aitak bertan egiten zuen lan. Harrobia itxi zutenean, herriko jende askok emigratu egin zuen. Aizpurutxotik Zumarragara joan ziren bizitzera. Urte batzuetan etxe berean hiru bikote eta eurak (gurasoak eta 3 anai-arrebak) bizi izan ziren, bakoitza logela batean. Ez zuen euskararekin arazorik izan, debekatua zegoenez ez zuelako behar izan. Nafarroako mutil batekin ezkondu zen; hark ere ez zekien euskaraz. Semeak izan zituztenean, ikastolara eramatea erabaki zuten eta euskaldunak dira. Ilobekin saiatzen da euskaraz ikasten. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua, Jokin Rodriguez semearekin batera.



Lourdes Ormazabal Garmendia (1943)

Eitzan (Zumarragako auzoa) jaio zen 1943. urtean. Bost senidetan, neska bakarra eta zaharrena da Lourdes. Zumea lantzen zuten gurasoek. Bizilekuan bertan egiten zuten prozesu osoa: zumea egosi eta zuritzetik, saskiak, sehaskak, besaulkiak, etab. ekoiztera. Udan, eskolarik ez zegoenean, aritzen zen Lourdes ere zumea zuritzen. Ikasketak amaitu eta Eitzako okindegi batean urte gutxi batzuk pasa zituen lanean. Zumarragako Kooperatiban egin du lan ondoren.



Edurne Ormazabal Izagirre (1934)



Zumarragako Batzokia zegoen etxe berean jaio zen nahiz eta gero ez zen bertan bizi izan. Gurasoak ere Zumarragakoak zituen: aita Eitzan jaioa eta ama San Kristobal auzoko 'Atxibita' baserrikoa. Aitak zumitza lantzea zuen ofizio eta 'Busca'-rean egiten zuen lan, amak, berriz, 'Iburreta' tabernako sukaldean, besteak beste. Oraindik umea zela, aitak 'Galeperra' elkarte hartu eta bertako tabernan aritu zen zazpi urtez [Maite](#) ahizparekin batera. Gero, Elizkaleko 'Eusebio' taberna hartu zuten errentan, eta beste hamar urtez egon ziren bi ahizpak tabernari lanetan. Azkenik, gizonezkoen arropa-denda ireki zuen Piedad kalean, eta hogeita 17 urtez dendari moduan egin du lan ahizparekin batera.

Maite Ormazabal Izagirre (1937)



Eitzako izeba baten etxean jaio zen aita Gerra Zibila zela-eta Bizkaia aldean zegoela. Gurasoak ere Zumarragakoak zituen: aita Eitzan jaioa eta ama San Kristobal auzoko Atxibita baserrikoa. Aitak zumitza lantzea zuen ofizio eta Buscarenean egiten zuen lan, amak, berriz, Iburreta tabernako sukaldean, besteak beste. Zazpi urte besterik ez zituela, Ezkioko baserri batera bidali zuten ume batzuk zaintzera. Aita eta Edurne ahizparekin Galeperra elkarteko tabernan aritu zen zazpi urtez eta Elizkaleko Eusebio tabernan geroago. Ezkondu eta Caracaserara joan zen. Senarraren anaiak inportazio negozioa zuen han, baina segurtasun falta zela-eta lau urte baino ez zituzten egin kanpoan. Hogeita hamazazpi urtez gizonezkoen arropadendan jardun du lanean [Edurne ahizpa](#)rekin batera.

Pilar Ormazabal Otaegi (1932-2021)



Zegamako Olaberri etxean jaio bazen ere, jaioberritan Zumarragara eraman zuten. Hainbat etxetan bizi izan ziren: Benta etxean eta Uresaundin, esaterako. Gurasoak zegamarrak zituen; aita Azkonietakoa eta ama Olaberriakoa. Ama Beasaingo tren-geltokiko trenbide-pasabidean aritu zen lanean, eta aita ere 'Renfe'-ko langilea zen. Eskolan, karidadeko mojetan ibili zen; eta, gerora, eskola partikularrean, Zumarragan bertan. Gazterik joan zen neskame: Donostiako 'Hotel Correo'n eta Mutrikuko 'Txomin Enea' tabernan aritu zen, besteak beste. 21 urte zituela hartu zuten, etxeke denen artean, Zumarragako 'Isabel' taberna ezaguna; bertan, 17 urtez aritu ziren lanean. Isabelek, hura utzi eta zerbait berria egin asmotan, 'Golden' dantzalekua ireki zuten. 27 urtez bertan aritu zen lanean. Dantzalekua gaur ere zabalik dago, eta oso ezaguna egin zuten Zumarraga eta inguruetan. 25 urterekin ezkondu eta bi alaba izan zituen.

Souad Ouafa Hamri (1968)



Marokon jaioa, Torres de Alcala herrian. 1987an iritsi zen Euskal Herrira. Aurretik haren aita etorri zen, lan kontuengatik, Zumarragara. Souad senarrarekin eta ume batekin etorri zen (gainerako hirurak hemen jaio ziren): lehen bost urteak Zumarragan igaro zituzten, Isukitza baserrian, eta ondoren Markinan eta Azpeitian bizi izan ziren. Gero Marokora joan zen bizitzera, lau umeekin, bik asma arazoak zituztelako. 3-4 urteren buruan Zumarragara itzuli ziren, eta bertan bizi dira geroztik. Ospitalean egiten du lan, garbitzaile moduan. Sidi semea ere elkarrizketatu dugu.

Jokin Rodriguez Nogales (1982)



Zumarragan jaioa, Urretxun bizi da. Ama Badajozkoa dauka. Ikastolan ikasi zuen, bere bi anaiek bezalaxe, nahiz eta bere inguru osoa erdalduna izan. Gurasoek lagun euskaldun batzuen baserrira eramaten zituzten, euskal giroan murgildu eta euskara gehiago hitz egin zezaten. Euskara bere ama-hizkuntza dela dio: euskaraz hitz egiten du emaztearekin eta umeekin. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua, Leo Nogales amarekin batera.

Celia Rubio Antolín (1940)



Cobos de Cerrato herrian jaioa, Palentziako probintzian. 12 urterekin etorri zen Euskal Herrira. Bere anaiak soldaduzka Loiolan egin zuen, eta Zumarragako lagun handi bat egin zuen: haren bitartez, anaia etorri zen lehenengo. Aitari asko kostatu zitzaion herria utzi, eta gainerako seme-alabekin etortzea (ama hila zen ordurako). Iparragirre kalean bizi izan ziren, eta anaia guztiek Orbegozon egin dute lan jubilatuta arte. Etxea erosteko, Orbegozok aurrerapen bat eman zien eta nominatik kentzen zien hilabetero. Lau alaba eta seme bat izan ditu. Celiak ez zuen euskara ikasi, baina bere ondorengoek bai. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua, bere biloba Maria Gallastegirekin batera.

Joxe Salegi Egaña Belarreta (1926-2012)



Lasturko 'Agerre' baserrian jaio zen 1926ean. Urtebete zuela, Mutrikuko Olatz auzoko 'Aportategi' baserrira eraman zuten, eta bertan bizi izan zen. Eskolan, Olatzen ibili zen. Umetatik egon da baserriari eta zezen- eta idi-munduari lotua; idi-probetan makina bat txapel irabazia da. Ezkondutakoan, Mutrikutik Elgoibarko San Migel auzoko 'Belarreta' baserrira joan zen bizitzera, eta bertan dantzalekua ireki zuen. Handik Zumarragara joan ziren, eta 'Bar Isabel' ireki zuen, erre eta gero 'Balentiña' jatetxea hartu zuen arte.

Maite San Miguel Arrizabalaga (1930-2020)



1930. urteko abuztuan jaio zen Zumarragako Eitza auzoan. 'Labekoa' kale-baserrian jaio zen, eta lau senidetan zaharrena da bera. Aitak zumitzarekin egiten zuen lan, armadorea zen 'Busca'-ren lantegian. Maitek kontabilitatea ikasi zuen Urretxun, eta osabaren tailerrean egin zuen lan administrari gisa ezkondu bitartean. Ezkondu zenean, etxean jarduten zuen josten eta hiru seme-alaba izan ditu.

Migel Sasieta Irastorza (1922)



Zumarragako Elizkale auzoan jaio zen, kale-etxe batean. Aita-amak urretxuarrak zituen: ama 'Deskarga' baserrikoa zen; aita, berriz, 'Zabaleta' baserrikoa, tratularia. Migel oso gazte zela zen aitari tratuan laguntzen. Erdia oinez eta erdia bizikletaz, kilometro asko egin zituen ardi eta behorren atzetik. Gero, zikloturista egin zen. Tratulari-lanbidea guztiz utzi gabe, 'Patricio Etxeberria' lantegian egin zuen lan 28 urtez.

Juan Soraluze (1944)

Leturibarrena baserrian jaio zen 1944. urtean (Agiña auzoa).

Karolina Angelika Szczygielska (1998)



Karolina Lubartów hirian jaio zen, Polonian. 5 urterekin ama eta bera Zumarragara joan ziren bizitzera, amaren anaiaren etxera. Ikastolan ibili zen. Oso azkar ikasi zuen euskaraz hitz egiten, eta amak polonieraz alfabetatzen irakatsi zion. Hasieran udaran bakarrik bueltatzen zen Poloniara aiton-amonak bisitatzera, baina gaur egun dituen opor guztiak baliatzen ditu hara joateko. Harreman estua dauka Poloniarekin. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua izan da, Michelina Szczygielska amarekin batera.

Michalina Szczygielska (1975)



Michalina Lubartów hirian jaio zen, Polonian. 2003. urtean Zumarragara joan zen bizitzera, bost urteko Carolina alabarekin. Izan ere, bere anaia bertan bizi zen, emaztearekin. Alaba ikastolan sartu zuen, eta bertan asko lagundu zioten. Gaztelania erraz ikasi zuen, lehenengo helduen eskolan eta geroago kalean, egindako lagun berriekin. Michelinak ez du euskaraz ikasi, etorri zenean ez zuelako behar izan, baina oso harro dago bere alabak euskaraz hitz egiten duelako. Bertakotzen proiekturako elkarrizketatua izan da, Carolina Szczygielska alabarekin batera.

Joxe Urteaga Oria (1926)



1926an Zumarragako Eliz kalean jaio zen. Gurasoak Zumarragakoak zituen, eta 8 senide ziren familian. Umetatik akolito hasi zen eta urte dexente egin zituen eginkizun horretan; etxean, denak izan ziren akolito. "Zumarragako trikitixa" izenaz da ezagun. Gaztetan hasi zen soinua jotzen, Kandido Beristain azkoitiarra maisu zuela; eta, gerora, Joxe Migel Ormazabalekin aritu zen. Osaba panderojolea zuen; eta, hasieran, harekin ibili ohi zen erromerietan; geroago, bere anaiekin batera ibili zen, haiek ere pandero-jotzaileak baitziren. Gerra garaian, "infernuko hauspoa" debekatua zegoenenean, hainbat bizipen pasa zituen, baita erromerietan kontu ugari ikusi ere. Disko bat kaleratu zuen 1920ko hamarkadan. Ezkondu eta Zumarragako "casa Legazpin" bizi izan zen. Gerora, gaur egun bizileku duen Secundino Esnaola kalera joan ziren bizitzera, eta 3 alaba izan zituen.

Juanito Urzelai Zepelin (1927)



Jaiotzez beasaindarra da, baina bederatzi urterekin iritsi zen Zumarragara. Aita treneko langile izanik, Madrilgo ikastetxe batean ikasteko aukera izan zuen. Gerra egokitu zitzaion tartean, eta lau urte igaro zituen familia ikusi gabe; 14 urterekin itzuli zen. Inprentako tipografoa izan nahi zuen, eta lan horretan jardun zuen 14 urtez, baina andregaiaren aitak proposatu zion bere garraio enpresarekin jarraitzea eta horrela hasi zen kamioiarekin lanean 'Zepelin' enpresan. Hasieran, bidaiariak eta pakete txikiak banatzen zituzten; gerora, ordea, lantegi handien produktuak.

Jose Luis Zabaleta Mujika (1943)

Zumarragako Urruzti baserrian jaio zen 1943an. Urretxun bizi izan da. Maria Luisa Mujika (Ataun, 1953) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Kurutxe Zaldua (1935)

Zumarragan jaioa izan arren, ama gabiriarra zuen eta nabaritu egiten zaio hizkeran.

Juan Zuazolazigorraga (1921-2007)



Azkoitiko Aizpurutxo auzoan jaio zen, baina gaztetatik bizi da Zumarragan. Osintxun okindegi batean lan egin ondoren, Orbegozo lantegian hasi zen txofer lanetan. Erretiratu zenean, Aspaceko furgoneta eramaten ere hainbat urte egin zuen, elbarriak Urretxuko San Martingo egoitzara eramaten.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Herria, azpiegitura

1.1. Lehengo bideak eta otsoengandik babesteko moduak

- **Hizlaria(k)**: Jauregi Amileta, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-025/006
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:11:39. **Bukatu**: 00:13:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- **Laburpena:** Oragoikoa baserria zen beraiena, eta handik gertu pasatzen zen Azpeitirako bidea. Pertsona bakarra joanez gero bidean, otsoek eraso egiten ziotenez, basoak erre egiten zituzten. Baserri inguruko mendiak eta bideak aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Gaiñantzen, hemendik, Oratik, mendi-biden, Azkoiti aldea ta toki hoieta're pasua...

- Hemendik Azpeittira, hor kamiñua in baiña lehenago, hemendi Azpeittira, hemendi. Hemendi gora. Hemendi gora.

- Baiña hor goran ze mendi o ze...?

- Pagotxeta.

- Pagotxeta.

- Pagotxeta, handikan. Lehenago, hor kamiñua in baiña lehenago, hamendi. Ta esaten due, ba, lehenago mendik zikinduta, zeak, otsok atakatzen zuela persona bakarra edo, su eman ta erre itten zituela, garbittu itten zuela, su emanda, mendiya. Hala esaten due. Eta hemen hortik bidia. Ta Naparraotik, berriz, hor goiyan, mandabidia. Naparrotik ardua mandotan Azpeittira ta eramaten emen zuen.

- Pagotxeta. Ze mendi gehiyo hemen bueltan?

- Hor Izazpi ta Samiño ta, hori, bi altuen horik.

- Ta hoitatik noa dago pasoa? Bertaiño, ala...?

- Noa bertaiño?

- Ba Pagotxetatitk Azpeittira...

- Azpeittira.

- ... juten zan bezela, Izazpitik eta... Nola?

- Izazpitik ez dao pasadizoik. Bueno, pasadizua, bai, jun ezkeo, baiño. Kamiñoti Azkoittira, Oletati ta Azkoittira ta. Leno hor kamiñuik ez zan garaiyan, hala esaten due, mendiya erre itten emen zuen; bestela, atakau itten emen zuen gauen zeak, pertsona bakarra ta.

1.2. Leturia auzoa, lehen

- **Hizlaria(k):** Alberdi Urbietta, Bautista
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-027/002
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:05:31. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Itziartik Leturiondo baserrira etorri zirenean, Leturia auzoan zer baserri zeuden aipatzen du.

Transkripzioa

- Bautista, zuek honea Leturiondoa etorri ziñetenen, hau esan dezu errentan hartu zenduela.

- Bai.

- Hemen auzon, baserri asko zien? Auzo hontan baserri asko? Erdi auzo hontan.

- Bai, baiño, goiko bidean. Hau bakarrik zan, hau bat. Leturiondo.

- Hau bat bakarra zan.

- Bai, Leturiondo.
- Eta, gorago? Beste Leturia batzuk badaude?
- Han dare, oiñ, e, horik erdi hutsik dare, baiño dare Leturin bertan darenak zian lau baserritar, baserritakok.
- Lau bizitza?
- Bai. Ta bestia, hurrengua zan, oiñ´e han dao ba, Leturigoena. Bai, haura ´re baserri ona da. Ta geo Leturitarrak, hoik die han. Ta geo goragon zeon, handik etorritako arrazea oin alde inda dare, Kortaberri. Hura azkeneko zeona. Ta oin haik alde ein zuen handik eta baserriya berrittuta dao, eta oin besta batzuk bizi dia. Bai, bean arrazakok, baiño beak. Ta Leturi izena zuenak, lau haiek. Lau, goikoa bost eta hau gaiñea.
- Eta honekin sei.

1.3. Aginagako baserriak Azkoititik Zumarragara

- **Hizlaria(k):** Jauregi Lizarralde, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-030/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:03:37. **Bukatu:** 00:05:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Zumakorta mendia esaten diote auzoa bereizten duenari. Garai batean auzoko baserri gehienak Azkoitikoak ziren, baina badira urte batzuk denak Zumarragara aldatu zirela.

Transkripzioa

- Lehen esan dezu, mendiz haruzti ta mendiz honuzti zeren baserrik. Ze mendik banatzen dittu?
- Bai, eske mendik, ba, gure basarriti, Etxetxikiti, hola mendi bat dao eta haren atzekalden dare hiru basarri. Eta harek... "mendiz atzekok" esaten dieu beti.
- Ze mendik banatzen dittu? Ze izen du mendi horrek?
- Bueno, guk esaten diou "Zumorretako" mendiya o...
- Nola?
- Zumakortako mendiya, zeati Zumakorta Etxetxikiti gora bi basarriko etxia da eta handi gora dao mendi hori. Osea... Guk beste...
- Eta Agiñako etxe danak Zumarragaa...?
- Ez, ez, oin arte ez. Oin bai, e? Baiña lehen zeren: gure etxia, Zumakorta biyek eta Txerregua zan mendiz haruzti zeona, bat. Eta bi Azkoitikoak zian. Hiru basarri zeren mendiz atzetik.
- Zein zian Azkoitikok?
- Ba, Mandabitta ta Arkidi. Eta hemendikok zian, Abendañoti hasten zan, Abendaño... Agiña dana Azkoiti. Hau dana Azkoitiko partia zan. Ta gero, oin dala zenbat urte ez dakit, ez naiz akordatzen, baiña urte batzuk badia aldau giñela Zumarragaa danok, e. Zumarragak hartu zon hau, barria dana Zumarragak hartu zon.
- Aurretik Azkoiti, ordun.
- Aurreti Azkoitia, baiña gu ez, e? Gu beti Zumarragakok. Nik esaten diet beti Zumarragakok izan geala gu. Jaio Zumarragako parten, bautizau Azkoitiko parten... eske xelebre xamarra.
- Garai baten izaten zien auzok bitan banatzen zienak.
- Bai, bai, hemen´e hala zian, bitta banatzen zian. Auzua bitta banauta

zeon. Pentsau, Abendañoti... hemendi harutz goazela, Abendaño. Handi gure etxera dao, ba, bost miñutuko bidia. Eta guria zan Zumarraga eta bestia zan Azkoiti. Baiña errekek erabaitzen zon, e? Errekez honuzti Azkoitikua zan eta haruzti Zumarragakoa.

1.4. Bizikleta alokatu eta ibiltzen ikasten

- **Hizlaria(k):** Aranberri Aldanondo, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-035/006
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:09:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena:** Bizikletak alokatzen zituzten Zumarragan, eta horrela ikasi zuten ibiltzen. Pezeta kostatzen zen ordu erdia, baina dirurik ez zuten izaten eta gutxi ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Bizikletekin e, behien ibiltzen giñen alkilerren hartuta, ikasten. Elizkalen zan alkilerra, bizikletan alkilerra ta bizikletak konpontzen zittun. Joxe Miel Zumarraga.

- Eta han alkilatzen zenduen?

- E?

- Han alkilau?

- Alkilau, bai. Oseake orduerdin ibiltzea, pezta bat eo hola kobrau ohi zon, bizikletia ematen zon. Ta motil koxkorrak, badakizu, ikasten. Ta pixkat ikasitakon, ñoo! geo alkilerra pagatzeko dirua falta! Bestela gehiotan ibiliko giñenen.

- Ta alkilerra pagatzeko falta zunak, geo erosteko ´re bai.

- Bai, hoi ba, hoi ba. Erosteke ´re falta dirua ordun.

1.5. Lasto-zuziak argi egiteko

- **Hizlaria(k):** Aranberri Aldanondo, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-035/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:27:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Lastazaoak ganaduei jaten emateko izaten ziren. Lasto-zuzi gisa erabiltzeko ere bai, argi egiteko. Goizean mezara joateko erabiltzen zituzten, adibidez.

Transkripzioa

- Azao hori gero zertako ibiltzen zan?

- Gero? Ba, itaiakin moztu leku pare baten eo hiru baten ta ganauei ematen zitzaien jateko.

- A bai?

- Bai, bai. Lastazaoa. Eta, horrez aparte, Matximenta aldetik-eta jendia asko etorri ohi zan ordun hona perira eta gauen illun zeonen ta hara juteko atia jo ta, ba al daukazue lasto-zuzik? lastoazaroik? Argiya, sua eman ta hua eskun hartuta argi iñez, hortan ´e ibiltzen zan. Ta goizen mezetaa etortzeko hona ´re bai. Etxekok e ´bai. Lasto-zuziyakin argi iñez. Oso dotoria zan.

- Daneako sistema.

- Bai, bai. Ta bat azaroa kastatu xamartzen zanen, bestei harekin su eman ta geo bestekin. Hue bota, ta.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. 'Lazkao Txiki'ren txistea

- **Hizlaria(k):** Jauregi Amileta, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-025/025
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:48:53. **Bukatu:** 00:50:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Lazkao Txikirekin egon zen soldadutzan. Txiste-kontalari aparta zen hura. Lazkao Txikiren txiste bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta Lazkao Txikin xeblekerin bat; gogon izango dezu, ba, baten bat? Bi urten hainbeste...

- Bueno... Hainbeste bertso, hainbeste bertso're bai... Ta hainbeste txiste. Txisteik bukau're ez zitzakon iten harei. Ezta bukau're. Hementxe behin, Zumarragan bagare kuadrillia, hura txiste-kontatzen, ta Patxi ezkiotarra tabernariya etorri zan. Gu ikusi gintzanen, ta Lazkao Txiki bere kontuk aitzea. Ta aizkenengua kontau zun, eta jendiai parre eragin. ta hola parrez jendia, ta "e! Hau aittuizue! Hau aittuizue! Hau, hau, hau, aittuizue!" ta parrez jendia. ta esan dio, esan zunen... kaben dios, andria ala gizona're ahaztu zat" eta... Jun da bikariona: "Jun zaiz gure etxea, gure kuarton ez dago lo itteik!". Ez dakit, ba, andria laga, gizona jun zan e, ya ahaztu in zat ta. "Puzkarka, ai da puzkarka. Ta haren usaiyakin ez dago aguntatzeik. Etorri zaiz! Etorri zaiz!" ba, hala, "Baiño zerta jungo nauk?", "Bai, Jesukristo lehen hola zeon, ta oain hola jarri da!". Ta Patxi ezkiotarrak itten zun "Hik haundigok esanak dittuk!"esan zion e? Ta aizkenengua zan hura e? Kendia nahikua barre inda [...].

2.2. "Gure herriko bikarioak..." bertsoa

- **Hizlaria(k):** Jauregi Amileta, Joxe Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-025/029
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:53:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Gure herriko bikarioak..." bertsoa abesten du.

Transkripzioa

"Gure herriko bikariyu..." Hori `Basarri´k kantautakua o... ya ahaztu...

"Gure herriko bikariyuak
pulpittotikan esan du
ezkondu gabe gelditzen danak
kontzientziya galtzen du.
Nik ez genduan honinbesteko
proportziyorik izandu.
Gazte polit bat hartuko nuke
zuk bilatuko bazendu".

2.3. Apaizak ematen zuen eskola

- **Hizlaria(k):** Jauregi Lizarralde, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-030/004
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Apaizak ematen zuen eskola, baina askotan ez zen agertzen. Ganora gutxiko eskola izan zuten. Ordu laurdeneko bidea zegoen.

Transkripzioa

- Ordun, zu umea ziñenen zer zeon Agiñan?
- Bueno, zeon jende pilla bat, eskola bat...
- Eskola bazeon.
- Eskola bat bazeon. Apaizak ematen zion eskolia . Batzutan ematen zion, alde eitten ez zonen eo hola. Gure eskolia zelebria izen zan, zeati juten ziñen eskolaa ta batzutan falta zan apaiza. Beste batzutan apaizetxen zeon neskeek ematen ziun eskolea eo... erdi-jolas eo... badakizu. Eskolia desastre.
- Zuen etxetik eskola bertan geratzen zan? Gertu?
- Beno, ordu laurden. Ordu laurdeneko bidia zeon. Hauek´e ibili dia hor, eskola hortan, e? Bueno, eskola hortan... Geo berriya ein zeon. Eskolia berriya ein zeon /eintzeen/ geo. Eta han ibili die hauek.
- Oseake, zure seme-alabak´e hor ibili zien.
- Bai, Agiñan ibili zian. Txikiya ez, Alberto ez, beste danak. Bai, xerak bai. Ta geo Zumarragaa hasi zian. Horkoa alde ein in zion ta Zumarragaa hasi zian.

2.4. Aginagako apaizak

- **Hizlaria(k):** Jauregi Lizarralde, Justina

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-030/005
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:06:54. **Bukatu**: 00:08:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Aginagan ezagutu dituen apaizak izendatzen ditu. Asko aldatzen ziren. Azkena apaizetatik irten zen. Orain fraidea etortzen da hilean behin.

Transkripzioa

- Justina, esan dezu apaizak ematen zola eskola.
- Bai.
- Apaiza nungoa zan, hemengoa?
- Apaiza zan nik lehelengo ezautu nonen Joxe Larrea, hori zan Beasaingoa. Joxe Larrea. Eta gero zan, gero Ataungo bat egon zan, don Segundo Dorronsoro. Hori Beasaiñen uste det egon zala gero bikariua o. Bikario uste det egon zala. Hor hil ein zan hori, Beasaiñen. Uste det hil zala, e? Eta gero ezautu nun don Gonzalo, Plazentziko bat. Bai, haura egon zan... ni ezkondu nitzenen hura zeon. Eta gero etorri zan beste bat Andoaingoa o, Julian Prieto zeukan... apelidua zeukan. Haura. Apaiz asko aldau zian hor. Geo egon zan Larrañaga, Zumarragako bat, Joxe Maria Larrañaga. Eta atzena egon zan, geo egon zan zeako bat, Albizturko bat, oin apaizetati ertenda dao haura, Urretxun bizi da: Emiliano Elola. Eta gero harrezkeo, ba, fraillia etortzen da. Oin mezia ematen-ta etortzen da... Hillen behin bakarrik dauku mezia oin, e? Nahikua da!
- Garai baten nahikoa ein zenduen, gaiñera, ta.
- Garai baten jun ber zendun mezetaa goizen, jai goizen mezetaa. Goizeko zortziretan eo zazpi t´erditan eo hola eoten zan goizeko mezia. Atsalden errosariotaa eta juten ez baziñen, komerik.

2.5. Apaizaren neskameak

- **Hizlaria(k)**: Jauregi Lizarralde, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-030/007
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:08:36. **Bukatu**: 00:09:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Apaiz bakoitzak bere neskamea izaten zuen. Arreba, lehengusina, iloba... izaten zen.

Transkripzioa

- Apaizak, eta esan dezu gero neska bat. Zer zan apaizan neskamia o?
- Bai, apaizak neskamia eukitzen zon beti o gehie... Bai. Eo eukitzen zon arreba o... Nik lehelengo ezautu non apaizak euki zon lehengusu bat. Bee lehengusua zan. Hori esaten zon behintzet, lehengusua zala, Natalia. Eta geo hurrengok euki zon, zea, illoba. Arreba´re bai, e, [egoten] zan, baiña illoba bat´e bai. Ataungok zian hoik. Ta gero hurrengok... hurrengok´e arreba uste det euki zola. Bai, zeak´e bai, Elola, Emiliano horrek arreba euki zon. Gehienak hori eukitzen zeon, arreba o... batenbat behintzet eukitzen zeon beti.

2.6. Tindatutako soinekoaz komunioa

- **Hizlaria(k):** Jauregi Lizarralde, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-030/012
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:16:35. **Bukatu:** 00:18:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Doktrina
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena:** Auzoko batena izandako soinekoa tindatu eta hura izan zen Justinaren komunioko jantzia. Bere ahizpek ere egun berean egin zuten.

Transkripzioa

- Eta komunioa nola izaten zan? Ze ein behar izaten zenduen komunioko egunen?

- Komunioko egunen? Nik esango dizut, nere ahizpak soiñeko berriya ein zon, ein zioen, zuriya gaiñea, oso soiñeko elegantia. Apaiz ein zan hemengo auzoko bat egun hartan. Apaiz meza berriya eman zon. Entenditzen dezu? Eta ordun ein zeen komunioa nere ahizpak eta beste... apaizan illoba batek ein zeen /eintzeen/ komunioa.

- Bi lagunek?

- Bai. Ta bi mutil. Lau bakarrik. Bai. Eta ein zioen hari soiñeko bat atzen lazuakin ta kriston soiñeko elegantia. Horitxe. Dana zuri jantzi ber zan, apaizak meza berriya eman behar zon ta... bueno. Ba nik hura tintau zien eta harekin ein non komunioa. Urdin illuna tintau zuri zana ta neretzako soiñekoa hura izen zan. Ta hoixe. Komunioa jun ta komunioa ein. Guk ein gendun komunioa Gregori, ni... ez naiz akordatzen zenbat lagunek ein gendun, baiña gu´re zaharren antxekok giñen. Esaten dizut, ume asko zeon, baiña gu giñen pixkat zaharren antxekok. Entenditzen dezu? Ta ein izango gendun guk lau lagun o ez dakit sei giñen, komunioa, ez naiz akordatzen ondo. Baiña, komunioa, jun ta apaizak jauna eman eta ezer ez besteik, kitto. Ez behintzet oain bezelako banketeik eta besteik!

- Eta komunioko egunen gurutzen bat o zeozer jartzen zizuen? Medallan bat o zeoze eo...?

- Ez.

- Zuentzako gauza haundie izango zan komunioa eittea, ezta?

- Bueno... bai. Ez dakit, neska eitten zala-ta jarduten zeen berriktan, baiño... ez zon ezertako balio harek nere ustez. Eta gero haundiya, ba, haundiya ein gendun... nik hamaika urtekin ein non haundiya. Eta ordun ´e, jakiña, txikiya ein gendunak haundiya in gendun batea.

2.7. Behorren gainean obispoa

- **Hizlaria(k):** Jauregi Lizarralde, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-030/013
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:18:54. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- **Laburpena:** Bi urte zituela konfirmatu zuten (Sendotzako sakramentua). Orduan ez zen errepiderik Aginagara eta behorraren gainean etorri zen gotzaia. Martirieta auzotik eta beste leku batzuetatik ere etorri zen jendea konfirmatzera. Duela 54 urte egin zen errepidea.

Transkripzioa

- Konfirmazioa, berriz, nik bi urte neuzkala lepon eaman omen ninduen. Ni ez naiz akordatzen. Bai, hori esaten zeen. Lehen edozein moduz konfirmatzen zeen, zeati ume txikik eamaten zituen konfirmatzea. Oin ez, oin hemezortzi urte o behar dittuzu /behaittuzu/.

- Eta lehen txikik.

- Bai. Bai, bai, jaiota baldin bazenden, hartu ta eamaten zizuen ta.. Obispoa etortzen zanen, e? Obispoa etorri zan, ni akordatzen naiz nola etorri zan obispoa ta kriston koroia ipini zien han. Behorran gaiñen etorri zan, ez zeon kamiñoik arten.

- Behorran gaiñen etorri zan obispoa?

- Obispoa, bai. Eta Abendañon... hemendi Abendañora jun behar dezu Etxetxikira juteko ta han ipini zien ataian lorakin koroia, dotoria, gaiñea. Hori akordatzen naiz , nola etorri zan zea. Baiña ni orduako zea einda neon. Martittatik-eta jendia etorri zan, hor, Martitta auzoti etorri zan jendia asko konfirmatzea, e? Zeati, jakiña, lehen oiñez etorri behar zan, o nunbaitten ekarri behar zizuen, zaldin baten gaiñen eo nunbaitten. Ez zeon ez kamiñoik, ez kotxeik... ezer ez. Eta oin dala berrogeta hamasei bat urte ein zeen kamiñoa. Ez. Berrogeta hamalau urte kamiñoa ein zan Agiñara. Hona, e? Kamiño hau ein zan oin dala berrogeta hamalau urte. Lehenao ez zeon kamiñoik! Osea, bide zaharretan ibili behar zan.

- Nundik bueltan ibiltzen ziñeten?

- Ba gu, lehen esan dizudan Abendaño hortati behera, Izukitza, [Agiñeta] hor behian dao zea, apeadero txiki bat, hara ertetzen gendun kamiñoa. Ta gero kamiñoan zihar... oiñez. Oiñez! Ordubeteko biden, oiñez. Bai.

2.8. Mojen bereizketak

- **Hizlaria(k):** Ormazabal Otaegi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-032/010
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:10:29. **Bukatu:** 00:11:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Mojekin ikasi zuenean, dirua zutenek bakarrik eramaten zuten uniformeak. Eskolan errezatu, laboreak, ikasi, errezatu... denetik egiten zuten.

Transkripzioa

- Monjeta abitua jantzita? Bazeukezuen...?

- Ez, ez, gu ez giñen jun. Gu pobre giñen, gu pobre giñen. Ta batzuk ordun uniformekin juten zien, batzuk juten zien uniformekin. Baiño gu, gu ez giñen uniformekin jun.

- Ordun ere diruz aillatzen zana.
- Bai, dirukin... Batzuk uniformekin juten zien. Uniforme politta, "o sea" hola, azul marinok, hola, polittekin zien. Nei gustatzen ziten, baiño gu ez giñen jun uniformekin. Gu jun giñen garbi, gure ama garbie zan ta garbin bialduko zittun. Baiño zeakin, bai.
- Kaleko erropakin?
- Kaleko erropakin.
- Eta, Pilar, nolakoa zan eskola garai hua? Eskola goizez juten ziñeten, goiz ta atsalde? Ala goizez bakarrik?
- Ez, goiz ta atsalde.
- Goiz ta atsalde?
- Bai.
- Ta goiza juten ziñaten, ta ze in behar izaten zenuen, errezatu edo...?
- Danetati iten genun, errezatu, "labores también", eskolea're bai...
Danetati, danetati iten gendun, bai, bai, bai. Eta oraziok eta gauzak eta bai, bai; danetati iten gendun, bai.

2.9. Eskola garaian ere, nortasun handia

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Agirre, Juli
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-033/031
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:52:00. **Bukatu**: 00:53:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- **Laburpena**: Eskola garaiko oroitzapen txarra dauka Julik. Behin, zigortu eta jo egin zuteneko erreakzioaren anekdota kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta ze akordu daukazue eskola garaikoa? Zemuzko eskola garaia izan zan?
- Ba neretzako oso ona ez. Oso marjinatua sentitu nintzen. Pentsa ze anekdota dauken, gure maestrak, naizonaletakoak e? Holako makilla luze bat zeukan.
- Bai, beti, eskua hola ipiñi ta eman.
- Ta nere amak akordatzen naiz, nakarrezko hebillak izaten zien, hola ipintzeko illen bilduta. Ta nik illea luzea neuken. Hamen bilduta e? Dana hemen ipiñi. Juten naiz eskola, eta oi! Ez dakit ze demonio, ez dakit ze demonio in nun, o in nun o ez nun in. Hasarrau zan, jotzen dit burutik behera, ta puskatzen da hebillera, ta kriston txitxoia atera zin. Uste dezu zuk? Eta ni ordun jata rebelatu in nintzan, zeatik oso letxe txarra daukat, egiya esan. Eta badakizu ze in zian? Han estufa zahar bat bagendukan, ta han eukitzen zigun bilduta, kuarto zahar baten, estufa hartan sue itteko negun. Sartu ta [...] hortako kuarto illun baten sartuta, gutxienez ordubeten euki zian, pentsa, emanda.

2.10. 'Cara al Sol', Franco eta Jesu Kristo

- **Hizlaria(k)**: Elizburu Agirre, Juli; Lizarazu Unanue, Jesus

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-033/034
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:55:48. **Bukatu**: 00:56:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Jesusek gogoan ditu garai hartako maisuak. Cara al Sol abestu behar izaten zuten eskolan. Franco eta Jesu Kristoren koadroak zeuzkaten eskolan, bakoitza alde banatan.

Transkripzioa

- Zumarragan euki genun maixu don Zipriano, don Abundio ta don Manuel. Hiru. Ta haik egundoko [...] ateratzen zuen jendei. Baiño eman, gaiñe, egurra eman e?
- Egurre ematen zan ordun.
- Ta jende guztiya, gu ume danak, bildurrez sartzeko ta ertetzeko, bildurrak akatzen. Geo Franco jartzen zuen han, berriz, eskua hartu ta kantatzen.
- Bai, 'Cara al Sol' kantau behar zan.
- 'Cara al Sol' beti kantau behar zan e?
- Zer zan? Eskubi? Ezkerra? Zer zan?
- Ez dakit.
- "Cara al Sol con la camisa rota". Hori kantau behar zan e?
- Eguardin, sartu behar zanen, erten behar zanen, hura kantau behar, derrigor.
- Sarreran eta bai erteran?
- Bai, bai, bai.
- Ta bazeukezuen Francon koadron bat o zeozer?
- Bai.
- Bai, hoixe.
- Francon koadroa ta Jesu Kristo. Ta hola: alde batean bat eta besten bestea. ta gero maistrak [...] pupitre altu bat, ta beraiek oso goian eoten zien.
- Bai.

2.11. Kaskarreko ederrak eta "¡Viva España!"k eskolan

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Aldanondo, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-035/008
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:09:58. **Bukatu**: 00:11:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Sei urterekin hasi zen eskolan. Zazpirekin komunio txikia. Kaskarreko ederrak hartzen zituzten eskolan. Cara al Sol kantatzen zuten sartu aurretik, bandera jasota. "¡Viva España!" hots egiten zuen fraide batek.

Transkripzioa

- Inazio, ze rekuerdo dauzketzu eskolakok? Zenbat urtekin hasi ziñen eskolan?

- Eskolan? sei bat urtekin eo hola. Zazpi bete bae. Zazpi urtekin komunio txikiya ein.

- Ta ze rekuerdo eskolakok?

- Eskolakok? Hola, atzeatu xamarrak giñenai ta, kaskarreko earrak garai haitan. Ez zien asko bildurtzen ematen reglekin buruti behera.

- Bai? jotzen zizuen?

- Bai, bai. Ordun? Oin umeik ez da jotzen ordun bezela, e? Ordun gerra ondorea zan ta, ganau onak zeren haek. Eskolaa sartzeako, pation formau. Lau, lau eskola zeren, lau illara, ta kantatzen gendun `Cara al sol´.

- Hoi derriorra.

- Bai, bai, sartzeako. Banderia. Banderia jasotzen zan gora.

- Zenek jasotzen zun bandera? Eatako maisun batek?

- Ez, ez. Motil koxkor bat ipintzen zuen. Ta harek jaso, ta kantau hori. Ta azkenen bukatzen gendunen hermano batek esaten zon “¡viva España!” ta “¡viva!” danok hots eitten gendun ta, ala, barrura.

2.12. Kanean bazkaltzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Aldanondo, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-035/009
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:11:22. **Bukatu**: 00:12:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Kanean bazkaltzen zuten, auzoko andre baten etxean. Eurek eramaten zuten jakia, babarruna gehienbat; su-egurra ere bai.

Transkripzioa

- Goiz ta atsalde juten ziñeten eskolaa?

- E?

- Goiz ta atsalde?

- Goiz ta atsalde ematen zuen. Beti ez giñen gu juten goiz ta atsalde. Goizeen, jeneralen.

- Ta bazkaltzea, etxea?

- Ez, ez. Kalen bazkaltzen gendun. Baiño etxetik babak eaman ta egosten ziun hor, Elizkalen bazan gure auzoko andra bat ezkondata, Monika. Haren etxen.

- Etxetikan preparauta eaman ta han.

- Etxetik gordiñik igual. Harek egosita ipintzen ziun. Bai, babarrunak.

- Zuek bakarrik ala herriko gazte gehio re´bai?

- Nun?

- Bazkaltzeko toki hortan.

- Ez, ez. Gu. Auzokok giñelako, ba, ezaunak. Harek prepatzen ziun ta. Ta prepaatzeko beti astoon o, zakun bat egur o, ama zanak eamaten zion hari. Badakizu ba, sua itteko. Ordun ez zan butanoik.

2.13. Itsasakorta soinujolearen historia

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Aldanondo, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber

- **Erref:** ZMG-035/038
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:15:46. **Bukatu:** 01:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Itsasakorta soinujolea famatua izan zen. Oso soinujole ona eta mutil ederra. Zazpi neska haurdun utzi zituen eta Ameriketara joan zen ihesi. Paperak egin arte ezkutatuta egon omen zen baserri batean. Suerte txarra izan omen zuen han.

Transkripzioa

- Harrek soiñue jotzen zeakin ikasi zon, Itsasakortakin. Itsasakortak gero Amerikaa eo ihes egin zon hamendik. Garai hartako soiñujoleik onena. Jose Oria zaharrakin "el año veinticincon"etaratako diskok oindik jotzen dittue harenak, e? Itsasakorta. Amerikaa ihes ein zon, baiña han ´e apenas suerteik izan zon. Garai haitan zan onena, soiñujolea. Ez al dakizu hari ze pasau zitzaion? Ez? Beak aiña kulpa izango zuen harengana juten zienak. Zazpi neska kargau zittun harek. Neskak atzetik. Mutil earra ta, soiñujolea ta. Ta geo... geo halako jaleua!

- Eta ihes egin behar izan zon.

- Bai, ihes. Hamen eon omen zan ezkutauta. Barrio [...] kuarton baten, papelak eiñ arte. Ta papelak arreglau ziuenen Amerikaa. Baiño han ´e suerte txarra izen zola esaten zuen. Ez gehio behintzat honutza...

- Ez zan gehio etorri.

- Ez.

2.14. Ijitoaren azken hitzak

- **Hizlaria(k):** Sasieta Irastorza, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ZMG-036/021
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:27:38. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- **Laburpena:** Behin, Zumarragako ospitalean, ijito bat hil zenekoa kontatzen du. Haren azken hitzak gogoan ditu.

Transkripzioa

- Ijito bat, esango dizut, Zumarragan mutikoa nengola, ni Eliz kalen bizi nintzala, zabaldu zan zaratia, Zumarragako ospitalen, Mertzedariatan zan ospitala, aurrez, lelengo-lelengo hemen. Eta hor" ijito bat hil emen da, zean, Merzedarian, ospitalen!". Ta halaxe nere aitta [...] Zumarragakua zetorren handik goiti behera, hango kapillaua zegon. Eta goitti behera dator, eta "Hola, don Andres! Este, egiya al da ijitua hil dala ospitalen?", ta "Bai, anima bat zerun gehiago" esan du bestiak.

- Nola?

- "Anima bat zerun gehiago". Ta "Eta? Hiltzeakon esan du zerbait?", ta "Bai, esan dit esateko bere emazteri lehengo martxai segitzeko, ta iñokin ez fiatzeko!"

2.15. Orbegozo lantegian jende asko hil zen

- **Hizlaria(k):** Sasieta Irastorza, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ZMG-036/052
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:14:05. **Bukatu:** 01:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** Orbegozo lantegia Zumarragara iritsi zenean, eraikuntzan aritu ziren. Orduko teknikei buruz hitz egiten du. Istripu bat egon zen, baina, teknika desegokiak baitziren, Jende asko hil zen Orbegozon garai hartan.

Transkripzioa

- Eta gero hemen orbegozo etorri zanen, ta... Nola aldatu zan herriko jira?
- Ba nik gogon daukat, esto, Orbegozonen ekarri zuten prensa bat. Bueno, horrezaz aurretik, paretak itten, Orbegozon tailerra itten ibilli zianen, paretak itten zittuen. Eta ladrillok hola bata beste in beharren, hola in zittuen. Hola, kapa ez. ze pasau da? Bate apoioik be, ta [...] behintzat, lehengo gizona hildakoa hura izen zan, azpin harrapatuta hil zan bat. Gu mutikuak, danok korrika zea ikustea jun giñan, este, nola zeon gizona azpin. Eta halaxe etara zuen. Orbegozon jende asko hil zan ordun, garai hartan.

3. Euskara

3.1. Soldadutzan kapitainaren laguntzaile

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Sudupe, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-029/013
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Manuel soldadutzara joan zenean, kapitainaren laguntzaile izan zen. Orduko eginkizunak aipatzen ditu. Oraindik erdaraz ondo egiten ez bazuen ere, oso ondo moldatu zen azkenean.

Transkripzioa

- Ba, geo bakizu ze... Problemia esatea ni joan, baiña arazoa esaten da oin.

Ni soldadu jun nintzan, eta tokau nintzan "cañones contra carlos arkalea". Ta kapitanak esan zian, ez dakit "cara de tonto" o umilla ze hartu zian, eta aber bere asistente izete nahi al nun. Ta bestela guardiak in ber izeten nitun fusillakin, ta fusillak zaitu, ta guardiak itten, ta aspertuta genden; ta asistente baietz, gustora. eta "Bueno, pues tienes que ir a San Sebastián a mi casa, y tienes que presentarte a donde la mujer". Jun nintzan ta ni larri erderaz. Ta naparra zan gaiñea, nungua zan hua? "De..."

- Lezaungoa.

- Lezaungoa kapitana bai, baiño andria zan de Biurrun, ez dakit nungua zan. Ta andria larrittu in zan, zegatik ni larri-larri erderaz, eta "¿Ya nos entenderemos?", ta nik asistente baietz, baietz esan nion. Baiño erderaz ez giñakigula jun giñan gu soldadu e? Hogeita bat urtekin. Ta asistente hartu nindun ta "como dios" arreglau nintzan geo handik aurea andriakin ta beakin. Naparrak zian, baiño gaizki erderaz, gaizki. bai, ta nere modun gehiyo're gehiyo ezautzen dittut nik e? Oin, araoztarrak eta nerekin fabrikan ibili zianak e, Mutilloko Martin, Araozko Zumalde ta... Horik'e...

- Zure edadekok eta ordukok asko.

- Soldadu jun ta larri e? Ta erderia, ta bildurrez, larri. Ba ni asistente hartu ta beakin bukau nun; eta oso gustora gaiñea, oso ondo. Baiño lenengo hoixe esaten zien, "¿Ya nos entenderemos?", eta nik baietz, bestela guardiak in behar nittun, ba, kuartelen, ta guardik ez itteagatik. Ta geo, jantzi paisano ta "como dios" Donostin ibilli nintzan.

- Beittu. Asmau zendun.

3.2. 'Xabierto', euskarazko liburu mitikoa

- **Hizlaria(k):** Jauregi Lizarralde, Justina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-030/009
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:14:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- **Laburpena:** Eskolan dena erdaraz. Tutik ez zuten ulertzen. Xabierto liburua zuten etxean baina ezin zen eskolara eraman. Biderketa taula buruz ikasi zuten. Xabierto liburu oso polita zen. Lazkao Txikik teilatuan gordeta izan omen zuen.

Transkripzioa

- Ordun erderaz ikasten zenden...

- Erderaz.

- Eta euskeraz ein ezkeo, kastiguik bai?

- Ez, ez, ez. Baiña ez gendukan liburuik. Liburua nik euki non liburua `Xabierto´ esaten zien liburu txiki bat. Katona o esaten giñon. Baiño haura etxen euki ber, haura ez zeon eskolaa eskartzeik!

- Zeatik?

- A! Ez dakit. Guk euskeraz ezer ez gendun... Leittu dana erderaz. Tutik ez gendun entenditzen ze esaten gendun, ezta arrastoik´e! Kontuk etaa erderaz. Tablia ikixi gendun guk earki. Hura kantau in ber izeten zan eskolia bukatzen zanen. Kantatzen gendun "dos por uno, dos" o hola hasten giñen ta tabla guztiya. Hori ikixi gendun ondo, e? Baiña osten...

- Eta `Xabierto´ liburua zuri zenek eman zizun?

- Etxen zeon.
 - Lehendik?
 - Nere anaia ganau earra hunan, ba! Harek zuzentzen zittun!
 - Zure anaiek zeuken liburue?
 - Bai.
 - Ta liburu hoi zer zan doktriñako liburua o...?
 - Ez, beste... `Xabierto´ esaten do, ba,... zuk ez dezu aittu behiñ´e Lazkao Txikin istorittan? Haak´e esaten do taillatun gordeta euki zola, e?
 - `Xabierto´. Eta ze, ze...?
 - Ba, katona esaten giñon guk. Liburu bat zan, holako liburu koxkor bat. Eta nik hura leitzen non buruz´e bai.
 - Baiño ze gai o zer zeuzken harek?
 - Nik ze esango dizut... ume kontuk.
 - Ipuiak o...?
 - Bai, bai, ipui batzuk zeuzkan. Baiña politta zan, aizu! Baiña galdu zan, arrastoik ez.
 - Ta zuri etxen aurretik batenbatek irakurtzen-ta erakutsi zizun?
 - Bai! Bai, bai, bai, bai, batenbatek beti erakutsi ziun zeoze leitzen eo. Badakizu. Baiño ez genekiun... erderaz nik esan dizut tutik ez gendun entenditzen, ze esaten gendun arrastoik ez eta dana erderaz in behar dana. Kontuk-eta erderaz, irakurri o leittu erderaz. Lehen "leittu" esaten giñon. Leittu erderaz dan, eskribittu erderaz. Zer genekiun guk?

3.3. "Hablar en cristiano"

- **Hizlaria(k)**: Aranberri Aldanondo, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-035/010
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:12:22. **Bukatu**: 00:13:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Euskara » Euskararen egoera
 Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Euskaraz egiteagatik ez du zigorrik jaso baina asko insistitzen zieten erdaraz egiteko: "Hablar en cristiano!". Baserritarrak eta kaletarrak sarri ibiltzen ziren demandan, harrika eta.

Transkripzioa

- Inazio, euskeraz hitz eingo zenduen noski, eskolan.
 - Euskeraz guk bai. Baserritarrak euskeraz hitz eitten gendun.
 - Baiño librea al zan, ba?
 - Hori ba, hor ibiltzen giñan gaizki. "Hablar en cristiano" esaten zuen geo.
 - Kastiguik izaten zenduen?
 - E?
 - Kastiguik bai euskeraz itteatik?
 - Ez, ez. Euskeraz eitteagatik kastiguik ez baiño beti behintzat "hay que aprender en castellano" esan ohi ziu.
 - Ta ikasi al zendun bate?
 - Ikasi, entendittu behintzat. Entendittu ta esaten´e, beti esaten gaiztotsugoa da entendittugatio. Edo esplikatzen.
 - Inazio, antzematen zenduen kaletarrak parre itten zizuela. Baserritarroi, kaletarrak parre itten zizuenik?
 - Bai, kontrariok izaten giñen baserritarrak kaletarrakin. Burrukak, eta

badakizu, ba. Harrika alkarri ta holako gauzak.

- Izaten zan pike hoi.

- Bai, bai. Ordun bai. Oain hoi, gauza hoi ez da eongo hortaiño baiño.

4. Ekonomia eta industria

4.1. Lantegietan langileak behar zituzten garaia

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Sudupe, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-029/019
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:26:17. **Bukatu:** 00:27:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- **Laburpena:** Lehen, eskola bukatutakoan, 14 urterekin hasten zen jendea lanean. Manuel maiorazko izateko esperantzan zebilen, baina lantegietan langileak behar zituztenez, baserriko jende asko haietara joan zen lanera.

Transkripzioa

- Bueno, nik garbi. Ordun eskolia bukatzen zanen, hamalau urtekin lanea hasten zan jentia. Ze lana zeon. Eta ni eon nintzan basarriko maiorazgo esperantzan bezela. Eta ni bezela hemen asko auzon. Ordun maiorazgo izaten zan ba, ni nintzan zaharrena, ta maiorazgo basarrin aurreako martxan.

- Maiorazgoa esaten ziozuen etxeko mutil zaharrenai?

- Bai, jeneralen zaharrena. Oain, besten bat igual geatzen zan askotan.

Baiño geo etorri zan halako mobimentua enpresatan, halako mobimentua. Ta basarriti ikusten gendun ez zeola ezer asko, ba, [...] ta nere modun hemen lau o bost mutil bagenden, baserrirako ideakin, baserrin maiorazgo geatzeko. Danok fabrikara jun giñen. Danok. Ta gero fabrikez aparte, ba, basarriya mantendu. Fabrikan zortzi ordu sartu, eta geo etxea etorri, ta jai ta aste ta bakaziotan hemen lana.

4.2. Patrizio Etxeberriareneko zereginak

- **Hizlaria(k):** Etxezarreta Sudupe, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-029/029
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:38:09. **Bukatu:** 00:39:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Goierriko lantegiak
- **Laburpena:** Patrizio Etxeberriaren lantegian aritu zenean, zer zeregin izaten zituen azaltzen du.

Transkripzioa

- Zuk zeorrek Patrizionen ze itten zendun. Zure lana zein izaten zan Patrizionen?

- Bueno, lenengo aldiz, ba arotzerin, zergatik reparazio asko. Patriziok etxek'e pilla bat berek zeuzkan. Eta gero taillerren ba bagenden hogetaka gu, ta ate ta leiho ta milla gauza. Ta geo reparaziotan... Azkenen eskolak elizak, danak bereak zitun Patriziok, beste bostehun etxe o bazazkan, langillei ipiñitta. Ta haren reparaziok eta danak guk egiten giñuzen. Reparaziotan.

"O sea que" zu jeneralen taillerretik kanpoa ibiltzen ziñen.

- Bai, gehiyena bai. Oain zeozer in behar zanen, aten batzuk o leihok o zeoze in behar zanen, taillerran makinak eta han egoten zian, ta han in behar zian, baiño...

- Ez zenduen, ba, makinaria haundirik eukiko, ez? Garai hartan...

- Ez, bueno makinariya bazeon. Ez oain bezin modernok e? Oain bezin modernok ez. Baiño makinariya bai. Ta Patriziok makina, makina mordua zaukan.

- Jeneralen kanpoako saltzen zun. Ala hemen inguruan ere bai?

- Bueno, saldu, herramienttia saltzen duna. Baiño mantenimentun eoten zian ordun elektrikistak, arotzak, fontanero eta kristo guztik, danak etxeko mantenimentutako. Eta gu're bai, preparaziotako egoten giñan. baiño bestela saldu, herramienttiak saldu asko. Bueno dana handik bizi zan ta.

5. Aisia

5.1. Mutrikuko 'Kilos' tabernan lanean

- **Hizlaria(k):** Ormazabal Otaegi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-032/014
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:22:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Gaztetan, neguan Mutrikuko Txomin Enea tabernan egiten zuen lan; eta udan Donostiako hotelera lanera joaten uzten zioten. Mutrikuko taberna horri Kilos deitzen zioten; eta ezizenaren jatorria nondik datorren kontatzen du. Hango lan-baldintzak aipatzen ditu. Mutrikun ezagutu zuen senarra, eta han aritu ziren bizitzen gerora ere.

Transkripzioa

- Gero handi negue pasatzen nun Mutrikun, taberna baten. Ta taberna hortan uzten zien udan zea juten, hotelea juten, kondizio horrekin, kondizio horrekin: ni hor negun han eoten nintzen, ta negun, udan Donostia. Ta kondizio hortan, eoten nintzen nik zea hortan, etxe hortan.

- Ta Mutrikun ze tabernatan?

- Bai, Mutrikun zan, esaten zien... Eon zaiz, Jesus, bar... Txomin Enea, Txomin Enea. Baiño ezizena zeuken 'Killos'.

- 'Killos'.

- 'Killos', 'Killos'. Hango hizketea, bakizu, hango hizketea. Ta hori gertau zan, ba, esango dizut, zeati Mutrikun motek eta ezizenak ipintzen "número

uno"kok die, "terribles". Eta hango nagusik oso nagusi onak zien, eta hango nagusik zeuken taberna eta zeuken dendea. Eta egun baten han ai omen zan pikuk pixatzen, ta aldamenen batek esan emen zion: "Aizu, Txomin, ondo pixau e? Ondo e?", ta esan emen zion, "Bai, hemen, motel, hemen kiloa kiloa, eta gramo a gramo a". Ta 'Kilos'ekin gelditu zan. "Mira cómo son las cosas. sí, sí...'Kilos'ekin".

- Hua zan taberna ta denda. Bik zeuzken.

- Bai, bi zeuzken, bai. "Hasta" oindio denbora gutxi arte euki due, bai.

- Ta zu eoten ziñen serbitzen han?

- Ni serbitzen, bai, mostradoren, mostradoren, ta mahaietan, ta danen.

Mostradoren, ni beste neska batekin, biok egoten giñen. Bueno ni eoten nen egunero, ta neska hori astebukaeratan etortzen zien lanea, nei laguntzea, zeatik ordun lan gehio egoten zan ta. Bai.

- Eta Mutrikun'e, etxea ez ziñan etortzen, hantxe eoten ziñen?

- Hantxe, hantxe, Gabonetan ta holaxe etxea. Gabonetan, ta gero nere gizona... Han ezautu giñen, han ezautu giñen. Ta gero han bizi izan giñen, Mutrikun. Bai, bai. Nere bi alabak han jaiotakok die. Bai.

5.2. Angulak txerri-janetarako

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Otaegi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-032/019
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:32:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Otorduetarako, zer janari prestatzen zuten azaltzen du. Behin angulak eman, eta bezeroek jan nahi izan ez zituztenez, txerri-janetarako erabili zituztenekoa gogoan du Pilarrek.

Transkripzioa

- Eta otordutan ze jateko izaten zan?

- Ba normala izaten zan ordun. Pues ze... Otordutan, ba, gure etxen jeneralen, "sopa de pescado, sopa de gallina" ipintzen gendun. Gero, ba, legatza, legatza saltsan, legatza prejittuta. Gero, esango dizut ba, este, zenbait gauza, ingo dizut: txipiroiak diela, kaillok...

- Tripakik.

- Tripakik, eta txuletak, filetek... Normala, jan normala.

- Eta hola pixkat jan berezie edo garestigoa ze izaten zan ordun?

- Ba, ordun, izaten zien angulak, eta bakizu. Ordun angulak jendek oin baiño gehio jaten zuen ordun angulak.

- Ta oain baiño merkego, seguru asko.

- Hombre, ni akordatzen naiz gure amak angulak mahai gaiñen jarri angulak. "¡Ah! Y te voy a decir otra anécdota de las angulas. Que tengo una anécdota en las angulas". Ba, boda bat, ordun, guk han kabitzen zin gure zean, komedoren, "sesenta o así, había una buena...". Bai, ordun boda haundik ez zian izaten

- Famili girokok gehio, ezta?

- Bai, hori da. Eta egun baten, ba, bodea euki gendun. Ta hemen gizon bat ba, klaro, alaba ezkondu zan kanpotar batekin. Eta, klaro, boda hartan, ba,

este, beak ilusio guztikin, lenengo platoa, entremesak eta ipintzen gendun, ta lenengo platoa angulak; eta bigarrena, ba, "merluza al horno". Eta ilusio guztikin ipin zun, eta kanpotar hori danak ikusi zittun, "¡Ai, qué bichitos! ¡Ai, qué bichitos! ¡Ai, qué...!". Danak txerrin pertzea, angula danak.

- Ez zittuen jan?
- Ez zittuen jan. Ta han aittu giñen batzuei "tortilla francesa" beste batzui legatza. Ahal dan, ahal den guztie genduken ematen.
- Eta zuek arraie eta nundik ekartzen zendun. Ekarri itten zizuen o zuek juten ziñeten?
- Ez, ez, ekarri iten gendun.
- Ekarri.
- Bai, arraie ekarri itten gendun. Baiño ez oain bezela preparauta, ta moztuta, ta arreglauta e? Ordun osok ekarri ta etxen preparatu. Eta oillaskok? Oillaskok oin preparauta ta oain badakizu nola, ordun etxen hil behar izaten gendun oillaskok: etxen hil, etxen lumatu, etxen ipini... dana.
- Eta arrai billa Donostira juten ziñeten?
- Ez, hemen bazeren peskadorak.
- Bazeren...
- Bai, bai, bai.
- ... ekarzen zizuenak.
- Bai, Maria Luisa, Maria Luisak asko serbitzen zigun. Oindio oaintxe jubilau da. Bai. Ez, ez, arrai ona, bai, hamen. Bai, bai, bai, arrai ona egoten zan.
- Bai, bai.

6. Lanbideak

6.1. 'Bar Ixabel': ordutegia eta guardia zibilen babesa

- **Hizlaria(k)**: Ormazabal Otaegi, Pilar
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Otegi, Aitziber
- **Erref**: ZMG-032/020
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:32:45. **Bukatu**: 00:33:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Polizia
Aisia » Taberna giroa
- **Laburpena**: Tabernako ordutegiari buruz hitz egiten du. Tabernan iskanbilaren bat gertatzen zenean, guardia zibilak berehala etortzen ziren laguntzera.

Transkripzioa

- Asteburutan'e tabernatan baita, tabernan baita eoten ziñen?
- Bai, bai, bai, bai.
- Ze ordutegi eukitzen zun tabernak, gauen ze ordutan ixten zan taberna?
- Berandu, berandu.
- Bai, berandu?
- Bai, tabernea irikitzen gendun goizeko seiretan egunero; eta itxi, ba, ordu batetan edo, hamabik, ordu batetan, bai.
- Eukitzen zenduen herrik jarritako aguazillik, edo baten bat, edo serenoa, edo baten bat ibiltzen zan taberna ixteko?
- Ez, ordun guardia zibille zan dana, guardia zibillek zeren, ta kuartela egon zan hor Urretxun. Eta zeozeren eskandalo o zeozer baldin bazan, guk seitun kuartelea hots eiten genun, eta guardia zibillek seitun etortzen zien.

Bai, eta guardia zibillek gure etxen egon zien... Oain garai hontan ez; baiño, ordun, sukalden ta "como de familia". Ordun, ordun ez zeon oingo kontuik. Bai, guardia zibillak estimauta eukitzen gendun guk. Bai, gaiña hak zerela etxen, gu eoten giñen trankil. "Un amparo". Trankil eoten giñen. Eta zeozer bagendun seitun abixau ta han zien seitun e? Guardia zibillak. Bai, bai.

6.2. Papiaren kontra gasoila da ona

- **Hizlaria(k):** Aranberri Aldanondo, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-035/025
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:47:05. **Bukatu:** 00:48:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Garai txarrean botatako zurari sortzen zaio pipia. Badaude pipia galtzeko botikak. Gasoila ona da. Hotzak ez du galtzen.

Transkripzioa

- Lehen´e pipie aittau deu ta esan dezu pipie aurretik botatzek...
- Pipiye, garai txarren botata daolako da hori.
- Ta pipie nola sendatzen da?
- Ostroa erteten izardittan daonen botatzen bada egurra ,ba, han pipia sartzen da. Pipia sartzen da.
- Ta zekin sendatzen zenduen pipia zeukenen egurre?
- E?
- Zekin, nola sendatu edo nola...?
- Pipie daukana?
- Bai. Ze ibiltzen zenduen?
- Pipie zeukenai ze ingo ziozun, ba? Pipie hiltzeko zea batzuk bota. Baiño hua pipiik zulau eitten do.
- Baiña botika? ze izaten zan?
- Ez dakit nola don izena. Pipie, baiño pipie galtzeko botikak badia. Bota.
- Baiño gasolina edo holakoik ez zan?
- Gasoila ona, gasoila ona pipie galtzeko. Pipie egurre zulatzen ai danen gasoilakin busti ta trapu batekin eo ondo igurtzi. Ta gasoila, oso ona.
- Ta hotzetan eukitzea? Hotzetan eukitzea´re bai?
- Hotzetan? Ez, ez, ez. Hotzagatio ez da hiltzen pipiik. Ez, ez, ez.

7. Politika

7.1. Errazionamenduko janaria

- **Hizlaria(k):** Elizburu Agirre, Juli; Lizarazu Unanue, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-033/009
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:17:13. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- **Laburpena:** Ogia kaletik ekartzen zuten, errazionamendutik, eta oso gogorra izaten zen, oso txarra. Jesusen familiari azukrea ere ematen zieten errazionamenduan, beltz-beltza. Juliren etxean, ordea, sakarina izaten zuten.

Transkripzioa

- Baiño ogiya're, artua [...], astua, astun-astun-astuna. Oso astuna ogiya e?
- Etxean itten zenduen, Jexux, hoi?
- Ez, ez.
- Ez, guk ez.
- Kaletik ekartzen zan ogiya're zan, baiño, harriya bezela pixatzen zuna.
- Bai, hori kolorekoa zan. hola, boillo batzuk zian, holako boillo batzuk, ta zenduken...
- Kartilla zenduken, ta jateko txarragua!
- Kartilla bat zenduken, ta ordun harek seillu batzuk zeuzkan. Ta bueno, ba, bost baldin bagiñen, ekartzen zigun bost-sei o, eta gero ematen zizun boillo hura. Ta fuera, handik gaiñea ez zendukan. Ta boillo hura, esaten dizut, hemen bota ta horreaiño salto itten zun e? Ta hori-hori kolorekoa.
- Ta kartilla. ordun zan kartilla [...]
- Bai, seillu batzuk kentzen zien.
- Hue zan jana handik, rasionemandua handik pagatzen zizuen. Handik. Bati horrenbeste, bestiai hainbeste. Hua puxketa. Ezer ez! Ta azukarra, berriz, beltz-beltza.
- Bueno, nik azukarra beltza izan balitz'e, aún. Gure etxean sakarina.
- Azukarra gutxi.
- Azukarra? Sakarina.
- Sakarina ordun'e bazan?
- Bai, hola kajatxo batzuk zien.
- bai, nik ezautu nun sakarina, geo're bai.
- Eta gure ama zanak beste sakarina. Nik azukarrik hemen?
- Ta zuenen azukre beltza?
- Beltza zan, bai.

7.2. Errepublikan, Elizan egondako aldaketak

- **Hizlaria(k):** Sasieta Irastorza, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ZMG-036/027
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:35:12. **Bukatu:** 00:36:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Errepublika garaian, eskolan ibili zen Migel: gurutzeak erretiratu behar izan zituzten, apaizek kale-jantzian joan behar izaten zuten... Behin milizianoak etorri ziren eskolara, zer liburu erabiltzen zituzten begiratzera.

Transkripzioa

- Baiño nola zan ordungo eskola? Republika garaia zan, ta kantuik o iten al zenduen o?
- Este... Gurutzek eta horik erretirau in zian danak. Eta hermanok, zea, sotania kendu eta piasano bezela eoten zian, jarri behar izaten zian. Eta

gogoratzen naiz nola etorri zian, este, milizianoak, zea, Elizan kontrako zeak ia ze liburuk ebaltzen giñuzen. Eta egun baten, este, dotriñea hartu zun, ta bueltauta ai zan irakurtzen; ta gu bestaldetik beira ta parrez. bai, halaxe.

- Hori milizianoak?
- Bai, bai, ordun hala zian, ba. Milizianoak, bai.

7.3. Errepublikak eta mitinak

- **Hizlaria(k):** Sasieta Irastorza, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ZMG-036/028
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:36:14. **Bukatu:** 00:37:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Errepublika garaian, alkate nor zen aipatzen du. Mitinak egiten ziren orduan. Behin anarkisten mitin baten ostean, iskanbila egon zenekoa gogoan du Migelek.

Transkripzioa

- Ta hor, errepublika garaian alkate ta zein zian? Herriko zian?
- Herritarrak bai. Gogoratzen naiz ni, este, Antion, este, mitiñak eoten zian ordun, e? Mitiñak politika... zeak. Eta halaxe, mitin ondoren jende asko jun zan, ta anarkistak dozena erdi bat o hola jun zian, eta deitzen zuen "¡Abajo el clero! ¡Abajo el clero!". Joe, jun zian han jendia elizara jundako jendia, ta pasaria eman zien. Bai. Han bazian hiru kurutze sarreran, ta oindio goguan daukat dena.
- Hori errepublika garaian'e bai?
- Bai, "¡abajo el clero!".
- Ordun...
- Oain esan beharrik ez dago hori "abajo el clero". "Abajo el clero" esan baik, jendeak uzten dio elizara juteai.

7.4. Kalekoak baserrira lanera, jateko

- **Hizlaria(k):** Arratibel Dorronsoro, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ZMG-037/019
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:32:38. **Bukatu:** 00:34:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Fabrikan lan egiten zuen jendea baserrietara ere joaten zen lanera, kalekoek gosea pasatzen baitzuten.

Transkripzioa

- Esan dezu jendea juten zala, fabrikan lanen aittuta're, baserrita juten zan lanea?
- bueno, baserrita ta kalea ere bai. Kalen aurreko [...] jende asko ibiltzen

zan ordun. Asko, asko.

- Ta hemen ordun sartzen zen?

- Ba taillerretan ta. Ordun lana're asko zeon ta. Gaiña hemen nola relebon nola itten zan, zortzi ordu in ta libre. Ta taillerreta jende asko jutten zan. Ni ez nintzen jun, klaro, nik hanka postizoa neuken ta, noa joango nintzen ta. Baserrira jun ber nintzen bestela, ondo egongo banintz baiño...

- Tailler txiki hasko zeren hemen herrin?

- Bai, bai, asko, asko, asko. Oain, itxi're, txikik eta haundik'e badakizu. Hemen nola itxi da, ba, Paris eta Sarralde, ta horik haundik zien. Hemen tailler asko itxi da, asko. Ta Urretxun'e bai, Rodríguez ta Madaia ta. Asko, asko, tailler asko zan ordun. Ta lana're hala eongo zan ta... Baiño oain gaiña kanpoko jende hau, ta hemengo jendea ba baserritakoa, baserrira jutten zan lanea, baiño hemen kanpon jende honek asko izan zan.

- Eta baserritan dirua irabazten zan'e bai, ala?

- Ez, diruik ez zan. Ordun jana. Garai hartan baserritara ta jende asko jutten zan lanea, emakumeak eta're bai ta. gosea zegon ta!

- Kalekok gosea pasatzen zuen.

- Klaro, hombre, guk baserrin ez gendun pasau, baiño... Kalen bai.

- Eta baserrita jutten zianak ze izaten zien, herrikok, ezagunak?

- Bai, bertakok, bertako jendea. Bertako jendea jutten zan.

8. Baserria

8.1. Anegak, iminak, lakariak

- **Hizlaria(k):** Aranberri Aldanondo, Jose Inazio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Erref:** ZMG-035/020
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:34:24. **Bukatu:** 00:35:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Errota
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** 60 bat kiloko irin-zakua zaku ona zen. Anegak, anega-erdia, iminak, lakaria... eduki neurriei buruzko azalpenak.

Transkripzioa

- Ta zaku iriñak zenbat eukitzen zun?

- Zakuk? Zenbait , ba, behin hirurogeta bost bat kilo ezkeo, ba, zaku irin ona. Larogeia ezkeo, oso ona. Zaku haundiya ia. Ta beti gure astok´e larogeta hamar kilo eo eamango zittun. Gehio igual. Hori anegaka izaten zan ta. Anea gariye izaten da bost imii. Bost imiiko gari.

- Imeia da?

- Lakaia baiño haundigoa. Bai, bai. Imiye, ba... hogeta bost kilo eo hola, bi imii ya izaten zien. Hogeta bost kilo, anega erdiya. Ta bestea txikixogoa, hamabi kilo ta erdi eo hola. Jeneralen txikiya. Kutxan bete ta zakue botatzeko. Ta halako hamabi kilo ta erdi bost, ba... berrogeta bost kilo eo hola da anea. Gariya. Ta bost bat imeia bota behar zakura. Ta sei... oseake, zortzi bat bota ezkeo, zakukada earra.

8.2. Urretxura joanez gero, saria

- **Hizlaria(k):** Sasieta Irastorza, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pildain Larrañaga, Itziar
- **Erref:** ZMG-036/017
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:22:35. **Bukatu:** 00:23:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- **Laburpena:** Santa Luzia egunean ardien tratua egiten zuten. Baina Urretxu eta Zumarragaren artean liskarra egoten zen, eta Urretxuko udaletxeak bazkaria ematen zien tratulariei Urretxura joateagatik.

Transkripzioa

- Santa Lutzitan'e saltzen zenittuen?
- Bai, eta, zea, Urretxu ta Zumarraga pelean izeten zian. Eta gu Urretxura eramateagatik, aiuntamentuk bazkari bat ematen zigun, zeai, behorzaleei, ematen zigun, Urretxuko Altamira aldapa hortan.
- Bai e?
- Bai, bai.
- Zumarragakok izateagatik o? Zumarragakok izateagatik?
- Ez, Zumarragako, Zumarragara juten zian batzuk, baiño Zumarragan danak ez juteko [...] hura gurdi baik, afaia, o bazkari bat ematen zigun.
- A bai e?
- [...] Urretxun.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Brasiletik Zumarragara 11 urterekin (101-243/002)

2018ko irailean joan ziren Zumarragara bizitzera, Brasileko indarkeria, lapurreta eta mafietatik ihesi. Lagunak eta ahizpa nagusia Brasilen uztea izan zen zailena.

2. Euskara azkar ikasi zuen ikastolako lagunekin (101-243/003)

Euskal Herrira etorri aurretik, gaztelera piskat ikasi zuen Brasilen. Euskara ikastea ez zitzaion horren zaila egin, ikastolan lagun guztiek euskaraz hitz egiten ziotelako. Etxean portugesez hitz egiten dute baina batzuetan euskaraz ere, gurasoek ikasteko. Euskara jakitea baliogarria dela uste du, batez ere ikastolan. Klean gaztelera eta euskaraz hitz egiten du lagunekin. Zumarragan gaztelera asko hitz egiten da.

3. Elikagai brasildar batzuk ezin lortu (101-243/004)

Brasilen jaten zituzten gauza batzuk hemen aurkitzea zaila dela kontatzen du. Adibidez, feijoada egiteko erabiltzen den irin berezia lortzea zaila da.

4. Eliza katolikoarekin lotura (101-243/006)

Etxean katolikoak dira baina Joao ez da elizara joaten lehen bezain maiz. Hala ere, akolito lanak egiten ditu. Konfirmazioa egiteko prestatzen ari da.

5. Ezberdintasun handia Brasilgo eta Euskal Herriko ihauterien artean (101-243/007)

Brasil uztea zaila izan bazen ere, Zumarragan gustora bizi da eta segurtasun handiagoarekin bizi da. Gurasoek askatasun gehiago ematen diete hemen. Ezberdintasun handia dago Brasilgo eta Euskal Herriko ihauterien artean

6. Lau hizkuntza hitz egiten ditu (101-243/011)

Portugeses, euskara, gaztelera eta ingelesa hitz egiten ditu. Gelan, marokoar bat eta hondurastar bat daude. Euskara, hizkuntza ezberdin bat dela uste du eta gustatzen zaio.

7. Euskal Herriko klima nahiago du Brasilgo baino (101-243/017)

Brasilen bero asko egiten du eta euria egiten duenean, egun batez ur asko erortzen da. Euskal Herriko klimarekin gustora dago.

8. Brasildarra eta euskalduna sentiitzen da (101-243/018)

Brasildarra eta euskalduna sentiitzen da.

9. Bere burua eta familia euskaraz aurkezten (101-244/002)

Werner Brasilgoa da eta Zumarragan bizi da. Euskara ikasten ari da. Aurkezpena euskaraz egiten du.

10. Brasileko etxea saldu eta Zumarragara (101-244/003)

Brasildar portugesa da bere ama hizkuntza. Ingelesa eta gaztelera hitz egiten ditu eta euskara ikasten ari da. Bere alaba nagusi bat Euskal Herrian bizi zen eta etortzera gonbidatu zituen. Brasilen zuten etxea saldu zuten eta diru horrekin 8 hilabetez bizi ahal izan ziren Zumarragan. Gizarte zerbitzuetako laguntza izan dute eta Wernerrek ikastaro ezberdinak egin ditu. Mekanizazio ikastaro bat egin zuen eta orain bekadun dago enpresa batean.

11. Brasilen bizi-baldintzak txarrak eta segurtasun eza (101-244/004)

Brasilen bizi-baldintzak (osasuna, hezkuntza...) ez dira onak eta segurtasun falta asko dagoela uste du Wernerrek. Zumarragan bizi diren bezala ezin izango ziren Brasilen bizi.

12. Zergatik euskara ikasi (101-244/006)

Hizkuntzak gustatzen zaizko eta Euskal Herrian bizi bada, euskara jakin behar duela justu du. Lanerako ere ateak zabalduko dizkio. Hizkuntza guztiak ikastea zaila da, baina praktikarekin errezagoa da. Bi urte darama euskaltegian. Laneko lagunek ere laguntzen diote.

13. Integratzea erreza izan da (101-244/007)

Euskal gizartean integratzea ez da zaila izan. Laguntza asko jaso dute, batez ere elizarengandik. Apaizak lagundu zien etxebizitza lortzen. Heldu zirenean,

koroan abesten hasi zen eta jendea oso adeitsua zen. UGLE-n (Urola Garaiko Lanbide Eskola) ere asko lagundu diote.

14. Euskara beti praktikan jartzen (101-244/008)

Euskaraz hitz egiten duenean, jendea pozten egiten da. Euskarak ez duela balio esaten dutenen aurkako irirtzia du. Eguneroko bizitzan, euskaraz dakiena praktikan jartzen du, hitz batzuk badira ere.

15. Semea euskalduna izateagatik harro (101-244/009)

Zumarragara heldu zirenean, semeak ikastolan ikasteko aukera sortu zitzaien. Garrantzitsua da semea euskalduna izatea eta pozik dago.

16. Brasil eta Euskal Herriaren arteko ezberdintasun batzuk: janaria, ospakizunak... (101-244/011)

Etxean, Brasileko platerak eta bertakoak jaten dituzte. Brasilen ospatzen zituzten jai batzuk. Orokorrean jendea animatuagoa da Brasilen. Elizkizunetan abestu eta dantzatu egiten dute eta hemen ez.

17. Hitz batzuk euskaraz eta brasildar portugesez (101-244/015)

Hitz batzuk euskaraz eta brasildar portugesez.

18. "Zorionak zuri" brasildar portugesez abestua (101-244/017)

"Zorionak zuri" brasildar portugesez abesten dute.

19. Brasildar portugesez elizako kanta bat abesten (101-244/018)

Brasilen elizan abesten zuten kanta bat abesten dute aita eta semeak.

20. Esfortzua egin behar da lana aurkitzeko (101-244/026)

Ez da erreza etorkina izan eta lan eta bizi-baldintza onak lortzea. Esfortzua behar da horretarako.

21. Brasilen segurtasun eza handia: lapurreta, tiroketak... (101-244/027)

Brasilen bizi zirenean, kotxea lapurtu zieten eskuetan armak zituztela. Beste behin, tiroketa baten ondorioz, bala bat etxera sartu zen. Istorio ezberdinak kontatzen ditu.

22. Euskal Herriko hotza, Brasileko beroa baino hobeagoa (101-244/031)

Brasileko eta Euskal Herriko klima oso ezberdina da. Nahiz eta hemen hotz egin, Brasilen bero larregi egiten duela uste du. Zumarragara heldu arte ez zuten elurra ikusi. Brasilen urtaroak nolakoak diren.

23. Poloniera, ingelesa, euskara eta gaztelania (101-245/003)

Poloniera, ingelesa, gaztelania eta euskara hitz egiten ditu Karolinak. Poloniera du ama hizkuntza eta ingelesa ere sorterrian ikasi zuen (haur-eskolan). Bost

urte zituela heldu zen Euskal Herrira. Euskara ikasi zuen lehenbizi, Ikastolan eta euskaltegian. Bederatzi urterekin gaztelera, gaztelaniazko irakasgaia hastearekin batera, nahiz eta aurretik hasia zen zertxobait ulertzen.

24. Gogotsu ekin zion bertakotzeari (101-245/005)

Osabaren bitartez heldu zen amarekin batera Zumarragara. Aiton-amonengandik aldentzea izan zen Karolinarentzat mingarriena. Hasieran, hizkuntza ikasi eta bertara egitea zaila izango zela bazekien arren, gogotsu ekin ziola dio. Laguntza handia izan zuen etxean, baita Ikastolan ere.

25. Amari zor dio polonieran alfabetatua izatea (101-245/006)

Amak irakatsi dio polonieraz idazten eta irakurtzen eta asko estimatzen dio hori egin izana. Bere ustez, haurrek erraztasun handiagoa dute hizkuntzak ikasteko; hazten doazen heinean, zailagoa bihurtzen da.

26. Euskara hutsean komunikatzen zen etorri berritan (101-245/007)

Erraz ikasi zuen euskara eta hura izan zen umetan Urretxu-Zumarragan erabili zuen hizkuntza bakarra aurrerago gaztelania ikasi zuenera arte. Txikitan, gaur egun baino euskara gehiago entzuten zela iruditzen zaio.

27. Euskararen doinua ez zaio atsegin (101-245/009)

Nahiz eta bere hizkuntza poloniera dela sentitzen duen, bizi den herrialdeko hizkuntza ikasteko ideia alderatuta, Euskararen doinua ez du gustuko `s´ eta `z´ gehiegi dituela iruditzen zaiolako. Gaztelania nagusitu da bere egunerokoan baina, aukera duenean, euskaraz hitz egitea hobesten du.

28. Poloniako Gabonak maite ditu (101-245/010)

Poloniako ohituren artean, Gabonak ditu atseginen. Euskal Herriarekin alderatuta, Polonian Gabonei sentimendu handiagoa jartzen zaiela iruditzen zaio. Santa Claus-ek ekartzen zituen opariak Polonian eta Olentzerok Zumarragan; naturaltasun osoz bizi zuen ohitura nahasketa hau.

29. Poloniarra sentitzen da (101-245/011)

Nahiz eta umetatik Zumarragan bizi den poloniartzat du bere burua. Hizkuntzak edo bizilekuak ez diote pertsona bati nortasuna ematen bere ustetan

30. Euskara ikasteko beharrari buruz (101-245/013)

Euskararen egunean Ikastolak antolatzen zituen ekintzak ditu hizpide. Euskara sustatzeko ekimenak ez ditu beharrezko ikusten; bakoitzak nahi duen hizkuntza askatasun osoz aukeratu beharko lukeela deritzo. Hala ere, euskara ikastea garrantzizkoa dela iruditzen zaio.

31. Pertsonaren izaerak integrazioa baldintzatu (101-245/014)

Hasieran desberdina sentitu zen arren, arrazakeriarik ez du jasan eta, orokorrean, ez du ikusi ere. Hala ere, jatorria edo koloreari baino, kanpoko pertsonak integratzeko egiten duen ahaleginari begiratu beharko litzaiokeela iruditzen zaio. Jatorriak baino, integratzeko orduan garrantzia handiagoa luke pertsonaren izaerak eta haren gogoak.

32. "Polonian, hobe ilitzateke hiltzea gaixotzea baino" (101-245/022)

Euskal Herrian ditugun abantailez kexu garela entzuteak min ematen dio Karolinari. Poloniarekin alderatuz, osasunari dagokionean batez ere, egoera askoz hobea bizi dugula dio. Tamalgarria da hango osasun-sistema.

33. Polonian ez da oso osasungarri jaten (101-245/023)

Poloniako janari tradizionala ez da batere osasungarria. Barazkiak, arraina, entsaladak eta antzerako jakiak ez zituen ia ezagutzen; han ez dira kontsumitzen.

34. Poloniarrak, itxiagoak (101-245/024)

Harremanak izateko modua ere desberdina da. Kanean baino, etxeetan biltzeko ohitura handiagoa dago Polonian. Euskaldunak itxiak omen baina, bene-benetako itxiak, poloniarrak direla dio Karolinak.

35. Hizkuntza zaila da Poloniera (101-246/005)

Poloniera eta gaztelania hitz egiten ditu. Euskara baino zailagoa iruditzen zaio poloniera letra konposatuak eta ahoskera zaila duelako, besteak beste. Bere abizena, adibidez, 6 kontsonantez hasten da. Gaztelera aldiz erraza iruditzen zaio eta erraz ikasi zuela dio.

36. Laguntza handia jaso zuen etorri berritan (101-246/006)

Anaiaren bitartez etorri zen Poloniatik. Harrera beroak eta jasotako laguntza guztia ditu hizpide. Ikastolak poloniar jatorriko irakasle bat hartu zuen alabarekin komunikatu ahal izateko; hiru hilabeteren buruan bazekien euskaraz hitz egiten.

37. Harro sentitzen da alabaren EGArekin (101-246/008)

Nahiz eta berak ez duen euskara ikasi, integrazioarako elementu oso baliagarria iruditzen zaio. Harro sentitzen da alaba euskaraz hitz egiten entzuten duenean, eta are gehiago EGA duelako: meritu handia duela dio. Orotara, lau hizkuntza menperatzen ditu alabak.

38. Bere buruaren jabe izateko beharra (101-246/009)

Etorri berritan, emakumea erabat independentea izanik, senitartekoen mende egon behar izatea izan zen gogorrena Michelinarentzat. Hizkuntza ez ezagutzearen ondorioz lan egin ezin izanak estutzen zuen hasieran.

39. Horma-hilobiekin harrituta (101-246/010)

Hilerrietako horma-hilobiek harritu zuten erabat. Polonian lurperatu egiten dira hildako guztiak, oso katolikoak dira han.

40. Irekiak, adeitsuak eta hurbilak dira euskaldunak (101-246/011)

Taberna asko, jendea kalean lasai, elkarte gastronomikoak... ez dira Polonian ikusten. Uste denaren kontra, euskaldunak adeitsu eta hurbilak iruditu zitzaizkion hasieratik.

41. HHEn ikasi zuen gaztelania (101-246/013)

Helduen Hezkuntza (HHE) eskoletan ikasi zuen gaztelania. Irakaslea estimu handiz gogoratzen duen arren, subjuntibotik ez zela pasa kontatzen du.

42. Nahiz eta euskaraz ez jakin, ez du inguruan hitz egiteak gogaitzen (101-246/014)

Hasieratik izan zuen euskararekin harremana nahiz eta ez duen sekula ikasi. Anaiaren etxean euskaraz egiten zen eta izan dituen lan guztietan ere euskaraz egin izan da. Bere inguruan euskaraz hitz egiten dutenean ez zaio gaizki iruditzen, alderantziz. Oinarrizko hitz batzuk ikasi ditu.

43. Poloniako jakiak prestatzen ditu hemen ere (101-246/015)

Orokorrean, poloniar erako jakiak prestatzen ditu etxean: Pierogiak (enpanadillak), bigos (aza eta haragi mota desberdinak), zopak... Ez daukate hemen prestatzen direnekin inolako zerikusirik.

44. Poloniako Gabonetan, erlijioa eta familia oso nabarmen (101-246/016)

Poloniako Gabonak oso desberdinak eta bereziak dira. Erlijioak eta familia arteko ospakizunek pisu handia dute. Abenduaren 6a, "Santa Claus" eguna litzateke. Abenduaren 24a eta 25ari buruzko azalpenak ematen ditu. Abenduaren 26a ere ospatzen dute: San Esteban.

45. Aste Santu eta Pazko-bigarreneko ohiturak (101-246/017)

Aste Santuan, larunbata ospatzen dute: jakiak bedeinkatzen dituzte elizan, arrautzak, batez ere, eta Berpizkunde Igandean gosaltzen direla kontatzen du. Gizonezkoek emakumeei ura botatzea litzateke Pazko-bigarreneko ohitura nagusia.

46. Polonieraz hogeit hitz (101-246/023)

Hogeit hitz, bi hizkuntzatan.

47. Haur kanta bat polonieraz (101-246/025)

Kanta labur bat. Xaboa eta garbitasunari buruzko haur kanta bat da; haur-eskola berdineran joan ziren ama-alabak Polonian.

48. Umetan Arnedillotik Bartzelonara (101-249/002)

Rosa Arnedillon jaio zen, Errioxan. Sei urterekin Bartzelonara joan ziren bizitzera. Eskolan ondo moldatu zen arren, herria faltan botatzen zuen. Magisteritza ikasi zuen eta bertan lanean egon zen irakasle bezala.

49. Aitak Arnedillo faltan botatzen zuen (101-249/004)

Gurasoak Bartzelonan gustura bizi baziren ere, herria asko botatzen zuten faltan. Aita itxiagoa zen eta ez zuen katalana ikasi, baina amak bai.

50. Zumarragan bizi berria (101-249/006)

Nahiz eta Bartzelonan lagun oso onak egin, gurasoek Arnedillora bueltatu nahi zuten. Rosak Bartzelonan jarraitu zuen baina gaur egun senarra dena ezagutu zuen eta hiru urtetara Zumarragara joan zen bizitzera. Bikoteak taberna bat zuenez, jende asko ezagutu zuen.

51. Euskara ikastearen zailtasunak (101-249/007)

Zumarragara iritsi eta euskara ikasten hasi zen. Oso gogorra egin zitzaion baina euskaltegiko irakaslea bere laguna ere bazen eta horregatik iraun zuen ikasketan. Hizkuntzaren egitura ez jakitean, oso zaila egin zitzaion. Ondo ulertzen du etorkinen egoera, hizkuntza ikasten dutenean.

52. Barnetegian euskara ikasten (101-249/008)

Euskaltegiko lehenengo urtea bukatuta, 15 eguneko barnetegi batera joan zen Zestoara.

53. Euskaltegi eta barnetegietan buru-belarri (101-249/010)

Euskara ikasteko prozesua: euskaltegiak, barnetegiak... Rosaren helburua euskarazko ziurtagiria ateratzea zen, irakaskuntzan lan egiteko.

54. Euskara batuan trebatzen (101-249/011)

Irakaskuntzako oposizioetan parte hartzeko, euskarazko titulazioa behar zuen eta euskara batuan nola trebatu zen kontatzen du. Teknopolis eta Bertatik Bertara saioak ikusten zituen horretarako ere.

55. Familia, lana eta euskara ikasketak (101-249/012)

Irakasle bezala ordezkapenak egiten hasi zen herri ezberdinetan eta bi haur zituenez, ez zuen denborarik euskara ikasteko. Ordezkoa zenez, lanorduez kanpo jarraitu behar zuen euskara ikasten. Irakasle talde bat elkartu ziren haien baldintzak eta eskubideak eskatzeko.

56. EGA atera zuenean, festa handia bat egin zuen (101-249/013)

Larratxon ere aritu da euskara ikasten eta bertan euskarazko lehenengo mailako ziurtagiria atera zuen. 2004an EGA atera zuen. Nola ospatu zuen kontatzen du.

57. Irakaskuntzako oposaketak atera zituen (101-249/015)

EGAk ziurtagiria lortu eta hurrengo urtean oposizioak atera zituen.

58. Errioxako herri txiki batean irakasle (101-249/016)

Oposizioak atera aurretik, bere lan-egoerarekin nahiko erreta zegoen eta Errioxan urtebetez lan egin zuen, berrogei biztanleko herri batean. Atsedenaldi bezala hartu zuen epe bat izan zen.

59. Hizkuntza-murgiltze oso ona Katalunian (101-249/017)

Bartzelonako hezkuntza-zentro batean lan egiteko, Katalunian jaio ez izateagatik arazoak izan zituen. Hizkuntza-murgiltzea askoz garatuagoa dago Katalunian.

60. Kaleko eta etxeko hizkuntzak (101-249/018)

Gaztelania, katalana, euskara eta italiara hitz egiten ditu. Ingelesa ikastea oso zaila egiten zaio. Etxean gazteleraz egiten dute baina alabaren bikotearekin euskaraz.

61. Etxeko sukaldea, euskaraz hitz egiteko espazioa (101-249/019)

Euskara ikasten hasi zenean, etxeko sukaldea euskaraz hitz egiteko espazio bat bilakatu zuten Rosak eta bikoteak. Seme-alabak hasieratik euskaldundu nahi zituzten.

62. Euskaren eguna, Mintzodromoa... (101-249/024)

Euskaren eguna, Mintzodromoa...

63. Euskara, integraziorako tresna (101-249/025)

Euskal Herrian bizitzea erabaki zuenean, euskara ikasiko zuela argi zuen. Euskara ikastearen prozesua zaila izan bazen ere, lagun asko egin zituen eta herriko giroan sartzeko eta integratzeko balio izan zion ere.

64. Errioxarra, katalana eta euskalduna sentitzen da (101-249/026)

Errioxarra, katalana eta euskalduna sentitzen da. Egokitze gaitasun handia dauka

65. Kataluniako ohitura batzuk mantentzen (101-249/029)

San Jordi egunean liburuak oparitzea, San Juan sua, hizkuntza... mantentzen ditu.

66. Euskarareriko sentimendua (101-249/030)

Euskara bezala, katalana hitz egitea debekatua zegoen. Euskararekiko duen sentimenduaz hitz egiten du.

67. Aizpurutxotik Zumarragara (101-250/007)

Valle de la Serenan jaio zen Leo, baina hango oroitzapen gutxi dauka. Gurasoak etorri ziren lehenengo eta 3 seme-alabak urtebetez aitona-amonekin egon ziren bizitzen. Azkoitiko Aizpurutxo auzora etorri ziren, bertan eskolara joan eta jaunartzea egin zuten. Ondoren Zumarragara aldatu zuten bizilekua. Lehenengo errentan egon ziren, lehengusu batzuekin etxea elkarbanatzen, eta geroago gurasoek etxe bat erosi zuten. Oso oroitzapen onak ditu.

68. Valle de la Serenako bizimodua (101-250/009)

5-6 urterekin etorri zen Euskal Herria, lehenengo Aizpurutxora (Azkoitia) eta gero Zumarragara. Gurasoen herrian wolframio meatze bat zegoen eta herritarrek egiten zuten bertan lan. Bigarren Mundu Gerran alemanen esku zegoen meatzea; handik ateratako materialarekin soldaduentzako kaskoak egiten ziren. Baina gerra ondoren meatzea itxi egin zen eta orduan hasi zen jendea handik alde egiten. Herria handia da baina gaur egun biztanle gutxi ditu. Udan gurasoen etxera itzultzen dira eta han badituzte senideak.

69. Anaiaren oroitzapenak (101-250/010)

Gurasoek lan egiten zuten meatzea itxi zenean, lan bila etorri behar izan zuten Euskal Herrira. Leok txikitako oroitzapen gutxi du, baina anaia zaharrenak gogoan du hango bizimodua: baserriko lan gogorrak, jolasteko denbora gutxi...

70. Euskara, hizkuntza ezezagun bat (101-250/012)

Leo txikia zenean, frankismo garaia zen eta euskara debekatua zegoen. Aizpurutxoko eskolan anaia bi baserritarren artean esertzen zuten, haiek euskaraz egin ez zezaten. Leok ez zuen hizkuntzarekin arazorik izan, Zumarragan gehienbat gazteleraz egiten zelako. Aizpurutxon berriz baserritarrei entzuten zien euskara eta beretzat zerbait ezezaguna zen. Leori gazteleraz egiten ziotenez, ez zuen euskararen beharrik sentitu. Aizpurutxon leku guztietako jendea zegoen baina giroa ona zen. Gaur egun pena pixka bat du momentu hori ez zuelako euskara ikasteko probestu.

71. Semeak ikastolara eramateko erabakia (101-250/013)

Fagorren hasi zen lanean eta han gehiago hitz egiten zen euskaraz. Ikasteko gogoaz bazuen ere, bizimoduagatik, lotsagatik... ez zuen egin. Semeak ikastolara eramatea erabaki zuten. Zaharrenari batez ere gogorra egin zitzaion. Hiru semeen neska-lagunak euskaldunak dira.

72. Txikitan zoriontsu izan zen (101-250/016)

Familia etorkinak ikusten dituenean umeak zoriontsu direla ikusten du eta bera ere txikitan zoriontsu zela oroitzen da. Gurasoak kanpokoak izateari garrantzirik ez zion ematen.

73. Gaur egun euskarari balio gehiago ematen zaio (101-250/019)

Euskara beti kontuan izan du, nahiz eta ez duen ikasteko pausua eman. Gaur egun euskarari balio gehiago ematen zaio eta gehiago erabiltzen da.

74. Oporretan gurasoen herrira (101-250/020)

Gurasoen etxea mantentzen dute eta oporretan joaten dira. Semeek animaliak atsegin zituzten eta gustura joaten ziren.

75. Bilobekin euskaraz (101-250/021)

6 biloba ditu eta haiekin zerbait egiten du euskaraz. Ulertzen die eta hitz batzuk ere egiten ditu.

76. Lan asko baina etxe gutxi (101-250/023)

Zumarragan hasiera batean lehengusuekin elkarbanatzen zuten etxea. Beraien etxea izan zutenean, lehengusuen lagunak ere etxean hartzen zituzten denboraldi batez. Etxe gutxi zegoen orduan, beraiena erosi zutenean egiteko zegoen eta guztiz amaitu gabe zegoela sartu ziren. Beraien auzoan leku askotako etorkinak zeuden, ez Extremadurakoak bakarrik. Gogoan du bere amak izaraz beteriko saski bat ekarri zuela.

77. Extremadurako plater tipikoak (101-250/024)

Extremadurako platera tipikoak mantendu izan dituzte. Gurasoek "migak" (ogi-mamiak), potajea, gazpatxo... egiten zituzten. Gisatuak.

78. Bi munduren artean (101-250/026)

Gurasoek etxe egin berria utzi behar izan zuten Euskal Herrira etortzeko. Bueltatu zirenean gauzak falta ziren eta ez zegoen beraiak oroitzen zuten moduan. Ilusioa zapuztu zitzaie dio Leok. Han zeudenean hona bueltatzeko gogo sentitzen zuten.

79. Gurasoak Zumarragara nola iritsi ziren (101-251/006)

Jokinen ama Extremadurakoa da eta aita nafarra. Ama gurasoekin etorri zen umetan Zumarragara. Lan bila etorri ziren. Aita Legazpiko CIE lantegian egon zen lanean.

80. Euskara ikastolan ikasia (101-251/007)

Etxean gazteleraz egiten zuten baina hiru anaiak ikastolara joan ziren. Gurasoek argi zuten semeek euskara ikastea nahi zutela. D ereduan ikastea hasieran pixka bat zaila egin zitzaien. Euskaraz guztiz ondo moldatzen ez zirenak "gela berezia" deiturikora joaten ziren. Jokinen gelakide gehienak bertakoak ziren eta abizen euskaldunak zituzten. Irakasle batzuegan enpatia falta sumatzen zuen.

81. Lagun artean gazteleraz (101-251/008)

Lagunak ez ziren ikastolakoak, lehengusuekin eta haien lagunekin ibili izan dira eta beraien artean, nahiz eta euskaraz jakin, gazteleraz egiten zuten. Gurasoak beti saiatu ziren semeak giro euskaldunean hezten.

82. Euskarak atea zabaldu (101-251/009)

Jokinentzat gaur egun euskara da bere ama hizkuntza. Azken urteetan herrian ere gehiago erabiltzen dela sumatzen du. Orain erosoago sentitzen da euskararekin gaztelerarekin baino. Lanak, emaztearen familiak... asko lagundu diote. Komertzial gisa egin du lan eta argi zeukan euskara erabili beharra zeukala. Euskarak atea ireki dizkio: adibidez, Euskal Telebistako saio batean parte hartu zuten anaiak eta biek.

83. Euskara, ama hizkuntza (101-251/010)

Jokinen ustez, euskara derrigorrez ikasteak atxikimendu eza ekar dezake. Beraiek derrigortasun hori bizi izan bazuten ere, denborarekin Euskal Herrian bizitzeko euskara beharrezkoa zela konturatu ziren. Gaur egun bere ama hizkuntza sentitzen du euskara eta hizkuntza honetan pentsatzen ez zituen gauzak egitera iritsi da. Erronka txikiak gainditzen joan da.

84. "Kanpotarrak" (101-251/011)

Amak ez zuen euskalduna ez izateagatik bazterketarik bizi izan, baina Jokinek eta anaiek, eremu erabat euskaldunean bizi zirenez, nabaritu zuten.

"Kanpotarrak" esaten zieten eta horrek min ematen zien. Gertatu izan zaio euskaraz ondo egiten duelako jendea harritzea.

85. Euskara, babestu beharreko ondarea (101-251/012)

Garai batean, kanpotik zetorrena euskara eta Euskal Herriarentzat mehatxu moduan ikusten zen. Euskara ezker abertzalearekin lotzen zen. Gaur egun hori aldatu dela eta ikuspegi irekiagoa dagoela uste du. Amaren garaian gaztelera inposatua zegoen eta orduko euskaldunen mina ere hor zegoen. Jokinen ustez, euskara bertakook babestu beharreko ondarea da.

86. Hizkuntza bat ikasteko lotsa gainditu behar (101-251/013)

Pena du gurasoek ez zutelako euskara ikasi, baina garai hartan muga asko izan zituzten. Semeak giro euskaldunean hazteagatik meritua dutela uste du. Bilobek hitz batzuk egiten dizkiete euskaraz eta hitz egitera animatuko diren esperantza dauka Jokinek.

87. Amaren herrira udak pasatzera (101-251/015)

Umetan amaren herrira ("pueblora") autobusez egiten zuten bidaia. Udak pasatzen zituzten han. Autobuseko ilusio giroa du gogoan. Hemendik eramaten zituzten gauzak eta handik bueltan ekartzen zituztenak. 14 orduko bidaia neketsuak izaten ziten. Bere nortasunaren parte bat handik dator.

88. Palentziatik Zumarragara nola iritsi ziren (101-252/007)

Cobos de Cerrato herrian jaio zen, Palentzian. 12 urterekin etorri zen Zumarragara. Bere anaiak soldaduska Loiolan egin zuen, eta Zumarragako lagun handi bat egin zuen: haren bitartez, anaia etorri zen lehenengo. Aitari asko kostatu zitzaion herria utzi eta gainerako seme-alabekin etortzea (ama hila zen ordurako). Bigarren anai bat etorri zen eta pare bat urte beranduago guztiak etorri ziren. Iparragirre kalean topatu zuten etxea. Aitak eta anaia guztiek Orbegozon egiten zuten lan. Etxea erosteko, Orbegozok aurrerapen bat eman zien eta nominatik kentzen zien hilabetero.

89. Bizilagunekin harreman bikaina (101-252/008)

Iparragirre kaleko etxean, beraien azpian Eskasibar familia bizi zen, Azpeitia edo Azkoitikoak ziren. Oso harreman ona zeukaten. Haien seme-alabek euskaraz egiten zuten baina hain justu Celiaren familia iritsi zenean euskara debekatuta zegoen dagoeneko eta galdu egin zuten. Celiak ez zuen ikasi baina ahizpa gazteagoak bai, haur euskaldun batzuk zaintzen baitzituen.

90. Euskara ikasteko ilusioa (101-252/010)

Beti izan du euskara ikasteko ilusioa. Ezin izan zuen euskaltegira joan. Jubilatuetako ikastaro batera apuntatu zen baina ez zen jende nahikoa aurkeztu eta bertan behera geratu zen. Biloba guztiek dakite.

91. Zumarragako bizitza (101-252/011)

12-14 urte bitartean Zumarragako eskolara joan zen, udaletxean zegoen. 19 urterekin ezkondu zen Extremadurako Manuelekin. 5 seme-alaba izan

zituzten. Legorburu altzari fabrian egin zuen lan, zumezko aukien jarlekuak josten. Emakume euskaldun nahiz erdaldunekin lan egin izan du eta ez du inoiz komentario txarrik jaso. Alderantziz, oso ondo hartua izan da beti. Batzuk gizona erretiratutakoan etxea saldu eta jatorrizko herrira itzuli izan dira, baina berak ez luke sekula hori egingo. Palentzia eta Gipuzkoa, biak maite ditu.

92. Palentziako bizitza umetan (101-252/013)

Aitak ahuntzak zaintzen zituen, anaiak behiak eta neskek etxeko-lanak egiten zituzten. Ondo bizi ziren, baina Zumarragan hobeto, aurrera egin baitzuten: etxe propioa erosi, lana aurkitu... Anaia zaharrena 32 urterekin hil zen. Beste sei anai-arrebetatik Celia bakarrik geratzen da, 82 urte betetzear.

93. Familia handia (101-252/015)

Familia handia dira: 5 seme-alaba eta hauen bikoteak, 10 biloba, 3 birbiloba... Urte berri egunean guztiak elkartu ohi dira (senarraren urtebetetze eguna ere bazen). Harro dago daukan familia politarengatik eta egin duen bidearengatik. Lehen ohikoa zen baserrietan ume asko egotea, baina bere adinean 5 seme-alaba dituztenak ez dira asko.

94. Zumarragan etxe bila (101-252/017)

Dagoeneko Zumarragan zeuden bi semeei herriaren erdigunean etxe bat topatzeko eskatu zien aitak. Ez zituen alaba txikiak baserrietako txaboletan bizitzera ekarri nahi.

95. Aita erretiratutakoan ordainsaririk ez (101-252/018)

Aita 57 urterekin iritsi zen Zumarragara eta Orbegozo lantegian sartu zen. 70 urterekin erretiratutakoan ez zuen ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izan. Baina ez zitzaion ezer falta izan. Iparragirre kaleko etxean jarraitu zuen bizitzen eta seme-alaben etxera bazkaltzera sarri joan ohi zen.

96. Legorburu altzari fabrian lanean (101-252/019)

Oso harrena ona izan zuten Zumarragan. Anaiak eta aita Orbegozon egon ziren lanean erretiratu arte. Celia bi urtez joan zen eskolara, 14 urtera arte. Guillermina maistrari omenaldia egin zioten urte batzuk beranduago Donostian eta bertan izan ziren. Ikasketak amaitu eta Legorburu altzari fabrian sartu zen. Zumezko aukiak egiten zituzten; gizonak egurrezko egitura eta emakumeek eserlekua eta bizkaraldea josi.

97. Lana utzi eta etxeokak zaintzen (101-252/020)

Ia 16 urte zituela, ahizpa zaharragoa ezkondu egin zen eta etxeokak zaintzeko Celiak Legorburuko lana utzi behar izan zuen. Anaiak eta aitaz gain, hiru lehengusu ere bere kargu izan zituen. Eskuz garbitzen zuen arropa. Ahizpa txikiagoa Frantziara joan zen 20 urte ingururekin eta han bizi izan zen hil arte. Anaiak hazi arte Celiak ez zuen denbora libreaz gozatzeko aukera askorik izan. Gerora bidaia asko egin ditu, baita senarra hil ondoren ere.

98. Senarra nola ezagutu zuen (101-252/021)

Senarra nola ezagutu zuen. 19 urterekin ezkondu zen. 9 hilabetera izan zuen lehen alaba eta berak josi zion arropa.

99. Alaba Maria del Mar, Elgetan Itxaso (101-252/023)

Lehen alabari Maria del Mar izena jarri zioten, baina Itxaso deitzen diote. Moja batengatik ipini zion izen hori. Elgetan bizi da alaba, han hasi ziren Itxaso deitzen, herri oso euskalduna dela dio.

100. Gaztetako erromeriak (101-252/024)

Elgetan astebururo trikitia ipintzen dute plazan eta gaztetako erromeriak etortzen zaizkio gogora. Oinez joaten ziren Azkoitira edo Azpeitira. Ezkondu arte asko joaten zen dantzatzera.

101. Seme-alabak hazten zoriontsu (101-252/026)

Semea jaio zen azkena. 10 urte zituela ekarri zuten garbigailua, baina lan asko ematen zuen. Seme-alabak hazten egoteagatik beste gauza batzuk galdu izanaren penarik ez du; zoriontsua izan da bere bizimoduarekin. Berak josten zien arropa, gauzez berandura arte egoten zen.

102. Hemengo jakiak prestatzen ikasi (101-252/028)

Aitak bi txerri hiltzen zituen eta txerriekiekin egiten zuten lapikokoa. Gaztelan aza bakarrik ezagutzen zuten, ez zerba edo espinakarik; horiek hemen ezagutu zituen. Galdetuz ikasi zuen jakiak nola prestatu.

103. Seme-alabek euskara ikasi zuten (101-252/029)

Alaba udan Andoaingo baserri batera joaten zen euskara ikastera. Gero euskaltegira ere joaten zen, baita beste alabak ere. Berari eta senarrari oso ondo iruditzen zitzaien.

104. Euskara ulertzera iritsi da (101-252/030)

Juanita bizilagunari entzunez, euskara ulertzera iritsi zen. Anekdotat bat. Hitz batzuk badakizki euskaraz. Suhiak eta alabak euskara desberdina egiten dutela konturatzen da, baita bizilagun izan zitueneke ere.

105. Zumarragan guztiz bertakotua (101-252/031)

70 urte doa hemen bizitzen eta hemengoa sentitzen da. Bere herrian etxea dauka eta udan joaten da.

106. Argazki zaharrak erakusten (101-252/034)

Argazkiak erakusten. Gurasoen ezkontza. Seme-alabak

107. Amona Zumarragara nola iritsi zen (101-253/003)

Bere aitaren lanagatik etorri zen amona Zumarragara (Palentziatik). Ez daki euskaraz, txikitik ez zuelako ikasteko aukerarik izan.

108. Amak euskara ikasi du (101-253/004)

Mariaren amak euskara ikasi du. Baserri batean pasa zuen uda ikasten. Maria ikastolara joan zen eta horrek ere lagundu zion amari hizkuntza ikasten. Aitak ez du euskaraz oso ondo idazten, aldiz hitz egiteko ez du arazorik. Bergarako euskalkian egiten du. Amak berriz euskara batuan egiten du eta gehiago kostatzen zaio.

109. Herri txikietan euskaraz gehiago egiten da (101-253/009)

Herri txikietan euskaraz gehiago egiten dela iruditzen zaio. Lagun batzuekin euskaraz egiten du, beste batzuekin gazteleraz. Etxean aitarekin euskaraz eta amarekin erdaraz.

110. Euskara, ama hizkuntza (101-253/010)

Euskara ama hizkuntza da beretzat. Baina eroso sentitzen da erdaraz ere. Biak erabiltzen ditu.

111. Amonaren argazkiak (101-253/012)

Argazki zaharrak erakusten: birraitona-amonaren ezkontza eta aiton-amonak alabekin.

112. Marokotik Zumarragara (101-257/003)

1987an Zumarragara bizitzera etorri zen. Aita Zumarragan bizi zen eta Souad ezkondu zenean, senarra eta bera bertara joan ziren bizitzera.

113. Lehenengo hilabeteak Zumarragan (101-257/005)

Marokotik Zumarragara bizitzera joan zenean izan zituen lehenengo bizipenak kontatzen ditu. Ez zuen ezer ulertzen. Bizilagunekin oso harreman ona egin zuen eta gazteleraz ikasi zuen.

114. Merkatuetan saltzen (101-257/006)

Zumarragara bizitzera joan zenean, baserri batean bizi ziren eta bizilagunek asko lagundu zioten integratzen. Urte batzietara, Markinara joan ziren bizitzera eta handik Azpeitiara. Merkatuetan lan egiten zuten.

115. Marokora itzuli zen semeekin (101-257/007)

Azpeitian 10 urtez lan egin ondoren, Marokora itzuli zen semeekin. Joan-etorrian ibili ziren. Semeek Azpeitian euskaraz eta gazteleraz hitz egiten zuten eta Marokon arabiarrez hitz egiten eta idazten ikasi zuten.

116. Harro semeak eleanitzak izateagatik (101-257/010)

Souad-ek semeek ikastolara bidali zituen hasieratik. Euskara integratzeko tresna dela uste du eta oso harro dago semeak euskaldunak direlako.

117. Kanpotarra izateagatik, ezberdin tratatua (101-257/013)

Arrazagatik ezberdin tratatua izan dela sentitu da. Egoera batzuk kontatzen ditu.

118. Zapia eramateagatik lana aurkitzeko zailtasunak (101-257/014)

Lau semeak piskat nagusiagoak zirenean lan bila joan zen eta zapia eramateagatik ez zuen arazorik izan baina bere lehengusina batek bai.

119. Itzultzaile-lanak egiten ospitalean emakume etorkinekin (101-257/016)

El Amal emakumeen elkarteari buruz hitz egiten du. Emakume asko gaztelera jakin gabe heltzen dira eta gertatu izan zaio ospitalean lanean egonda, itzultzaile lanak egin behar izatea emakumeak erditzera doazenean.

120. Euskara ikasteko erreztasunak (101-257/017)

Euskaraz ikasteko erreztasunak daudela uste du baina berak ez du denborarik izan familia eta lanarekin.

121. Gurasoak Zumarragara lanera (101-257/019)

Souad-en gurasoak hasieran eta gero bera senarrarekin Zumarragara nola heldu ziren kontatzen du.

122. Semeak euskaldunak (101-257/020)

Seme nagusia Marokon jaio zen baina beste hirurak Zumarragan. Denak euskaldunak dira eta haien artean askotan euskaraz hitz egiten dute. Euskara ikasten hasiko da.

123. Hitz batzuk arabiarrez (101-257/022)

Hitz batzuk arabiarrez

124. Euskara oso garrantzitsua da (101-257/024)

Euskal Herrian integratzeko euskara garrantzitsua da. Askotan sentitzen du berari zerbait falta zaiola.

125. Marokotik Zumarragako baserri batera bizitzera (101-258/005)

Familia Marokotik Zumarragara nola heldu zen kontatzen du Sidik. Zumarragako Agineta auzoko Izuzkitza baserrian bizi ziren hasieran eta Sidiren amak oso harreman ona egin zuen bizilagunekin.

126. Azpeititik Marokora eta handik berriz Zumarragara (101-258/006)

Azpeitian pasa zuen haurtzaroa. Euskaraz hitz egiten zuen eta amarekin arabieraz piskat. Azpeititik Marokora bizitzera joan ziren 3-4 urtez eta han arabiarrez alfabetatu zen. 12 urterekin Zumarragara bueltatu ziren.

127. Euskara eta arabiera nahastuta (101-258/007)

Marokotik bueltan, euskara eta arabiera oso nahasiak zituen eta hasieran klaseak jarraitzea kostatzen zitzaion. Nahiz eta euskararen oinarria izan, ondo komunikatzea izan zen erronka nagusia.

128. Anaiekin, euskaraz, arabieraz eta gaztelera (101-258/008)

Anaiekin euskaraz, arabieraz eta gaztelera hitz egiten du; kalean, gehiena gaztelera.

129. Izenagatik, aurreiritziak (101-258/009)

Guraso etorkinak izateagatik ez da inoiz baldintzatua sentitu, baina bai bizileku aldaketengatik. Aldiz, izenagatik aurreiritziak jasan izan ditu.

130. Euskalduna sentitzen da (101-258/010)

Euskararen kontsumoa. Euskalduna sentitzen da gehien bat eta marokoarra herentziagatik, baina identitate nahasia duela kontatzen du, hizkuntzarekin gertatzen zaion bezala.

131. Bezeroei lehenengo hitza beti euskaraz (101-258/011)

Informatika-denda batean lan egiten du eta bere leheneng hitza beti euskaraz da. Askotan, nahiz eta berak euskaraz egin eta bezeroa ere euskalduna izan, azken honek gaztelaniara jotzen du Sidi kanpotarra dela pentsatuz.

132. Euskararen garrantzia integrazeko orduan (101-258/012)

Euskaraz hitz egitea garrantzitsua da eta ikasteko aukerak daude, baina batzuek ez dute ikasi nahi eta horrek delitua duela uste du. Euskarak kulturalki gauza asko eman dizkio: musika, liburuak, zinea...

133. Tajin-a prestatzen du (101-258/016)

Tajin-a prestatzen zuen anaientzat ama lanean zegoenean.

134. Integrazioa, bi alderdietako kontua da (101-258/018)

Etorkinek integrazeko egiten duten ahalegina askotan ez da ikusten eta kritikatu egiten da. Bertakoek ere ahalegina egin beharko lukete etorkinak integratzen uzteko eta kultura berrietara zabaltzeko.

135. Bizikidetza proiektu gehio egon beharko liratekeen (101-258/019)

Bizikidetza proiektu batean parte hartu zuen. Herrialde ezberdinetako jendea biltzen ziren hitz egiteko, afariak egiteko... Harreman onak sortu ziren. Horrelako proiektu gehiago egon beharko lirateken.

136. Ahari-jokoa (ZMG-004/001)

Urretxu eta Zumarragan ahari-jokoak noizean behin egoten ziren arren, ezagunagoak ziren Azpeitia aldekoak. Artalde bakoitzean dagoen ardi kopuruaren arabera egoten dira hainbeste ahari.

137. Neguan artzainak hartzen zituzten etxean (ZMG-004/002)

Abendutik maiatzera bitartean artzainak hartzen zituzten etxean eta hauen ardientzako lekua egiten behar izaten zuten ukuiluan. Ardien mantenuaz artzainak arduratzen ziren. Etxekoa balitz bezala tratatzen zuten, oso estimatua izaten zen familian. Nahiz eta galtzen joan den ohitura bat izan, duela bi urtera arte hartu dituzte artzainak etxean. Gazta ere bertan zeudela egiten zuten haiek.

138. Ihintza ez da ona ganaduarentzat (ZMG-004/003)

Goizean ardiak basoan ibiltzen ziren. Ihintza kendutakoan, arratsaldean, egoten ziren ardiak zelaian. Ihintza ez omen da ona ganaduarentzat. Alpapa eta artoa ematen zieten ardiei.

139. Trontza eta idiak basolanetarako (ZMG-004/007)

Trontza erabiltzen zuten basoan zuhaitzak botatzeko eta idiak hauen garraiorako.

140. Oritza txahalari eta txerriei (ZMG-004/008)

Behiak egunean bi aldiz jezten ziren. Txahala egiten zutenean hiru aldiz, hasierako esnea (orritza) ez zelako ona izaten. Txahalak behar zuena edaten zuen eta gainontzekoa txerriei ematen zieten salmentarako ez zelako aproposa.

141. Esnea erruz saltzen zen Zumarragan (ZMG-004/013)

Baserritik bakarrik bizi ziren garai hartan. Kanpotik jende asko etorri zen Zumarragara lanera eta erruz saltzen zuten esnea bertan. Astoa erabiltzen zuten esnearen garraiorako.

142. Patatak Arabatik estraperloan (ZMG-004/014)

Patata, txorizoa eta horrelakoak Arabako artzainek ekartzen zituzten estraperloan astoz San Adriandik bueltan.

143. Ezkondu aurretik koltxoia egiteko artilea enkargatu behar (ZMG-004/016)

Ezkondu baino urte-bete lehenago artzainari koltxoia egiteko hainbeste kilo artile gordetzeko eskatu behar izaten zitzaion.

144. Gazta egitea (ZMG-004/018)

Gazta nola egiten zen azaltzen du. Gatzagia hausnar egiten ez zuten arkumeen urdailetik ateratzen zen.

145. "Konbidautzeak" (ZMG-004/019)

Egun berezietan senitartekoak, nahiz eta kalean bizi, jaiotetxera etortzen ziren bazkaltzera gonbidatuta. Gaur egun galtzen ari den ohitura bat da.

146. Idiak eta behiak (ZMG-004/020)

Idi on bat aukeratzeko garaian zertarako den kontutan hartu behar izaten zen. Batzuetan idi edo behi oldarkorra ere suerta zitekeen. Arriskutsuak zirelako kendu egin behar izaten ziren.

147. San Isidro eta Santa Isabel (ZMG-004/022)

San Isidro egunez meza egoten zen Eitzan (Zumarragako auzoa). Dantza kaminoan egiten zela kontatzen du. Santa Isabel egunean aldiz meza nagusia eta ezpata-dantza egoten ziren.

148. Elurretan abarkekin xelebrea (ZMG-004/024)

Nafarroatik etortzen ziren artzainek beraienak baino jantzi hobeak ekartzen zituzten. Bitorianok elurretan ere abarkekin ibili behar izaten zuela kontatzen du.

149. Larre eta soroez (ZMG-004/026)

Larreak itxiturak dituzte gaur egun eta ardiei ez zaie hainbeste kasu egin behar orain. Ardien simaurra lurra ontzeko oso aproposa dela kontatzen du gainera. Soroen aprobetxamenduaz ere aritzen da: artoa, garia, eta arbiaz hain zuzen ere.

150. Zumarragako bolalekua (ZMG-007/003)

Zumarragako bolalekuaz ari da. Inguruko herrietan ere zaletasun handia zegoen garai hartan.

151. Errementariaren lanak (ZMG-007/004)

Errementaria Eitzan (Zumarragako auzoa) zegoen kokatuta. Honek egiten zituen lanak deskribatzen ditu

152. Lizarazuko errota (ZMG-007/006)

Lizarazu errota zen etxetik gertuen zegoena eta hura erabiltzen zuten. Uda aldean urik gabe geratzen zenez, Aizpurutxoko errotara ere joaten ziren. Egindako irina etxerako izaten zen.

153. Gerraostean errotak itxita (ZMG-007/007)

Gerraostean errotak itxita zeudela, gauz Azkoitia inguruko errota batera joan behar izaten zuten irina egitera. Gau batean pasatako anekdota kontatzen du.

154. Jatekoak (ZMG-007/012)

Eguneroko jatorduak nolakoak ziren azaltzen du. Igandeetan fideo-zopa jateko ohitura zuten eta Gabonetan konpota eta morokila.

155. Fabrikara lanera (ZMG-007/014)

Legazpiko Patricio Etxeberriaren lantokian egin zuen lan Bautistak. Fabrikatik bueltan, 10 ordu lan egin eta gero, baserriko lanak egin behar izaten zituzten. Goizeko lauretan joaten zen lanera bizikletaz. Neguko hotzak ditu gogoan.

156. Lan-baldintza gogorak (ZMG-007/015)

Legazpiko lantokian egiten zituen lanak deskribatzen ditu. Lan baldintza gogorak zituzten eta istripuak oso ohikoak ziren. Lankide bati gertatutako istripua kontatzen du.

157. 1948. urtean iritsi zen ura (ZMG-007/019)

1948. urtean iritsi zen ura etxera. Ordura bitartean iturritik ekarri behar izaten zuten egunero.

158. Amak arrosarioa eta aitak goizeko errezoa (ZMG-008/001)

Arrosarioa errezatu bitartean sukaldeko lanak egiten zituzten. Amak esaten zuten arrosarioa eta aitak goizeko errezoa.

159. Eztia eta argizaria (ZMG-008/002)

Alanbrez eginiko abaraskak erabiltzen zituzten eztia jasotzeko. Eztia eta argizaria jasotzeko prozesua nolakoa zen azaltzen du.

160. Txerria lapurtu zienekoa (ZMG-008/003)

Ijitoek txerria lapurtu zienekoa kontatzen du.

161. Kanpaiak (ZMG-008/005)

Gauza desberdinak jakinarazteko kanpaia jotzeko hainbat modu zeuden

162. Sendabelarrak eta ukenduak (ZMG-008/009)

Sendabelarrekin egiten diren ukenduak zertarako diren eta nola egiten diren kontatzen dute.

163. Pinuak jaisteko kablea (ZMG-008/012)

Pinudi bateko pinuak menditik kablez jaitsi zituztela ikusi zuten lehen aldiz harrিতuta. Bazkaria ere zaku baten batean bidaltzen zuten gora kablea aprobetxatuz.

164. Aizpurutxoko erromeria xeblebreaz (ZMG-008/015)

Inguruko erromeriez ari da. Nolakoak izaten ziren deskribatzen du. Aizpurutxon, Azkoitia aldera ematen duen zatian ezin zitekeen dantza lotuan egin, Bergara aldera ematen zuen aldean berriz bai.

165. Lizarazu eta Monte errotak (ZMG-008/016)

Lizarazu eta Monte izeneko errotetara joaten ziren. Bide luzea astoz egiten zuten. Ogia egiteko erabiltzen zuten irina.

166. Txerria-hiltzea (ZMG-008/022)

Gaur egun txerri-hiltzea etxean egiten jarraitzen duten arren harakina etortzen da txerria akabatzerara. Garai batean eskuz egiten ziren lan guztiak deskribatzen dituzte. Txerri-hiltzea ilbeheran egitea aproposagoa dela dio.

167. Ahari-hiltzea (ZMG-009/001)

Ahari-hiltzea nola egiten den azaltzen dute. Larrua saldu egiten zuten garai batean. Gaur egun ez du ezertarako balio.

168. Trontza (ZMG-009/003)

Nahiz eta trontza erabiltzen zuten zuhaitzak botatzeko, aizkorarekin egiten zuten lehenengo ebakia.

169. Karburoa eskuan hartuta, fabrikara (ZMG-009/005)

Fabrikara joateko basoan zehar joan behar izaten zuen, bidezidorretatik. Kandelak, karburoa eta aurrerago linterna erabili izan zituen argi egiteko.

170. Ganadu ona aukeratzeko, nora begiratu? (ZMG-009/006)

Ganadu ona aukeratzeko zeri begiratu behar zaion kontatzen du. Hortzei begiratuta, aberearen adina jakin daiteke.

171. Barazkiak landatzeko ilargiari begira (ZMG-009/007)

Barazkiak landatzeko ilargiaren garrantziaz ari da. Pagoak eta haritzak botatzeko garaian ere garrantzia handia izaten zuen ilargiak.

172. Abere-hiltzeak ilbeheran (ZMG-009/008)

Txerriak, ahariak, ahuntzak eta horrelakoak ilbeheran hil behar izaten ziren. Gustu txarra eta kirats handia ateratzen zuten bestela.

173. Ganadua mendian libre ugaltzen zen (ZMG-009/012)

Ganadua libre ibiltzen zen mendian eta arazoak sarri egoten ziren. Libre ugaltzen ziren. Mendi eta basoak garbi mantentzen zituzten abereek.

174. Barretxeren bi pisutako autobusa (ZMG-009/016)

Zumarragan ikusi zen lehen autoa Irure taxi-gidariak ekarri zuen. Lehen autobusa aldiz, Gabiriako Barretxek. Bi pisutako autobusa omen zen.

175. Asteko izenak (ZMG-010/001)

Asteko izenak nola esaten zituzten kontatzen dute.

176. Ardi zezina (ZMG-010/003)

Bi edo hiru ardi hiltzen zituzten neguan baserrian. Zezina eta buzkantzak egiten zituzten. Odolki eta buzkantzen arteko ezberdintasunak.

177. Azkonarra eta trikuarena (ZMG-010/005)

Azkonarra eta trikuaren kontakizuna kontatzen du. Kanpotik etorritakoak etxeokari lekua kentzea zen, ipuinean gertatzen den bezala, trikuarena egitea.

178. Esaera zaharrak (ZMG-010/007)

Esaera zahar ugari esaten dituzte. Umetan, zaharrenei entzuten zizkieten horrelako esaerak.

179. Gabon eta Santa Ageda eguneko eskea (ZMG-010/009)

Santa Ageda egunez eta Gabonetan etxez etxe eskean ibiltzeko ohitura zegoen.

180. Hilabeteen izenak (ZMG-010/011)

Urteko hilabeteen izenak

181. Fernando Amezketarraren kontuak (ZMG-010/016)

Fernando Amezketarra eta erbiaren kontakizuna.

182. Trikuak jateko aproposak (ZMG-010/017)

Triku asko egoten zen garai batean. Jateko ere onak izaten ziren, untxiaren oso antzekoak zirelako. Larrua eta arantzak nola kentzen ziren esaten du.

183. Txorizo eta solomoa oliotan gorde (ZMG-010/019)

Txerriak kontserbatzeko teknikak. Txorizoa eta solomoak oliotan kontserbatzen ziren.

184. Ganadu feriak (ZMG-011/001)

Ganadu feria ugari zegoen: Azkoitian hilean behin, Villa Francan asteazkenetan, Tolosan astelehenero... Feriara joateko tren hartzen zuten, baina bueltan ganaduekin etorri gero, oinez bueltatu behar izaten zuten.

185. Etxean egindako abarkak (ZMG-011/002)

Abarkak janzen zituzten, larruzkoak eta gomazkoak. Larruzkoak etxean bertan egiten zituzten, hildako behiaren larruekin eta oholezko molde bat patroitzat hartuta. Segituan bustitzen ziren larruzko abarka hauek.

186. Auzolana (ZMG-011/005)

Lehen auzolanean ibiltzen zen jendea: lurretan, gari-mozten...

187. Baserriko lan gogorrak (ZMG-011/006)

Orain baserriak diru gutxi ematen du, erremintak erosteko nekez ematen du. Lehen aizkorekin, behiekin edo idiekin konpontzen ziren lanak egiteko. Urrutira joan behar izanez gero, goizeko lauretan jaiki behar izaten zuten.

188. Iturrean (ZMG-011/007)

Eskola sasoian, baserriko lanak egin behar izaten zituzten: behiak uztartu eta iturrean ('iturlan'). Iturrean nola egiten den azaltzen du. Ganadua Basurtutik ekartzen zuten, Bilbotik.

189. Festetan erromeria (ZMG-011/011)

Erromerietan soinua jotzen zuten, festa zen lekuetan. Orduko festak non egiten zituzten kontatzen du.

190. Eskolara joan orduko baserriko lanak egin behar (ZMG-011/013)

Eskolara gutxi joan ziren. Joaten zirenean, ikastea baino, jolas egitea gustatzen zitzaien. Harrapaketan aritzen ziren. Eskolarik irten ondoren, mendira joan behar izaten zuen Joxe Antoniok ardiak jeztera. Hurrengo goizean esnea partitu behar izaten zuen eskolara orduko.

191. Behia erosterakoan begiratu beharrekoa (ZMG-011/014)

Behia erosterakoan, errape onekoa zen begiratzen zuten. Arrazak ere bere garrantzia zeukan, pintek esne gehiago ematen dute eta. Suitzak, aldiz, indartsuagoak izaten dira.

192. Inguruko hizkera ezberdinak (ZMG-011/017)

Etxarri aldean desberdin hitz egiten dute, Betelun baino gehiago. Azkoitian eta Azpeitian ere desberdin egiten dute.

193. Egur-ikatza egiten (ZMG-011/019)

Ikazkinek egur-ikatza egiten zuten. Horretarako, txondorra prestatzen zuten. Egur-ikatza saldu egiten zuten; errementariei, esaterako, gaztainerkin egindakoa. Hala ere, artea eta pagoa izaten ziren onenak. Etxeak egiteko, ordea, haritza eta gaztaina erabiltzen zuten eta uztarriak egiteko pagoa.

194. Gaztaina erreak (ZMG-011/020)

Afaltzeko, gaztaina erreak edukitzen zituzten maiz eta gero esnea edo salda zopak.

195. Arrautzak karetan kontserbatu (ZMG-011/023)

Lehen ez zeukaten hozkailurik. Horregatik, arrautzak esaterako, jarraian jan edo saldu egiten zituzten. Hala ere, batzuek karetan kontserbatzen zituzten. Karea karobietan egiten zuten, harriei sua emanez.

196. Belarra sikatu eta metak egin (ZMG-011/024)

Belarra kanpoan sikatzen uzten zuten eta gero barrura sartu, ganbarara. Lehen metak ere egiten zituzten. Nola egiten zituzten azaltzen du.

197. Pilotan (ZMG-011/026)

Mutilek pilotan jarduten zuten frontoian.

198. Probak eta aizkolariak (ZMG-011/027)

Olarte zen bertako uztargilea. Orain probetarako uztarriak egiten dituzte. Bertako hainbat ibiltzen dira oraindik probetan eta aizkoran.

199. Plazan arrautzak eta oilaskoak saldu (ZMG-011/028)

Arrautzak bertako plazan saltzen zituzten. Oilaskoak ere saldu egiten zituzten, etxean jan beharrean.

200. Santa Isabel (ZMG-011/029)

Santa Isabeletean trasteak astoz eta idiz eramaten zituzten. Jende asko egoten zen bertan eta erromeria ere egiten zuten. Soinu-joleak eta danbor-joleak ibiltzen ziren.

201. Otzarak gaztain egurrarekin (ZMG-011/030)

Otzarak gaztain egurrarekin egiten zituzten. Lehenengo, uretan beratu egin behar izaten zuten egurra.

202. Sorginak (ZMG-011/031)

Sorginak tximiniatik sartzen ei ziren sukaldera. Gaztain erreak jaten ari zirenean kontaktzen zizkieten halakoak.

203. Txerrikiak gatzetan gorde (ZMG-011/032)

Txerrikiak gatza emanda gordetzen ziren. Gero, uretan kentzen zieten gatz hori eta piper gorriekin prestatzen zituzten.

204. Txerria eguraldi txarra denean hil (ZMG-011/033)

Eguraldi txarra zenean hiltzen zuten txerria. Eguraldi ona egonez gero, txerriek ez dute gatzik hartzen.

205. Erreka garbi-garbi (ZMG-012/001)

Erreka garbi-garbi zetorren lehen; amuarrainak eta karramarroak ugariak ziren. Labaderoa ere errekan bertan zuten.

206. Auzolanean auzokoekin (ZMG-012/002)

Auzolanean ondorengo lanak egiten zituzten: laiatu, artoa sartu, gari-jotzea... Auzokoak lanera etortzeko abisatzeko txistu egiten zieten. Lanak amaitzen zituztenean, gaztaia eta ardoa hartzen zituzten.

207. Anaia zaharrekin egindako bihurrikeriak (ZMG-012/003)

Bihurrikeriak egiten zituen anaia zaharrekin. Behin, auzokoaren ardi bat hartu eta euren etxeko zuhaitz batean lotu zuten soka batekin. Eskolatik etorri zirenean ardia itota topatu zuten. Beste behin, elur pilotak tximinietara botatzen jardun zuten.

208. Arropa zuganean sutako hautsarekin garbitu (ZMG-012/004)

Arropa kanpoko harrizko mahai baten gainean xabonatzten zuten. Gero zuganean ("zubana") sartu eta ur beroa eta sutako hautsa botatzen zioten. Xaboa Inesen koinatak egiten zuen, sosarekin eta animalia koipearekin.

209. Ogia zortzi egunerako (ZMG-012/005)

Ogia etxean egiten zuten, labesua. Euren baserriak ez zeukan laberik eta izekorenean egiten zuten. Ogia zortzi egunerako egiten zuten. Gerra sasoian garia entregatu egin behar izaten zuten, hartzen zutenaren erdia. Bengolea errotara joaten ziren eurak, baina gerra sasoian Gabiriara joan behar izaten zuten gauez.

210. Umetatik baserriko lanak egiten (ZMG-012/007)

Hamaika urte zituela, baserriko lanetan hasi behar izan zuen: ganaduekin, ardiekin, mendian garoa eta egurra mozten, behiekin lurra lantzen... Laiekin ere ibilita dago Ines, auzolanean.

211. Metak belarra ez bustitzeko (ZMG-012/008)

Garoa eta belarra tejabanen edo ganbaran gordetzen zuten. Metak ondo eginez gero ez zen barruko belarra bustitzen. Nola egiten zituzten azaltzen du.

212. Intxaur-saltsa egiten (ZMG-012/010)

Intxaur-saltsa nola egiten den azaltzen du: itxaurrak mailuarekin jo eta esnearekin batera egosi.

213. Jaietan "urrezko babak" (ZMG-012/012)

Lehenengo beheko sua baino ez zeukaten sukaldean, gero jarri zuten txapa. Jaietan garbantzuak prestatzen zituzten, "urrezko babak". Behin, lapikoa zaintzeko ardura eduki zuen Inesek eta katuak bota egin zion. Lapikoak sutan jartzeko trebera eta parrila edukitzen zituzten. Piperrak egosi eta botiletan sartzen zituzten kontserbatzeko.

214. Trukea: gaztainak eta fruta (ZMG-012/015)

Eskolan trukea egiten zuten: eurek gaztain erreak ematen zizkieten fruta almazeneko alabei eta haiek fruta ematen zieten.

215. Zigorrak euskaraz egiteagatik (ZMG-012/017)

Eskolan euskaraz hitz egiten zutenean, maistrak erregelarekin jotzen zituen. Erdara gutxi zekiten.

216. Enplastuak eta ebaki-belarra (ZMG-012/019)

Birikietako gaitza sendatzeko enplastuak egiten zituzten berbena-belarrarekin. Erreduren kontra, aldiz, ebaki-belarra jartzen zuten. Tentsioa jaisteko infusioak hartzen zituzten.

217. Urolako trenbidearen inaugurazioa (ZMG-012/020)

Zumarragatik Bergararako trenari "El Vascongado" esaten zioten. Inesek zortzi urte zituela, Urolako trena egin zuten. Oraingo Juan Carlos erregearen aitona etorri zen trenbidea inauguratzera. Eskola-umeak bandera espainolarekin eskuan irten ziren errege erreginak agurtzera.

218. Komun bakarra bizilagun guztientzat (ZMG-013/001)

Umeek erreberoa, esne jetziberria, edaten zuten auzokoaren etxean. Etxe hartan eskilaretan zeukaten komuna, bizilagun guztietantzat bakarra.

219. Anekdotak: aita eta auzokoa feriara joan zirenekoa (ZMG-013/003)

Behin, aita eta auzokoa Ordiziara ('Villafranca') joan ziren astoa eta txerriak erostera. Gaueko hamabiak eta etxean agertu ez. Kontu kontari, bidean luzatu egin ziren biak.

220. Hildakoaren etxean familia eta auzokoak batu (ZMG-013/004)

Etxeko bateren bat hiltzen zenean, familiakoak eta auzokoak etxera etortzen ziren eta dirua ematen zuten mezak ateratzeko. Etxekoek gailetak ateratzen zizkieten. Hurbilekoenak bertan geratzen ziren bazkaltzera. Hileta goizean izaten zen.

221. Lehengo mezak (ZMG-013/005)

Meza guztiak goizean izaten ziren. Apaizek jendeari bizkarra emanaz eta latinez esaten zuten meza. Hiletaren ondoren, jendeari mokadua emateko ohitura egon izan da beti.

222. Tabernako edariak eta bazkariak (ZMG-013/007)

Tabernan, edariak nahastuta eskatzeko ohitura handia zegoen. Esaterako, "potajea" eskatzen zuten askok, ardo zuria bermutarekin. Beste batzuei ardo zuria ardo gozoarekin nahastea gustatzen zitzaien. Euren tabernan bazkariak ere ematen zituzten. Oiloa saltsan zen gehien prestatzen zuten jatekoetako bat.

223. Geltokira ardo barrikak betetzera (ZMG-013/008)

Lehen, ardo zuria eta beltza baino ez zegoen tabernan. Aita geltokira joaten zen barrikak betetzera. Barrikak azufrearekin garbitzen zituzten.

224. Alkoholaren zerga (ZMG-013/009)

Plaza zaharra baskula handi bat zen, bertan kamioiak-eta pisatzeko. Pisuaren arabera ordaintzen zituzten zergak. Botilei seilua jartzen zieten zerga ordaindu zutela adierazteko. Hala ere, inoiz zergarik ordaindu gabeko koñak botilak ekartzen zituen aitak, porruen truke.

225. Taberna giroa (ZMG-013/010)

Larunbatetan eta jaietan gizon kuadrillak joaten zitzaizkien tabernara, trikitiarekin eta kantuan sarritan. Juerga ederrak egiten zituzten. Emakumeak gutxitan joaten ziren tabernara, festetan edo moja zeuden familiakoei bisita egiten zietenean.

226. Taberna giroko abestiak (ZMG-013/012)

Tabernan erdaraz kantatzen zuten: "La vida del casado" eta "Casate con la churrera" moduko abestiak. Euskaraz ere kantatzen zuten zenbaitek: "Baratzeko pikuak hiru txorten ditu" eta "Kaletik hasita" moduko abestiak. Irrintziak ere botatzen zituzten.

227. Gaixotasunak eta erremedioak (ZMG-013/013)

Umea jaioberritan hilez gero, beste ume bat hartzen zuten bularra emateko. Ume asko hiltzen zen birikietako gaitzak jota. Orduan ez zegoen botikarik eta euren amak, esaterako, astoaren esnea ematen zien umeei gaixotzen zirenean. Urtubikoak ukendua egiten zuen pasmo-belarrekin erredurak sendatzeko edo erre-trapuak prestatzen zituen. Berbena-esplastuak ere asko erabiltzen zituzten katarroaren kontra. Tentsioa jaisteko eta giltzurrunentzat ere beste belar batzuk batzen zituzten.

228. Litro erdi ardo ogi puska batekin (ZMG-013/014)

Tabernan basoerdia eskatzen zuten gehienetan edo litro erdi ardo eta ogi puska bat. Kafearen ondoren hartzeko, 'Sol y Sombra' askok eskatzen zuten. Batzuk balantzaka itzultzen ziren etxera.

229. Hiru urterekin Zumarragara (ZMG-015/002)

Itziarren jaioa, hiru urterekin joan zen Leturiondo baserrira bizitzera, Zumarragara. Gurasoak eta hiru anai-arreba joan ziren.

230. Auzoko eskolara sei urterekin (ZMG-015/003)

Auzoko eskolara sei urte ingururekin hasi zen. Angeles Apaolaza izan zuten maistra lehenengo. Denera bost izan zituzten.

231. Umetan baserrian lan asko (ZMG-015/004)

Baserrian lan etengabea izaten zuten. Eskolara aurretik esnea banatzen zuten etxez etxe. Arratsaldez garoa edo belarra ekartzera joaten ziren behiekin. Bideak oso txarrak ziren.

232. Urolako trenaren inaugurazioa (ZMG-015/005)

Bera ume zela, Urolako trena egiten ari ziren etxe aurrean. Inaugurazioa izan zenean, tiroekin eta beldurtu ziren. Erregea eta herriko jauntxoak ibili ziren egun hartan. Ohitu egin beharra izan zuten.

233. Abereak trenean (ZMG-015/006)

Beraiek ez zuten gehiegi erabiltzen trena Zumarragarako, kanpora joateko gehiago. Ahuntzak eta adariak eramaten zituzten trenean, baita txakurrak ere.

234. Behiak, ardiak eta ahuntzak etxean (ZMG-015/007)

Garia eta artoa lantzen zuten. Behiak, ardiak eta ahuntzak izaten zituzten. Orduan mendira eramaten zituzten ardiak.

235. Ikasketak euskaraz (ZMG-015/008)

Ez zuen doktrina handirik ikasi. Euskaraz ikasi zuten dena. Euskaraz bizi ziren.

236. Gerra garaian Legazpira lanera (ZMG-015/009)

Gerra garaian 16 urte zituen eta ez zitzaion inora joan beharra tokatu. Irailaren 18an sartu ziren Zumarragara. Ordurako Badiolan ari zen lanean. Gerra hasitakoan, Legazpira hasi zen lanera, egunero bizikletaz joanda.

237. Legazpin espoletak egiten (ZMG-015/010)

Lan asko egiten zuten "Patricio"nean. Espoletak egiten jarduten zuen hamar orduz. Gaztetxea zen eta ugazabek errietan egiten zioten.

238. Egurra ateratzen Aginetarekin (ZMG-015/011)

Aitzurrak egiten ere aritu zen. "Patricio"nean 22 urte inguru bete artean jardun zuen, soldadutzara joan arte. Gero baserrian hasi zen egurra ateratzen. Aginetarekin ibiltzen zen, idiak hartuta.

239. Basoko lanetan (ZMG-015/012)

Zerrategiko Pedrorentzat lan egiten zuten, egurra ateratzen, zerran eta abar. Elkarrizketatzaileak anekdota kontatzen du, Kini izeneko bati buruz. Pilotari ona omen zen.

240. Soldadutzan Kinirekin batera (ZMG-015/013)

Soldadu bi aldiz joan behar izan zuen, kintoak eskatu zituztenean. Irun aldean ibili zen eta gero Gasteizen ere bai. Kini ere berarekin ibili zen eta denek ezagutzen zuten. Pilotari ona omen zen.

241. Soldadutzan hara eta hona (ZMG-015/014)

Gasteizen kinto berean izan ziren Kini eta biak. Aurretik Bilbon, Deustun, egona zen soldadutzan Espainiako leku askotako jendearekin.

242. Burgosko ibilerak soldadutzan (ZMG-015/015)

Azkenean Burgosen ere egon zen. Zauritu egin zen eta sukaldean lanean jardun zuen. Soldadutzako kontu gehiago kontatzen ditu.

243. Bilboko ibilerak soldadutzan (ZMG-015/016)

Burgostik Bilbora ekarri zuten berriz soldadutzan. Bilboko kontuak.

244. Andrea Anduzukoa (ZMG-015/017)

1944an bukatu zuen soldadutza eta etxeratu egin zen. Nahikoa lan izaten zuten baserrian orduan. Bernarda, Andrea gertukoa du, Anduzukoa. Txikitatik ezagutzen zuten elkar. Lau seme-alaba izan zituzten.

245. Orbegozon lanean (ZMG-015/018)

Baserriko lanetan jardun zuen urte batzuez. Gero Orbegozonean hasi zen lanean, 1956an.

246. Hamabi orduko lan jarduna (ZMG-015/019)

Orbegozonean 12 orduko lana izaten zuen, baita larunbatetan ere. Handik gutxira zortzi ordura jaitsi zuten eguneko jarduna. Lan bera ordu gutxiagoan egiten zuten.

247. Erretiroa Orbegozon (ZMG-015/020)

Orbegozo lantegian hartu zuen erretiroa. Senar-emazteak bidaiari Logroñora joan ziren, Hondarribira ere bai.

248. Erromeriak han eta hemen (ZMG-015/021)

Orbegozonean lanean ari zenean, igandetan batera eta bestera ibiltzen zen. San Kristobalera eta Aizpuruxora joaten ziren Olarte soinu-jolearekin dantzara. Ormazabal Aitxun izaten zen soinu-jole. Martittara ere joaten ziren erromeriara.

249. Dantzara Bergara aldera (ZMG-015/022)

Ez zen tabernarik izaten erromerian. Azpeitian eta Azkoitian ezin zen dantzarik egin eta Bergara aldera joaten ziren. Kanpaiak jotakoan, denak etxera.

250. Feriatar joatea zaletasun (ZMG-015/023)

Feriara joatea gustatzen zitzaion, probak ikustera eta. Orain ere zaletasun handia dago idi-probetan, orduan baino gehiago. Orain ere joaten da tarteka.

251. Gurasoak goierritarak (ZMG-016/002)

Aita Ormaiztegiakoa, Garaiko Errota baserrikoa, eta ama segurarra.

252. Aita harakina (ZMG-016/003)

Aitak hamar senide zituen. Harakin ikasi zuen eta Zumarragan jarri zuen harategia duela 80 urte. Lau anai-arrebatatik bi gelditu ziren.

253. Albaitari ikasketak Madrilen eta Zaragozan (ZMG-016/004)

Eskolara mojan ibili zen eta gero La Sallen. Albaitari ikasi zuen ondoren Madrilen eta Zaragozan. Eskoriatza eta Leintz-Gatzagan egin zuen lan lehenengo 1944tik 1950era, eta gero Ordizian.

254. Albaitari batean eta bestean (ZMG-016/005)

Berrogei urtez albaitari ibilitakoa da. Ordiziako azokan, asteazkenetan, ganadua izaten zen goiz eta arratsalde. Oinez eta gero motorrean ibiltzen zen baserriz baserri. Aurretik Lekuona zen albaitaria eta zaldiz ibiltzen zen.

255. Intseminazio artifiziala hasi zenekoa (ZMG-016/006)

Eskoriatzan lanean ari zela hasi zen intseminazio artifiziala. Behia susa zegoela joaten zen eta xiringarekin hazia jartzen zion. Anekdotak bat kontatzen du, albaitaria deabruaren kontuak egiten ari zela-eta.

256. Lanik gehiena behiekin (ZMG-016/007)

Behiekin egiten zuen lan gehien. Euskara etxetik jaso zuen. Eskoriatzan pentsio batean bizi izan zen. Asteburuan etxera joaten zen, bizikletaz Bergaraino eta gero trenez.

257. Emaztea farmazialari (ZMG-016/008)

Emaztea farmazia ikasten ari zen eta bera albaitari. Batera bukatu zituzten ikasketak. Ezkondu eta 54 urte egin dituzte elkarrekin.

258. Farmazia, drogeria eta optika (ZMG-016/009)

Ez zuten denbora asko izan nobiotan dantzari aritzeko, ikasketengatik. Martin Aranguren farmazia erosi zion emazteak. Orduan drogeria eta optika ere bazen.

259. Goizetan hiltegia (ZMG-016/010)

Ordizian lanean ari zenean, goizean goizetik hiltegia joaten zen.

260. Jakarekin "Academia Errante"n (ZMG-016/014)

Jakarekin ibiltzen zen batera eta bestera "Academia Errante"ko bileretan. Behin baino gehiagotan salatu ere egin zituzten. Barandiaran ere izan zen behin bilera batean.

261. Oteiza bisitan (ZMG-016/017)

Oteiza ere bisitan etorri izan zitzaion, Jakarengana ere bai. Gizon zakarra omen zen.

262. Aita Madrilen morroi eta Bilbon meatzaritza lanetan (ZMG-017/004)

Ama Zumarragako Iraberri baserrikoa zen eta aita sezero lanetara Zumarragara etorri zenean ezagutu zuten elkar amak eta biek. Lehenengo 14 urterekin Madriler morroi eta gero Bilbon meatze lan egin zuen aitak. Erdaraz pixka bat moldatzen zen. Aita eta amona Aratz Errekako Igara baserrikoak ziren. Senitartekoak aipatzen ditu.

263. Doktrina ikasgai nagusi (ZMG-017/005)

Eskolara ez zen batere joan, doktrina ikasi zuen soilik. Irakurtzen ez zekienez, gauean izebarekin ohera joan eta hark erreztatzen zizkienak ikasten zituzten. Iluntzetan arrosarioa errezzatzeko ohitura zuten.

264. Koadernoetatik kopiatuz idazten ikasi (ZMG-017/006)

Aratz Errekan apaiza zegoen, eta harekin ikasten zuten doktrina. Idazten oso gutxi ikasi zuen. Koadernoetatik kopiatuz ikasten zuten. Apaizak berak jakin arren ez zien gehiegi erakusten. Orduan, apaizari akolitoak laguntzen zion; inguruko baserri bateko mutil batek. Ixidrak ez zuen ohiturarik mezara joateko, etxean jolasean geratzen zen.

265. 15 urterekin Azpeitira neskame (ZMG-017/007)

15 urterekin neskame joan zen Azpeitira. Ez zegoen labadorarik. Ondo tratatu zuten baina dirurik ez zuela irabazten eta urtebettera alde egin zuen handik. Gerora behar zutenean deitu eta joaten zen.

266. Zerbitzari Azpeitian apustu artean (ZMG-017/008)

Zerbitzari ere aritu zen Azpeitiko taberna batean. Emakumeak ez zuten tabernara sartzerik baina batzuk joaten ziren. Tabernaren izena aipatzen du eta han egiten ziren apustuak. Apustu zalea zen Azpeitiko jendea, aizkora apustu bat aipatzen du eta aizkolariak izendatu.

267. Zumarragan jostun lanetan (ZMG-017/010)

Senarra Aiarra zuen eta Zumarragako Santa Ixabeletan ezagutu zuen. Kontxita orduan jostun lanetan aritzen zen Zumarragan. Neska asko biltzen ziren lanean eta oso ondo konpontzen ziren elkarrekin. Diru asko irabazi ez arren bizitzeko adina ateratzen zuten.

268. Erromeria baino etxeko giroa nahiago (ZMG-017/012)

Antioko festa eguna oso ezaguna zen Zumarragan. Erromeria asko egiten ziren inguruko auzoetan baina Pakita ez zen dantza zalea izan sekula, etxeko giroa nahiago zuen. Kizkitzako egunez behin Mandubira joan zenekoa kontaktzen du.

269. Aratz Errekan ezkondu eta Zumarragara bizitzera (ZMG-017/013)

Aratz Errekan ezkondu zen, eta, berehala, Zumarragara joan ziren bizitzera. Bi seme-alaba ditu, eta beste bi biloba. Jubilatu ondoreneko oroitzapen onak ditu, baina Pakita etxean eta gizona kanpoan ibiltzen ziren zenbait toki ezagutu zituen arren. Hondarribiko ibilera bat eta Bizkaiko buelta kontaktzen ditu.

270. Azkoitian jaioa (ZMG-018/001)

Azkoitian jaio zen, Kamiño Etxea baino gorago. Aita kamineroa zen eta gerra ostean etxea eta lana kendu zizkioten aitari. Bi arreba eta lau anai ziren.

271. Torre baserrian eskola (ZMG-018/002)

Azkoititik maistra bat etortzen zen Torre baserrira eta han ematen zituen eskolak. Ez zen batere gustora joaten. Anekdotak bat kontaktzen du, eskolara joan nahi izan ez zueneko.

272. Abarketak egiten amarekin (ZMG-018/003)

Ume zenean, eskolatik etxeratzean abarketak egiten laguntzen zion amari. Egunean dozena bat egiten zituen amak.

273. Mezetara Azkoitira (ZMG-018/004)

Mezetara Azkoitira joaten ziren, Floreaga auzora.

274. Donostiako edari-biltegi gidari lanetan (ZMG-018/005)

Gerra aurrean, Donostian lanean jardun zuen edari biltegi batean txofer, banatzaile. Handik ateratzen zuen dirua, eguneko bost pezetako jornala zuen eta propinatan ateratzen zuen gehiena.

275. Gernikako bonbardaketa (ZMG-018/006)

Gerra etorritakoan, Gernika aldean ibili zen zazpi hilabetez. Bonbardaketa izan zenean, Busturian zegoen eta mendiz Gernikara joatea pentsatu zuten, bestetan trenez joaten baziren ere. Menditik ikusi zuten dena. Babeslekuetan jende asko hil zen.

276. Gerra garaian Gernika aldera ihesi (ZMG-018/007)

Bonbardaketa ikusita, berriz ere mendira joan ziren eta handik Busturiara, Altamira auzora. Errotari bat zuten lagun eta arto-irina ematen zien jatorduetarako. Etxeberritxo tabernakoekin batera egon ziren.

277. Osintxun okin (ZMG-018/008)

Gerra bukatutakoan, Bergarako Mekolalde auzora etorri zen eta Osintxun okin ibili zen, soldadu joan arte. Hiru urte egin zituen Afrikan eta gero makiak zaintzera Zangotzan.

278. Soldadutzara joan beharra (ZMG-018/009)

Soldadutzara Zumarragatik eraman zuten, gurasoak bertan zituen eta, aurreko etxetik bidali zituztenetik. Aita Orbegozonean hasi zen lanean.

279. Soldadutzatik bueltan Orbegozonera (ZMG-018/010)

Hiru urte eta erdi egin zituen soldadu. Handik bueltan Orbegozonean hasi zen lanean. Amari esan zioten semea kuartelera bidaltzeko eta han libre zegoela esan zioten.

280. Orbegozon txofer lanetan (ZMG-018/011)

Orbegozon txofer lanetan aritu zen kamioiarekin. Osintxun ezagututako neska batekin ezkondu zen, soldadutzatik bueltan.

281. Kamioiaren bolantea eskubian (ZMG-018/012)

Kamioiarekin aritzen zen materialak eramaten, Bilbora, Santanderrera, Bartzelonara eta leku askotara. Burdina garraiatzen zuen. Gerran erabilitako kamioiak ziren, bolantea eskubitik zutenak, ingelesak.

282. Gidabaimena Azkoitian (ZMG-018/013)

Laguntzailearekin joaten zen kamioian materialak deskargatzeko. Gidabaimena Azkoitian atera zuen, Anton Haundi izeneko batekin. Herriari bi buelta eman beharra izaten zen azterketa modura. Hamazazpi pezeta kostatu zitzaion karneta.

283. Bilbon eta Eibarren trafiko handia (ZMG-018/014)

Zumarragatik Bilboraino bi ordu eta erdi edo bi ordu egiten zituzten. Bilbon trafikoa izaten zen, denak Atxuritik sartzen ziren eta. Eibar ere txarra zen pasatzeko, trafiko handia izaten zen.

284. La Torcida elkarteko bazkide (ZMG-018/015)

Urretxuko La Torcida elkarteko bazkide zen eta hango lagunak aipatzen ditu. Egunero txikiteoan elkarrekin ibiltzen ziren hamabost lagun. Kamoiarekin ibilitakoan botila ardoa edaten zuen bazkaritan.

285. Ostiralero afaria elkartean (ZMG-018/016)

Ostiraletan afaria egiten zuten elkartean. Normalean ez ziren emakumeak sartzen eta sartzekotan, senarrarekin. Sukaldari Porru eta Manolo aritzen ziren. Kandido izeneko batek hortzik gabe jaten zuen txuleta.

286. Gaztetan pilotan (ZMG-018/017)

Afalosteko hizketaldietan pilota kontuak erabiltzen zituzten. Osintxun bizi zenean, pilotan jokatzeko zuen eta polit aritzen zen. Zangituri eta anaiari irabazitakoa da. Azkoitian kontzejupean jokatzeko zuen pilotan, diruarekin.

287. Aspacekoekin gidari borondatez (ZMG-018/018)

Orbegozonetik erretiratutakoan, Aspacekoekin ibili zen gidari borondatez hamar urtez. Etxez etxe jaso eta Beasainera eta San Martinera eramaten zituen. Udaran igerilekuko autobusarekin ibiltzen zen.

288. Afalostean pasieran eta kantuan (ZMG-018/019)

La Torcida elkartean gustora egoten zen. Afalostean pasieran irtetzen ziren ostiraletan. Orduan asko abesten zuten, euskarazkoak gehienak.

289. Txikiteoan besteak baino gutxiago (ZMG-018/020)

Porru abeslari ona eta animosoa zen. Juanek berandu bukatzen zuen lana eta txikiteoan gutxiago aritzen zen.

290. Madrilera hamaika ordu kamioiarekin (ZMG-018/021)

Madrilera hamaika ordu inguru egiten zituen kamioiarekin. Bidean lo egiten zuten sarritan.

291. Penintsulan zehar eskoletan (ZMG-019/002)

1927an jaioa. Beasainen jaioa baina gurasoak legazpiarrak. Aita trenbideko langilea zen eta Beasaindik Altsasura joan zen. Tren istripuz hil zitzaion aita bera ume zela eta Zumarragara etorri ziren. Kolegiora etorri ziren eta penintsulan zehar ibili zen eskolaz eskola.

292. Euskaraz berriz ikasi behar (ZMG-019/003)

Madrilgo eskolan 600 ume inguru ziren. Erdaraz bazekien eta moldatzen zen, hasieran mojan ibili zelako Zumarragan. Euskaraz berriz ikasi behar izan zuen, amak erdaraz ez zekien eta.

293. Ofizioa inprentan (ZMG-019/004)

Hamalau urterekin bueltatu eta inprentan hasi zen lanean, "Graficas Legazpi"n. Zortzi langile ziren orduan. Gero erretiratu arte garraiolari izan zen.

294. Buzoa jantzita inprentan (ZMG-019/005)

Dendentarako, industriarako eta abar egiten zuten lan gehien bat inprentan. Buzoa jantzita ibiltzen ziren. Lan garbia zen hala ere.

295. Lana eskuz, letraz letra (ZMG-019/006)

Eskuz egiten zuten lan lehen inprentan, letraz letra. Moldeak egiten ziren eta gero kopiak ateratzen ziren horrekin. Artisautza lana zen. Aurrerapenak kontatzen ditu, Offset-a tarteko.

296. Garraiolari aitagarrebarekin (ZMG-019/007)

Garraiolari hasi zenean, ez zeukan gidabaimenik ere. Aitagarreba Ibarzabal zen eta harekin aritzen zen.

297. Gidabaimenerako azterketa (ZMG-019/008)

Gidabaimena ateratzeko teoria pixka bat ikasi, bere kabuz kamioiarekin ibili eta azterketara aurkeztu zen Donostian.

298. Lehenengo oporretan mendira (ZMG-019/009)

Lehenengo oporrak 70ean izan zituen eta Piriniotara joan zen zortzi egun. Mendizalea izan arren, hamar urte baino gehiagoz mendira joan gabe egon zen, igandetan ere lan egiten zuen eta.

299. Kamioilari bailarako enpresa handientzat (ZMG-019/010)

60. hamarkada bukaeran hasi zen igandeak eta larunbat arratsaldeak jai izaten. Kamioilari aritu zen bailarako enpresa handientzat.

300. Errepide txarrak eta karga handiak (ZMG-019/011)

Errepideak txarrak ziren eta karga handiak eramaten zituzten. Paketeak banatzen aritu ziren hasieran. Baserritarren fruta eta animaliak ere eramaten zituzten. Errekadistak ere izaten ziren trenez ibiltzen zirenak.

301. Denetarik garraiatu izan du (ZMG-019/012)

Taxi zerbitzua ere egiten zuen banaketak egindakoan, bueltan. Olano apezpikoa eramanda dago behin. Denetarik eraman izan du kamioian.

302. Arrasateko kooperatibako hastapenak (ZMG-019/013)

Arrasaten kooperatibarekin hasi zirenekoa gogoratzen du. "Kinkeak" ekartzen zituzten Arrasatetik bertako garraiolariak eta gero berak bailaran zehar banatzen zituen.

303. Orbegozoneko sukaldeak eramaten (ZMG-019/014)

Donostiara Orbegozo sukaldeak, berogailuak eta abar eramaten zituen. 90. urtean erretiratu zen.

304. Erretiratu ostean mendira (ZMG-019/015)

Erretiratu ostean bizi izan ditu garairik onenak. Mendira gehiago joaten hasi zen.

305. Gerragatik batxilergoa bertan behera (ZMG-019/017)

Eskolan ez zuen ofiziorik ikasi. Batxilergoan hasi zen baina gerragatik kendu zuten eta ez zuen goi-mailako ikasketarik egin ahal izan. Hamazortzi urterako bazuen ofizioa.

306. Mendian lagunekin (ZMG-019/018)

Mendian lagunekin ibili izan da erretiratu ostean, Pirinioetan, Alpeetan eta abar. Igandero joaten ziren mendira.

307. Garraiolariak denetarik jakin behar (ZMG-019/020)

Garraiolari izateko denetarik jakin beharra zegoen, edozer gauza pasatuta ere.

308. Gasolindegia Tolosan (ZMG-019/021)

Gasolindegia Tolosan izaten zuten kamioientzat. Telefonoa bazuten garai hartan, abisuak jasotzeko.

309. Poliziari eskupekoa (ZMG-019/023)

Poliziak dokumentazioa eskatutakoan, eskupekoa ematen zioten gainkargagatik isunik ez jartzeko. Gidari baino bestelako lanak egiten zituen gehiago.

310. Bederatzi anai-arreba (ZMG-020/002)

Zumarragako Eliz Kanean hazitakoa da. Etxe inguruan zituen mojen ikastetxea, "Eusebio" taberna... Bederatzi anai-arreba ziren, eta Julita zen denetan zaharrena. Ahizpa gazteenarekin 15 urteren aldea zuen.

311. Zazpi anai-arreba eskutik helduta (ZMG-020/003)

Julita umea zela, automobil gutxi zegoen, eta auzoan aritzen ziren jolasean. Zazpi anai-arreba eskutik helduta joaten ziren eskolara. Zazpi urtera arte neskak eta mutilak elkarrekin ikasten zuten. Gero, mutilak "hermanotara" joaten ziren. Eskolan, dena erdaraz ikasten zuten, eta etxean euskaraz hitz egiten zuten.

312. Etxean, euskaraz (ZMG-020/004)

Etxean, euskaraz hitz egiten zuten. Euskaraz hitz egiten zutenean, esaten omen zien ez zutela Zumarragako euskara egiten. Aita donostiarra izanda, Tolosa eta Donostia aldeko euskara egiten omen du.

313. 15 urterekin, etxeko lanak egiten ikastera (ZMG-020/005)

15 urtera arte ibili zen mojan. Behin 15 urte beteta, bizilagun baten etxean egon zen urtebetez etxeko lanak egiten ikasten.

314. Maistra ibilia (ZMG-020/006)

Leturiondon, maistra lanetan aritu zen. Oinez joaten zen eskolara. Garai hartan, eskolari ez zitzaion garrantzirik ematen, eta baserritarrek ez zituzten umeak eskola bidaltzen.

315. Emakumeak bizikletan ez (ZMG-020/007)

Leturiondon maistra egon zen garaian, oinez egiten zuen joan-etorria. Julitak bizikletaz joan nahi zuen, baina gaizki ikusia zegoen emakumeak bizikletan ibiltzea. Noiz edo noiz, harrobira zihoan kamioi gidariren batek eraman izan zuen.

316. Leturiondon, maistra (ZMG-020/010)

Doktrina eta lau erregelak irakasten zituen Leturiondon. 10-12 ume zituen eskolan. Etxeko ganbaran ematen zituen eskolak.

317. Sagaspenean, bulego lanetan (ZMG-020/011)

Sagaspeneko zerrategian aritu zen bulego lanetan. Julitaren anaia aritzen zen hango lanak egiten, baina soldadu joan zenean Julitak ordezkatu zuen. Lanarekin uztartu zituen kontabilitateko ikasketak.

318. Sagaspeneko zerrategia (ZMG-020/013)

Sagaspeneko zerrategian 15 urte egin zituen lanean. Zerrategiko familiari buruz hitz egiten du. Julitak askotan joan behar izaten zuen mendira egurra neurtzera. Hortaz gain, zerrategiko kontabilitatea eramaten zuen. Lan polita zuela dio.

319. Sugeari beldurra (ZMG-020/015)

Zerrategiko lanaz hitz egiten du. Behin, enbor baten gainean neurriak hartzen ari zeneko pasadizo bat kontaktzen du. Suge handi bat agertu omen zitzaion. Izugarrizko sustoa hartu zuen.

320. Laneko bulegoa (ZMG-020/020)

Beti izan ditu matematikak gustuko. Garai hartako materialari buruz hitz egiten du: lumak, boligrafoak, ziguiluak... Bulegoan, telefonoa zeukan.

321. Igandetean, "salon parroquial" (ZMG-020/022)

Igandetean, "salon parroquial"-era joaten zen umeekin jolastera. Hiru lagunek zuten hara joaten ziren umeen ardura. Urte asko egin zituen katekista. Umeak gustura ibiltzen omen ziren doktrinan.

322. Neskak, doktrinan; mutilak, tabernan zain (ZMG-020/023)

Doktrinara joaten ziren neska zaharrenen ardura zuen Julitak. Behin, ama batekin izandako elkarriketa gogoratzen du. Mutilak "Eusebionean" egoten omen ziren neskak doktrinatik noiz irtengo zain.

323. Doktrinako neskekin Urbian topo (ZMG-020/025)

Behin, familiarekin Urbiara asteburua pasatzera joan zen Julita. Han, doktrina ematen zien neskekin topo egin zuen; mutilekin joanda zeuden. Orduko gertaera bat kontatzen du.

324. Denda, berritasuna herrian (ZMG-020/031)

Julitaren denda berritasuna izan zen herrian. Denda ireki aurreko lanek urtebete iraun zuten. Denda handia eta berria ireki zuen: loreak, bitxiak, jostailuak eta perfumeak saltzen zituen.

325. Dendan: loreak, bitxiak, jostailuak eta perfumeak (ZMG-020/032)

Denda ireki zueneko hasierako urteei buruz hitz egiten du. Loreak, bitxiak, jostailuak eta perfumeak saltzen zituen. Garai hartan, herrian ez zegoen loreak erosteko ohiturarik. Lehen urteetan galera egin zuen loreekin; Bartzelonatik ekartzen zituen loreak, eta saldu gabe usteldu egiten zitzaizkion.

326. Aranburualde baserrikoa (ZMG-021/001)

Aginagakoak gurasoak, Aranburualdekoa bera. Zazpi senide izan dira.

327. Eskolara kalera (ZMG-021/002)

Eskolara Zumarragara joaten zen, kalera. Lehenengo mojan eta gero fraideekin. Eskola gutxi izan zuen. Baserrian lan asko izaten zen.

328. Etxean abere asko (ZMG-021/003)

Eguna argitzerako lanean. Behiak, idiak, ardiak, oiloak... abere asko zituzten. Negua hobeto pasatzen zen uda baino, lan gutxiago izaten zen eta. Belarra inguruan batzen zuten, garoa berriz mendian.

329. Argindarrik ez berandura arte (ZMG-021/004)

Argindarrik ez zuten, petrolioarekin ibiltzen ziren. Arriskutsua zen. Hamazortzi urte inguru izango zituen etxera argindarra iristerako.

330. Urrutiko baserrietara argindarra nekez (ZMG-021/005)

Urrutien zeuden baserrietara beranduago iritsi zen argindarra eta bestelako moduak asmatu behar.

331. Hamaika urterekin basora lanera (ZMG-021/006)

Hamaika urterekin aitarekin basora joaten hasi zen. Haritza, gaztaina... izaten zen asko.

332. Apustuak eta probak gaztetan (ZMG-021/007)

Ez zen Aginetarekin ibili baina ezagutu zuen. Apustuak eta probak ikustera joaten zen gaztetan.

333. Erromerian Olarte soinujolearekin (ZMG-021/008)

Erromeriara joaten ziren tarteka, udaran igandero izaten baitzen. Olarte soinujolea ibiltzen zen orduan. Tabernarik ez zen izaten eta kuadrillek adosten zuten soinujolearekin saioa.

334. Baserriko lanak (ZMG-021/010)

Trontza bizkarrean hartuta ibiltzen zen basoan. Geroago hasi ziren esnea saltzen. Aita tratura jeisten zen igandetan astoarekin.

335. Gerra garaian Espainia osoan (ZMG-021/011)

Gerra garaian Espainia osoan ibili zen soldadu. Hogeita bi urte zituen orduan. Kabo izendapena jaso zuen. Preso hartu zuten behin eta hurrengo egunean alde egitea lortu zuen.

336. Metrailaren marka oraindik (ZMG-021/012)

Tiroa sartu eta metrailaren marka dauka, Kataluniako frontean jasotakoa, Ebroko batailan. Fronte askotan ibili behar izan zen eta behin baino gehiagotan zauritu zuten. Hiru urte pasa egin zituen.

337. Orbegozonera lanera (ZMG-021/013)

Gerratik bueltan, hogeita hamar urte ingurura arte basoan aritu zen lanera. Handik Orbegozonera joan zen.

338. Emaztea antzuolarra (ZMG-021/014)

Emaztea Antzuolan jaioa zen eta Urretxura etorria gero. Nobio denpora gutxian izan ziren.

339. Orbegozonean postu desberdinetan (ZMG-021/017)

Hirurogei urterekin erretiratu zen. Orbegozon lan asko egiten zen eta postu askotan ibili zen, batetik bestera.

340. Karea nola egiten zen (ZMG-021/019)

Karobiak. Orduan asko egiten zen karea. Ona da karea lurrarentzat. Lehen simaurra ere egiten zuten.

341. Ikatza pago adarrekin (ZMG-021/020)

Txondorrean ikatza egindakoa da. Ikatza pago adarrekin egiten zen. Orbegozonera saldu izan zuen. Orduan asko egiten zen ikatza.

342. Hamar xentimo ordaindu behar dantzarako (ZMG-021/022)

Erromerietan Olarte izaten zen soinujolea. Bost pezeta ematen zizkioten. Neskekin dantza egitearren, hamar xentimo ordaintzen zizkioten soinujoleari. Neskalguntzen aritzen zen ahal zenean.

343. Ijitoen gainekoak (ZMG-022/002)

Alamedaren bukaeran zegoen Urretxuko kartzela, ermitaren ondoan. Ijito bat kartzela horretan egon zeneko anekdota kontatzen du. Lehen, ijitoek ere egiten ei zuten; Jimenez eta Etxeberria dira orduko ijitoen abizenak.

344. Medikuari senide bat eskatzen zion (ZMG-022/005)

Migel seme bakarra da eta umetan aspertu egiten zen. Horregatik, medikuari berarentzako senide bat ekartzeko eskatzen zion. Migelek bi ama eduki zituela dio, berea eta etxean apopilo egon zen emakumea.

345. Umetan bizikleta oparitu (ZMG-022/006)

Euren etxean apopilo zegoen emakumearen osabak bizikleta oparitu zion Migeli. Hortik etorri zitzaion gero bizikletarako zaletasuna. Okinari erreal bat ordaintzen zioten astean Migeli bizikletaz ibiltzen erakusteagatik.

346. Langileak eurenera zumitzarekin lan egitera (ZMG-022/009)

Zumitz negoziak zeukaten eta jende askori ematen zioten lana. Itsasotik, esaterako, asko etortzen zitzaizkien. Egun osorako etortzen ziren lanera. Askarirako ogia eta ardoa ematen zieten.

347. Ardiak Itziarren neguan (ZMG-022/011)

Itziarrera eramaten zituzten ardiak neguan. Bertako baserri batean ematen zuten negua. Behin, San Joseetan ardiak etxera ekartzekoak ziren, baina itzelezko edurtea bota zuen. Kamioiari deitu behar izan zioten kumeak eramateko. Orain ez ditu lehengo elurteak egiten.

348. Behorrak Aizkorrin (ZMG-022/012)

Behorrak Aizkorrin zabaltzen zituzten. Bizikletaz igotzen zen Migel behorrak ikustera.

349. Erromerietan dantza soltea (ZMG-022/013)

Erromerietara joatea asko gustatzen zitzaien orduan. Dantza soltean aritzen ziren orduan. Behin, Kizkitzatik bueltan, Zumarragako festetarako bidean, lainoa sartu eta galdu egin ziren basoan.

350. Mendiko erromeriak (ZMG-022/014)

Erromeriak mendietan egiten ziren orduan. Neska-mutilak elkartzen ziren horrelakoetan. Migelek egunero uzten zuen bizikleta bere emaztea izango zenaren etxean; horrela ezagutu zuten elkar.

351. Ezkon-bidaia hegazkinez (ZMG-022/015)

Urretxuko parrokiari ezkondu zen Migel. Ezkon-bidaia Bartzelonara egin zuten, Madriletik hegazkinez.

352. Valentziarrak behorren erosle (ZMG-022/016)

Santa Luzia egunean ganaduak ekartzen zituzten saltsera. Valentziarrak etortzen zitzaizkien behorrak erostera.

353. Oinez ganaduekin ferietara (ZMG-022/018)

Aitarekin ibili zen tratante. Behin, astoa erosi zuten Ermuan eta oinez ekarri behar izan zuten. Ardiak Ordiziako ('Villafrancako') ferian saltzen zituzten eta hara ere oinez eramaten zituzten. Beste behin, behorrak Tolosaraino eraman zituen.

354. Eihazarako zaletasuna (ZMG-022/024)

Erretiratu zenenean, ehizan hasi zen Migel: erbietan eta oilagorretan. Aizkorri eta Legazpi inguruan ibiltzen da.

355. Anaiak maistraren makila apurtu zuenekoa (ZMG-023/003)

Lehen, eskolan, askotan jotzen zituzten makilarekin, zigor gisa. Anaiari behin gertatutakoa kontatzen du: odol bizikoa zen, eta maistraren makila apurtu zuen; orduetik ez zen gehiago itzuli eskolara.

356. Denek abade zaharrarekin konfesatu nahi (ZMG-023/005)

Luistarren kongregazioan ibili zen. Han, jauna hartu eta konfesatu egiten ziren. Denek abade zaharrarengana joan nahi izaten zuten konfesatzera, dena barkatzen baitzuen hark.

357. Lurrazpiko errota ezkutua (ZMG-023/010)

Gerra ostean, errotak itxita egon ziren garaian, amak zulo bat egin zuen lurrean, han behean, ezkutuan, errota bat jartzeko. Errazionamendu garaian, baserriko jeneroaren zati bat entregatu egin behar izaten zuten udaletxean. Garai hartan, beldur galanta pasatzen zuten errotara joateko, gauez, ezkutuan. Behin, Guardia Zibilak Joxe harrapatu zuen bidean; baina, beraiekin hitz eginda, aurrera egiten utzi zioten.

358. Kaleko jendea baserrira, ogi eske (ZMG-023/011)

Etxean, amak ogia egiten zuen astean behin. Herritik jendea etortzen zitzaien baserrira ogi eske; eta, lortutakoan, pozik itzultzen ziren etxera.

359. Txerria banatu, eta garia denen artean jo (ZMG-023/013)

Txerria hildakoan, txerrikiak auzokoen artean banatzen zituzten. Garia jotzeko egunean, festa izugarria egiten zuten gauean; oso giro ona egoten zen han.

360. Soinua jotzen ikasi zuenekoa (ZMG-023/014)

Soinua jotzen ikasi zuen Joxek, Elgoibarren, Goikone soinu-jotzailearekin. Haren etxean morroi egon zen 6 bat hilabetez, soinua jotzen ikastearen truke. Lehendik, Joxek bazekien ahoko soinua jotzen, eta berak girotzen zituen neska-mutil gaztetxoek arteko erromeriak.

361. Dantza, libre zenean, ordaindu egin behar (ZMG-023/016)

Erromeriak edozein lekutan izaten ziren lehen, eta haietako leku batzuk aipatzen ditu. Dantza lotua libre izan ohi zen beraiek egoten ziren erromerietan. Dantza egiteagatik, mutilek ordaindu egin behar izaten zuten, eta ez gutxi. Apaizak ez zien inoiz erriatarik egin dantza lotuan egiteagatik. Konfesatzean, hainbat galdera egiten zizkien apaizak, baina beraiek ez zituzten denak erantzuten.

362. Zezenzaleen artean ospea hartu zuenekoa (ZMG-023/018)

Gaztetan, ezkondu aurretik, zezenak izan zituen. Izarraitzeko zezen batekin izandako gorabeherak kontatzen ditu. Toreatzaileak lanak izan zituen zezen hura hiltzeko, eta orduetik ospe ona hartu zuen Joxek. Garai bateko toreatzaileen izenak gogoan ditu.

363. Elgoibarrera, idi-probak eta dantzalekua buruan zituela (ZMG-023/022)

Ezkondu ostean, Elgoibarko Belarreta baserrira etorri zenean, idiekin hasi zen proben munduan sartzen. Idiak nolakoak ziren azaltzen du. San Migelen, dantzalekua jarri zuen koinatuarekin batera. Hasieran, jendea gogotsu joaten zen hara; zer-nolako giroa egoten zen azaltzen du.

364. Idiak nola entrenatzen zituen (ZMG-023/024)

Idiak txabola inguruan entrenatzen zituen probetarako. Lur lehorrean, harri gainean baino hobeto entrenatzen dira idiak. Idiei, atzetik, txapa handi bat jartzen zien. Idiei zer janari ematen zien aipatzen du.

365. Idi-probetarako prestaketak (ZMG-023/025)

Idi-probetan ibili zenean, uztarriak egiteko besteei eskatzen zien, baina gero berak egokitu behar izaten zituen, bere gustura jartzeko. Uztarriak pagoaren egurrarekin egiten zituzten. Idiak etxean ferratzen zituzten, bai baitzeukan ferratokia. Kopetakoak plazan erosten zituen, eta zertarako balio izaten zuten aipatzen du. Idi-proban aritu zen garaian, itzain onenak hartzen zituen probetarako.

366. Idi-probetan irabazitako lehenengo saria (ZMG-023/027)

San Migelen irabazi zuen idi-probako lehenengo saria. Asko hunkitu ziren orduan etxean.

367. Soldadutza arina Aizarnazabalen (ZMG-023/036)

Soldadutza Aizarnazabalen egin zuen, kalez jantzita. Izan ere, meatzeetarako jendea behar zuten, eta Joxe boluntario joan zen hara. Nagusia laguna zuenez, ez zitzaizkion lan gogorak tokatzen. Oso gustura egon zen garai hartan.

368. Soldadutza ona, baina zenbait egoera arriskutsu pasata (ZMG-023/038)

Meatzeetan lan egin zuen bitartean, egoera arriskutsuak bizi izan zituen. Orduko estutasunak gogoan ditu. Soldadutza ona pasa zuen Joxek. Askotan, etxean egoten zen libre, nagusiari eskupekoa emanda.

369. Gerran, soldaduak beraien aurka tiroka (ZMG-023/039)

Gerra ezagutu zuen Joxek. Olatzen zeudela igaro zen frontea handik. Soldaduak tiroka hasi ziren beraien aurka; baina, zorionez, ez zioten inori eman. Babesteko, harriak eta koltxoiak erabili zituzten. Noizean behin, hegazkinetatik egiten zieten eraso.

370. Etxearen egoera pixkanaka hobetzen (ZMG-025/002)

Joxe Mariren jaiotetxean, bere aitona-amonak errentero ziren, baina 32.000 pezetaren trukean erosi zuten baserría 1925-26an. Gerora, argia egiteko turbina bat jarri zuten txabolan; eta sei bonbillarentzako adina energia sortzen zuen horrek; 7000 pezeta balio zuen sistema hori jartzeak; eta nola-hala ordaindu zuten.

371. Etxeko argindarra, gero eta hobea (ZMG-025/004)

Argindarra sortzeko, txabolan turbina jarri zuten. 1926an jarri zuten turbina hura; eta 1947an, behetik ekarri zuten argindarra.

372. Behien esnea Zumarragara (ZMG-025/008)

Baserrian ganadua zeukaten: 8 esne-behi, idiak, ardiak... Behiek emandako esnea Zumarragako etxeetan saltzen zuten. Gerora, mojen eskolara eramaten zuten esnea.

373. Esnea eramateko moduak (ZMG-025/009)

Esnea nola garraiatzen zuten azaltzen du: asto eta behor gainean, motorrean, autoan... Esnea goizero eramaten zuten. Autoa erostea lortu zutenekoa kontatzen du.

374. 'Txirrita'ren bertsoa (ZMG-025/027)

Jose Manuel Lujanbio Txirritaren bertso bat abesten du.

375. Eguraldiaren arabera, argia bai edo ez (ZMG-027/011)

Etxean argindarra bazuten, baina eguraldiaren astinduen arabera, batzuetan batere gabe gelditzen ziren.

376. Urolako trenak eragindako istripua (ZMG-027/016)

Urolako trena lehen nondik igarotzen zen azaltzen du. Behin, Santa Luzia bezperan, trena oraindik inauguratzeko zegoela, familiarterko batzuk baserrira etorri ziren; baina, orduan, trenaren bagoia trenbidetik irten, eta gizon bat eta bi asto hil zituen.

377. Urolako trenaren nondik norakoak (ZMG-027/018)

Lehen trenbideak nolakoak ziren azaltzen du. Lehen trenak bi eratakoak ziren: bata, jendea eramatekoa; bestea, merkantzia eramatekoa. Trena Zumaiaraino joaten zen. Orduko geltokiak non zeuden azaltzen du.

378. Leturiko eskolako maistrak (ZMG-027/021)

Leturi auzoan, lehen, bazuten eskola. Orduko maistrak gogoan ditu. Gerra etorri zenean, euskaraz zeuden liburuak ezkutatu egin zituzten.

379. Bonbak egiteko prozesua (ZMG-027/028)

Patrizio Etxeberriaren lantegian, bonbak nola egiten zituzten azaltzen du.

380. Patrizioren lantegiko lan-baldintzak (ZMG-027/029)

Orduko lan-baldintzak ez ziren arriskutsuak, bonbak ez baitzituzten Legazpin kargatzen. Jornal ona irabazten zuten han.

381. Zumarragara, Oñatira, Tolosara... sagarra saltzera (ZMG-028/003)

Sagar asko izaten zuten. Urtebi sagarra gazia zen, jatekoa. Sagardoa egiteko baziren beste sagar mota batzuk, txori sagarra eta abar. Ama astoaz joaten zen sagarra saltzera Zumarragara. Oñatira eta Bergara ere bai. Bere arbasoak garai batean Tolosara ere joaten omen ziren.

382. Fruta-arbolak txertatzen (ZMG-028/005)

Gerezia eta arana ugari zen baserrian. Kaletarrek harrapatu ohi zuten fruta. Mentuak sartzea (txertatzea) udaberrian egiten da. Nola txertatzen den azaltzen du. Gaztainak ere asko txertatzen ziren.

383. Aitonak erosi zuen baserria (ZMG-028/007)

Lehen bizitza bakarrekoa zen Urruti baserria, baina nagusiak noizbait bitan banatu zuen. Ez dira errenteroak, aitonak erosi zuen etxebizitza.

384. Laiak urtero zorrozten ziren (ZMG-028/009)

Garia, artoa..., denetik hartzen zuten. Lursail aldapatsuak dira eta laiaz lantzen zuten lurra. Hamar urte ezkerro, lanera. Hirunaka egiten zuten laian. Dozena bat laia izaten zen etxean. Urtero zorrozten zituen errementariak. Errementarien izenak. Imina bat (9 kilo inguru) gariren truke zorrozten zuten.

385. Lizaratzura eta Legazpira errotara (ZMG-028/010)

Lizarazu errotara joan ohi ziren. Legazpira ere bai. Aitonaren garaian errotaria bera etortzen zen baserrira zorroarekin. Bere garaian, berriz, alderantziz. Legazpira ere joaten ziren beste errota batera, gurdiaz.

386. Berehala ikasi zuen euskaraz (ZMG-028/011)

Mojetan ibili zen eskolan sei urte arte. Gero Hermanoetan. Pozik joaten zen eskolara, nahiago etxean lanean geratu baino. Mojak erdaldunak ziren. Berehala ikasi zuen erdaraz. Hermanoen ikastetxea non zegoen.

387. 'Xabiertxo' liburua zuten eskolan (ZMG-028/014)

Xabiertxo liburua zuten hermanotan. Ez zituzten zigortzen euskaraz egitegatik.

388. Zumea diru-iturri handia (ZMG-028/016)

Eitzagan diru asko mugitzen omen zen. Zume asko landatzen zen. Kaxoietan hazten zen zumea. Hazitakoan emakumeek eta haurrek zuritu egiten zuten. Nola ereiten zen. Igitaiaz ebakitzen zen abendu aldera.

389. Andreak eta umeak zumea zuritzen (ZMG-028/017)

Zumea, ebakita gero, sailkatu egiten zuten. Gero, galdaran egosi eta zuritu. Aulkiak eta horrelakoak egiteko erabiltzen zen. Busca familiak lantegi handia zuen zumeaz saskiak eta horrelakoak egiteko. Andreak eta mutikoek aritzen ziren zumea zuritzen. Gizonek baino jornal hobea irabazten zuten askotan.

390. Trontzan aitarekin batera (ZMG-028/019)

Bera jaio zen urtean sartu zuten lehen pinudia. Lan asko egindakoa da basoan. Trontzaz ebakitzen zen pinua. Aita trontzari ona zen. Bera eta aitaren artean ederki erabiltzen zuten.

391. Aitona oñatiarrak ekarri zuen pinua (ZMG-028/021)

Aitona Oñatitik etorria zen eta hark ekarri zuen pinua etxera. Etorkizuna zuela ikusi eta alde guztietan sartu zuen.

392. Bonbak egiten gerra denboran (ZMG-028/023)

Aparicio fabrikan ibili zen gerra denboran bonbak egiten. Abiazioko bonbak. Alemanek eramaten omen zituzten Salamancara. Zumarragakoa zen nagusia, Aparicio. Beste bi sozio zituen. Legazpin ere bazen lantegi bat gauza bera egiten zuena.

393. Gabiriara meriendatzera gerra denboran (ZMG-028/027)

Bi taberna, eliza, frontoia... ziren orduan Eitzagan. Gutxigatik ez zuen kintak harrapatu gerrara joateko. Bera baino zaharragoak soldadu zeuden. Ormaiztegiko zubia botata zegoen. Bizikletan joaten ziren Gabiriara eta han askari goxoak egiten zituzten.

394. Soldadutzan ukuilura destinatuta (ZMG-028/031)

Gasteizera joan zen soldadu gerra amaitu eta laster. Artillerian egon zen lehenbizi eta ukuiluan gero. Berrogei bat buru izaten zituzten. Zazpi edo zortzi soldaduk zaintzen zituzten, tartean baziren errapeari heltzen ere ez zekitenak. Erreal bi zen jornala.

395. Gurina egiten soldadutzan (ZMG-028/032)

Lan asko egin behar, baina ondo pasatu zuen soldadutzan. Goserik ez. Gurina egiten zuten makinan. Ofizialentzat izaten zen, ez soldaduentzat. Hiru urte eta erdi egin zituen soldadu.

396. Laian bi "zohi" osatzen zituen familiak (ZMG-028/034)

Ez ziren familia handia, baina bi "zohi" osatzen zituzten laiarako. Hiruko taldeak egiten ziren; batean aita, ama eta arreba; bestean aitona eta bi anaiak. Aitona eta aita biak omen ziren langile finak.

397. Gerra hasierako oroitzapenak (ZMG-029/022)

Gerra hasi zenean, Manuelek bost urte zituen. Gogoan du soldaduak menditik etorri zirenekoa. Beste batean, tiro egin zieten beraiei, soroan lanean ari zirela. Manuelen osaba gazteek ihes egin zuten, soldadu joan behar ez izateko.

398. Arotz izateko aukera (ZMG-029/026)

Arotz-lanetan hiru lekutan ibili zen. Hasiera batean, baserrira dedikatzeko asmoa zeukan; baina arotz izatea zergatik aukeratu zuen azaltzen du.

399. Patrizio Etxeberriarenean lanean (ZMG-029/028)

Patrizio Etxeberriaren lantegian nola hasi zen azaltzen du. Hainbat bidaia egin izan ditu lana dela-eta, muntaketa-lanak egiteko.

400. Poteketan, sokasaltoan, pelotan... umetako jolasak (ZMG-030/015)

"Poteketan" jolasten zuten. Nola zen azaltzen du. Sokasaltoan eta pelotan ere bai. Pelotan "txokotxean" jokatzen zuten, beste leku batzuetan "barruka" esaten zaiona. Tortoloska, kaniketan edo kartetan, berriz, gutxi.

401. Jenio oso txarreko apaiza (ZMG-030/017)

Behin, kuadrillako batzuk Aizpurutxora joan ziren erromeriara eta beste batzuk Oletara. Apaizak gaizki hartu zuen. Jenio oso txarreko gizona omen zen.

402. Aizpurutxoko erromeriara (ZMG-030/018)

Aizpurutxora joaten ziren igandetan erromeriara. Azkoitia partean ezin zen dantza lotuan egin baina goi aldean, Antzuola partean, bai. Denak lotuan egin nahi. Etxera garaiz bueltatzen ziren, taldean beti.

403. Baserri txikia Etxetxiki (ZMG-030/020)

Behiak eta ardiak zituzten baserrian. Etxe txikia zen Etxetxiki. Justina jaio zen urtean erosi zuten baserria. Behiak eta astoa erabiltzen zuten lanerako. Garia eta artoa hartzen zuten batez ere. Baba eta ilarra ere bai. Leku aldapatsuak dira Aginagakoak.

404. Zazpihortzaz edo lauhortzaz lanean (ZMG-030/022)

Baba-hazia kanpotik ekartzea ona da. Lurra landu egiten zuten zazpihortzaz edo lauhortzaz. Labrantzari buruzko xehetasunak.

405. Zomorrerik ez zitzaion egiten babarrunari (ZMG-030/023)

Udazkenean hartzen zen baba eta arto uzta. Lehortzen utzi eta gero aletzen zen. Orduan sekula ez zitzaion zomorrerik (zomorrerik) egiten babari. Orain berriz plastikoan sartu eta izozkailuan gorde behar izaten da.

406. Imilauna baba neurtzeko (ZMG-030/025)

Imilauna da aleak neurtzeko ontzi erabiliena. Hiru kiloko kaxa bat. Plazan saltzen zuten baba. Ehunezko zakutan eramaten zuten.

407. Edukiera neurriak: anega, imina, imilauna... (ZMG-030/027)

Imina (anega laurdena) erakusten du. Gero imilauna: alde batetik hiru kilo eta bestetik kilo eta erdi. Anega erdikoak hogeita bost kilo pisatzen ditu. Edozein ale mota neurtzen zen ontzi horiekin, baita intxaurrak eta gaztainak ere.

408. Martirietara errotara (ZMG-030/029)

Gauez joan ohi ziren errotara estraperlo garaian. Taldean. Martirietako Montera joan ohi ziren, Zumarragako Lizartzu baino urrutiago egon arren. Hiru ordu baino gehiago behar zuten Martirietako joan-etorria egiteko. "Laka" kentzen zieten, ehuneko hainbeste, ordain-sari gisa. Monte oso errota ona zen. Hamabostean behin joaten ziren.

409. Ogia egiten (ZMG-030/030)

Ogia egin aurretik irina "eraulki" egin behar da, bahean pasatu. Oreari "beantzaia" (hazkarria 'levadura') eta gatza botatzen zaizkio.

410. "Nahaskia", orduko ogi integrala (ZMG-030/032)

Laberako egurra: pinua, hurritza... eta "estoiña" (?) ere bai. Ona omen da azken hau. Baserriko ogi klasikoa egiten zuen. "Nahaskia" (integrala) ere egin ohi zuen. Ona zen baratxuri-zopa egiteko.

411. Garia simaur azpian gordeta (ZMG-030/034)

Gari-kutxa bat simaur azpian gordeta izan zuten gerra ostean. Esku-errotan antzeko bat zegoen baserri batean eta gogoratzen du jai arratsalde batez joan zirela irina ehotzera.

412. Txanketean garia jotzen (ZMG-030/035)

Txanketa zen gari-jotzeko sistema. Harri baten kontra jota aletzen zen (labaderoko harrien gisakoa). Gero etorri zen makina. Txanketean etxekoek jarduten zuten, egunean pixka bat eginez. Makinaz, auzolanean.

413. Lixiba egiten (ZMG-030/037)

Errekan aska bat zuten, eta han garbitzen zituzten arropak. "Mastrikau" egiten zituztela dio, indarrez astindu. 11 urterekin ikusi zuen lehenengoz ura etxeko arraskan.

414. Kandelak argi egiteko (ZMG-030/038)

Askotan kandela-argiaz baliatu behar izaten zuten. Zentralak gaizki funtzionatzen zuen. Farolak erabiltzen zituzten gehienbat. Geroago "gantxilak", gasezkoak. Linternak oso berandu.

415. Irimon tiroka eta laguna jaiotzen (ZMG-030/039)

Bost urte zituen gerra heldu zenean. Gogoan du Irimoko (aurrez aurre duten mendia) tirotea, bere lagun baten jaiotzarekin batera gertatu zelako.

416. Behiak marruka hegazkinen hotsarekin (ZMG-030/040)

Gogoan du hegazkin pila pasatu zela batera eta behiak marruka hasi eta etxera etorri zirela. Auzo ingurutik ez zen soldadurik pasatu.

417. Zazpi ume izan zituen, denak etxean (ZMG-030/043)

Etxera ezkondu zen. Zazpi ume izan zituen, denak etxean, emaginaren laguntzaz. Hilabete lehenago abisatu behar zitzaion. Oso jatorra zen.

418. Anjinak, umeen gaixotasun ohikoena (ZMG-030/045)

Anjinekin arazo handiak izaten zituzten umeek. Pulmonia ere pasatu zuen. Pomadarik ez zuten egiten, baina belar-urak hartu bai. Orain egiten ditu pomadak belarrez. Azpeitiko lehengusu batek erakutsi zion nola egin.

419. Buzkantz-festa San Martinetan (ZMG-030/049)

San Martinetan eta Trinidadetan dira Aginagako festak. Buzkantz-festa izaten da San Martinetan: "ardi zaharren bati bizia kendu eta...". Festetan jaten eta edaten zena.

420. Zumarragako azoka (ZMG-030/052)

Zapatuan egiten zen azoka Zumarragan. Igandean ere bai garai batean. Inguruko herrietatik ere etortzen ziren baserritarrak. Arroparik-eta ez zen saltzen.

421. Tolosako euskara gustatzen zaio (ZMG-030/053)

Aginagatik Zumarragara badago diferentzia euskaran. Tolosa aldekoa gustatzen zaio. Semeari Azkoitikoa.

422. Hika ia mundu guztiarekin (ZMG-030/054)

Ia denei hika egiten die, gurasoei eta senarrari izan ezik. Ahizpa zaharrenari ezin dio hika egin. Gaztetan zerbitzera joan zen eta gutxi ikusi zuen. Txikitan zuka hasi eta horrela jarraitu du. Berorika apaizari. Aitona-amonei zuka.

423. "Si quieres tener un hijo pillo, mételo monaguillo" (ZMG-031/003)

Akolitoak mezan lagundu behar izaten zuen. Orduko lanak: mezak, Elizakoak... Herriko mutil "onenak" izaten ziren akolito; gaizto-ospea zeukaten: "si quieres tener un hijo pillo, mételo monaguillo".

424. Mezaren arabera, akolito gehiago edo gutxiago (ZMG-031/004)

Akolitoaren janzkera nolakoa zen azaltzen du. Hainbat elizatarara joaten ziren akolito. Lau akolito joaten ziren meza nagusietara; apaiz bakarrak ematen bazuen, ordea, akolito bakarra joaten zen.

425. Lehengo meza motak (ZMG-031/005)

Lehen, meza klase ugari izaten ziren: meza nagusia, "a tiempo"ko mezak... Akolitoak izkinetan esertzen ziren.

426. Akolito zela, latina nahi gabe ere ikasi (ZMG-031/006)

Akolito izatearen truke, diru pixka bat ematen zieten, baina askorik ez. Egunero joan behar izaten zuten mezetara, eta orduko ordutegiak gogoan ditu. Apaizak euskaldunak izaten ziren Zumarragan; baina meza, latinez. Behin, Donostiako meza batean izandako anekdota kontatzen du.

427. Elizakoak ematen (ZMG-031/007)

Akolito zela, Elizakoak ematera joaten zen apaizarekin. Orduko ohiturak aipatzen ditu.

428. Hiletetako ohiturak (ZMG-031/008)

Hiletak zirenean, familiakoek aukeratzen zuten nork eraman hil-kutxa. Lehen, hiletetan kategoriak zeuden; eta oso desberdinak izaten ziren elkarren artean. Hiletetako mezak latinez izaten ziren oro har.

429. Euria egin arren, apaizaren aurrean, belauniko (ZMG-031/009)

Apaiza ikustean, elizan, belauniko jarri behar izaten zuten akolitoek. Behin, Elizakoak ematera joan zirenean, baserritar bat belauniko jarri zen bidean, lokatzetan, euria ari zuen arren. Horrek asko harritu zuen Joxe.

430. Apaizak zinearen gainean bizi zirenekoa (ZMG-031/013)

Bikarioak elizaren ondoan bizi ziren, zinearen gainean. Akolitoak zinea ezkutuan ikusten saiatzen ziren, baina batzuetan harrapatu egiten zituzten.

431. Kanpaiak jotzea, akolitoen ardura (ZMG-031/014)

Akolitoak arduratzen ziren beti kanpaiak jotzeaz. Kanpaiak eskuz jotzen zituzten, bi-hiru lagunen artean. Egunean, kanpaiak noiz eta nola jo behar izaten zituzten aipatzen du. Egoera mota bakoitzerako, kanpai mota bat zegoen.

432. "Infernuko hauspoa" ala kultura? (ZMG-031/015)

Urte askoan izan zen Joxe akolito. Akolitoek barrabas-ospea zeukaten. Joxek, gainera, soinua jotzen zuen, garai hartako "infernuko hauspoa". Gaur egun, ordea, soinua jotzea kulturatzat hartzen da. Lehengo eta oraingo bi jarrera horiek alderatzen ditu.

433. Kintoen ohitura berritzen (ZMG-031/018)

Soldadutzako kintoek eskean ateratzeko ohitura zeukaten: egun batean, baserrietan; beste egun batean, kalean. 1947an gertatutakoa gogoan du: eskean, Joxe soinua jotzen aritu zen, lehenengo aldia zen; eta, harrezkero, urtero joan izan zen soinu-jotzailea eske hartara.

434. Lehenengo soinuaren historia (ZMG-031/020)

Joxeren lehenengo soinua osabak ekarri zion, gerra denboran erositara. Soinu haren historia kontatzen du. Gerora, soinu hori lapurtu egin zioten Beasainen, ezkontza batean. Ez zuen inoiz berreskuratu.

435. Lehenengo emanaldia, Pasai Antxon (ZMG-031/022)

Jendaurrean, lehenengo aldiz, Pasai Antxoko plazan jo zuen soinua Joxek. Arrakasta handia izan zuen. Festak ziren, eta berandura arte aritu zen soinua jotzen.

436. Hernaniko festen ospe ona (ZMG-031/023)

Garai hartako festa onak Hernanin izaten ziren, San Juanetan.

437. Errepidean, Guardia Zibilekin izandako gorabeherak (ZMG-031/025)

Erromerietara joateko, trenaz joaten zen; itzultzeko, taxia jartzen zioten askotan. Guardia Zibilaren kontrolatan izandako gorabeherak eta anekdotak kontatzen ditu.

438. Iparraldean soinua jotzen (ZMG-031/028)

Hainbat lekutara joan izan dira soinua jotzera: Frantziara, Madril aldera... Kotxez edo trenaz joaten ziren. Behin, Hendaiara joan ziren jaialdi batean jotzera. Beste batean, Donibane Lohizunen Telesforo Monzon ezagutu zuten. Baionan, behin, Irujo ezagutu zuten. Jaialdiren bat zenean, Guardia Zibilarekin beti izaten zuten liskarren bat.

439. Lagunartean abesteko ohitura galdu da (ZMG-031/029)

Jaialdietan, ez zuten abesten. Garai hartan, tabernetan, kantu abertzale asko abesten zituzten. Lagunartean, euskarazko abestiak abesteko ohitura zuten; gaur egun, hori galdu egin da.

440. Momentu onak eta txarrak pasatakoa (ZMG-031/031)

Gazte garaian, ondo pasa zuten, baina baita gaizki ere. Urtero Trintxerpera joaten ziren soinua jotzera; eta, hala zebiltzan batean, kalejira-giroan, alde egiteko abisua iritsi zitzaien. Joaten ziren lekuaren arabera, pieza klase bat edo beste jotzen zuten.

441. Bandari begira, piezak ikasi (ZMG-031/033)

Hamabostean behin, Zumarragako plazan jotzen zuen bandak; eta, beste hamabostean behin, Urretxun. Haiei begira eta entzunda ikasi zuen asko Joxek.

442. Soinua jotzen irabazitako jornala (ZMG-031/035)

Soinua jotzen irabazitako jornala etxean entregatzen zuen. Batzuek, jornalari buruz, "bialduko diagu" esaten zuten; baina Joxe oraindik diru horren zain dago.

443. Hainbat ezkontzatan soinua jotzen ibilia (ZMG-031/042)

Ezkontza askotan jo izan du soinua Joxek. Gehienetan, bazkaritara ere gonbidatzen zituzten. Behin, ezkontza batean berorika egin zueneko anekdota kontatzen du.

444. Dantzariak nekatzen ez zireneko anekdota (ZMG-031/044)

Beraiek jotzen zuten erromerietan, dantza egiteagatik ez zitzaion inori kobratzen. Behin, Legazpin, soinua jo eta jo aritu zen, eta dantzariak ez ziren nekatzen; orduan gertatutako anekdota kontatzen du.

445. Azken orduko parrandazaleak (ZMG-031/048)

Ezkion, urte batean, Joxe haserretu egin zen: izan ere, tabernan jotzen aritu ziren; eta, giroa amaitzear zegoela, lau mutil azaldu ziren.

446. Gurasoak trenbideko langileak (ZMG-032/002)

Gurasoak zegamarrak zituen, baina handik hainbat herritara joan ziren bizitzera, trenbideko langileak zirenez, leku ugaritan lan egitea tokatu baitzitzaien.

447. Zumarragan, hainbat etxetan bizitakoak (ZMG-032/004)

Pilarren familia Zumarragara etorri zenean bizitzera, zer etxetan bizi izan zen azaltzen du.

448. Moja baten oroitzapen txarra (ZMG-032/006)

Karitateko mojen eskolan ikasi zuen Pilarrek. Orduko oroitzapen txarra dauka. Moja batek bereizketa handiak egiten zituen ikasle pobre eta aberatsen artean. Pilar lotsatia zen, eta moja hark zapaldu egiten zuen horregatik.

449. Mojaren omenaldira ez joateko erabakia (ZMG-032/008)

Mojekin ikasi zuen Pilarrek, eta moja baten oso oroitzapen txarrak ditu. Behin, moja hari omenaldia egin ziotenean, Pilar ez zen joan, zurikeriatan ez aritzeagatik.

450. Euskara gutxietsita (ZMG-032/009)

Pilarrek dena erdaraz ikasi zuen eskolan. Garai hartan, euskaraz egiteagatik gutxietsi egiten zituzten.

451. 14 urterekin, neskame Tolosara (ZMG-032/012)

14 urte zituela, neskame joan zen Tolosara. Aldaketa ekarri zion horrek, eta oso gustura egon zen etxe hartan. Orduko lan-baldintzak eta aisialdia gogoan ditu.

452. Tolosatik Donostiako hotel batera lanera (ZMG-032/013)

Tolosan umeak zaintzen zitueneko lan-baldintzak aipatzen ditu. Gerora Donostiara joan zen lanera, Correo hotelera. Tolosako nagusiek pena handia hartu zuten Pilarrek joan egingo zela esan zienean. Hoteleko lanari buruz hitz egiten du.

453. 'Bar Ixabelen' ardura hartu zutenekoa (ZMG-032/015)

Tabernako bizimodua gaztetatik ezagutu izan du Pilarrek. 21 urte zituela, 'Bar Ixabelen' ardura hartu zuen Pilarren familiak; erabaki hura zergatik hartu zuten azaltzen du. Lehendik, 'Bar Ixabel' norena zen aipatzen du.

454. 'Bar Ixabel'-en, hasieran (ZMG-032/016)

Pilarren familiak 'Bar Ixabel'-en ardura hartu zuenean, Pilarren Azpeitiko lagun bat ekarri zuten tabernara lanera. Pixkanaka, jendea etortzen hasi zen, eta langile ugari hartu zituzten. Orduko menuak 10 pezeta balio zuen.

455. 'Bar Ixabel': ordutegia eta bezeroak (ZMG-032/017)

Lan asko egin zuten 'Bar Ixabel'-en. Zer eratako bezeroak izaten zituzten aipatzen du. Goizeko 6etan irekitzen zuen taberna: goizean goizetik, bezeroek kafesnea eta kopa txiki bat hartzen zuten.

456. 'Bar Ixabel': Zumarragako lehenengo pintxoak (ZMG-032/018)

Lehen txikiteorako eta jokorako joera zegoen tabernatan. Zumarragako lehenengo pintxoak 'Bar Ixabel'-en jarri zituzten beraiek. Donostiako tabernetan pintxo berriak egiteko ideiak hartzen zituzten. Orduko pintxoak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Janari-eskaintza handia izaten zuten tabernan.

457. Zumarragara tren-geltokiek ekartzen zuten bizia (ZMG-032/021)

Emakume gutxi sartzen ziren tabernan, eta kafesnea hartzen zuten. Lehen Zumarragan hiru tren-geltoki zeuden; eta, horregatik, jende asko etortzen zen beraien tabernara.

458. 'Bar Ixabel': kontabilitatea (ZMG-032/022)

Lehen, tabernako kontuak egiteko, bazuten kutxa erregistratzailea tabernan. Lehendik, aita gizon azkarra zenez, berak eramaten zuen kontabilitatea.

459. 'Bar Ixabel' tabernatik 'Golden' dantzalekura (ZMG-032/024)

17 urte 'Bar Ixabel'-en eman ostean, 'Golden' dantzalekuaren ardura hartu zuten. Han aritu ziren lanean 27 urtean. Garai hartan, dantzalekua berria zen; Urretxuko apaizak ez zuen lokala bedeinkatu nahi izan. Azkenean, San Pankrazio jarri zuten lokalean.

460. 'Golden' dantzalekuko ohiturak (ZMG-032/025)

'Golden' dantzalekua, garai hartan, nolakoa zen deskribatzen du: lokalaren egitura, ordutegia, prezioak, edariak...

461. 'Golden' dantzalekuko musika eta gazteak (ZMG-032/026)

'Golden' dantzalekua beraiena zen, eta hara joaten ziren gazteek zer ohitura zituzten azaltzen du. Han denetariko musika jartzen eta ekartzen zuten.

462. Dantza-pistako ohiturak (ZMG-032/027)

Dantza lotua libre zen orduan. Dantza-pistan ezin zen erre.

463. 'Golden' dantzalekura sartzeko baldintzak (ZMG-032/028)

Helduak jai gauetan joaten ziren 'Golden' dantzalekura; gaztetxoak igande arratsaldetan joaten ziren. Bezeroei karneta eskatzen zieten. Inguruko herri txiki guztietako jendea etortzen zen. Oso ezaguna izan zen dantzaleku hura garai hartan.

464. Zumarragako tabernak lehen (ZMG-032/030)

Zumarragan lehen zer taberna zeuden azaltzen du.

465. Errenta ordaintzeko lanak (ZMG-033/004)

Urtean, errentan 5.000 pezeta ordaintzen zuen Juliren familiak. Lan asko egin behar izaten zuten baserrian errenta ordaindu ahal izateko. Baserriko lanak azaltzen ditu.

466. Aurrerapen teknologikoak pixkanaka (ZMG-033/005)

Lehen, etxean ez zegoen ur-korronterik, eta bainatzera errekarra joaten ziren. Etxean garbitzeko, terreina handi bat erabiltzen zuten. Argindarra etxera iritsi zenekoa gogoan dute. Juliren etxean bazuten garbigailua lehen ere; nolakoa zen azaltzen du.

467. 1956ko izoztea (ZMG-033/006)

Lehen neguak orain baino gogorragoak ziren. 1956ko izoztea gogoan dute. Orduko oroitzapenak kontatzen dituzte.

468. Lehengo bizimodu gogorra eta janaria (ZMG-033/008)

Lehen bizimodua gogorra zen, eta zaila zen jatekoa bilatzea. Orduan zer eta nola jaten zuten azaltzen dute. Goserik ez zuen pasa Julik, baina aukerarik ere ez zuen izan.

469. Lehengo arropak (ZMG-033/011)

Arropa urte osorako izaten zen. Orduko arropen buruz hitz egiten dute: alpargatak, blusa beltza...

470. Artilea egiteko modua (ZMG-033/012)

Galtzerdiak artilez egiten zituzten. Artilea nola lantzen zuten azaltzen du Jesusek.

471. Baserriko lanetan aritzeak ekarritako ondorioak (ZMG-033/014)

Baserriko lanetarako, neskek zapia buruan eta mantala soinean jartzen zuten. Beltzaran egotea ez zegoen ondo ikusia. Juli baserriko lan ugarian ibilitakoa da. Horrek, baina, ondorioak ekarri dizkio osasunean.

472. Apaizari janaria ematearren, beraiek batere gabe gelditu (ZMG-033/017)

Apaiza baserrira etortzen zen konjurua egitera. Trukean janaria eman behar izaten zioten, eta beraiek batere gabe geratzen ziren.

473. Zumarragako eta Urretxuko azokak (ZMG-033/018)

Juli esnea saltzera joaten zen kalera; baina, horrez gain, jenero gehiago ere saltzen zuten azokan, bai Urretxu, bai eta Zumarragan ere. Zumarragako azoka igandetan izaten zen, eta kendu egin zuen Zumarragako apaizak, emakumeak ez baitziren mezara joaten horrela; orduetik, larunbatera aldatu zen azoka.

474. Antio auzoa lehen (ZMG-033/022)

Lehen Antio auzoa nolakoa zen azaltzen du: eliza, kanpaiak, ohiturak...

475. Kongregazioak eta konfesatu beharra (ZMG-033/026)

Doktrina goitik behera ikasi behar izaten zuten, zer esaten ari ziren jakin gabe. Garai hartan, kongregazioak zeuden; haien ohiturak aipatzen zituzten.

476. Konfesatu beharreko gauza "garrantzitsuak" (ZMG-033/027)

Konfesatzera nahitaez joan behar izaten zuten, larunbatero. Julik apaiz batekin izandako elkarrizketa kontatzen du.

477. Elizak emakumeekiko diziplina gogorragoa (ZMG-033/028)

Elizak emakumeei diziplina gogorragoa jartzen zien. Orduko debekuak aipatzen dituzte. Aitaren konfesioko anekdota kontatzen du Julik.

478. Eskolak eta erlijioak emakumea baztertuta (ZMG-033/029)

Mariaren Alaben kongregaziokoa izanez gero, ezin zen dantza lotua egin, bestela kongregaziotik kanpo bidaltzen baitzituzten. Gurasoek ere hezkuntza erlijioso zorrotza izan zutenez, alabekin diziplina zorrotzagoa izaten zuten mutilekin baino. Eskolan, emakumeek jasotzen zuten hezkuntzan, etxean egoteko prestatzen zituzten.

479. Lapurreta egin izana egotzi zion maistra maltzurra (ZMG-033/032)

Eskolan, baserritarra izateagatik, gaizki tratatzen zuten Juli. Behin, dirua falta zela, eta Juliri egotzi zion lapurreta. Oso gaizki tratatzen zuen maistrak Juli.

480. Erdaraz ez jakiteagatik, errieta (ZMG-033/036)

Juliren amak lehen ez zekien erdaraz, eta behin errieta egin zioten erosketak egitean euskaraz eskatzeagatik.

481. Pertsona bat, tratamendu bat (ZMG-033/037)

Jesusen etxean, anai-arreben artean, hika edo zuka egiten zuten; gurasoekin, zuka. Apaizari, medikuari eta albaitariari berorika egiten zieten. "Usted" eginez gero, haserretu egiten ziren.

482. Urretxu vs Zumarraga (ZMG-033/039)

Urretxuko eta Zumarragako umeen artean, ika-mika handiak egoten ziren lehen: harrika ibiltzen ziren bata bestearen aurka. Bi herriak batzeko saiakera egon arren, herritarrek ez zuten onartu.

483. Euskararen beherakada Urretxun eta Zumarragan (ZMG-033/040)

Urretxu eta Zumarragan euskara galdu egin da, kanpoko jendearen etorrerarekin batera. Dendako anekdotak.

484. Soraitz Sakoneko baserriak (ZMG-035/003)

Soraitz Sakoneko baserriak izendatzen ditu, Buztintzatik hasi eta Elorriagagoikoraino (bere baserria). Aldamenean dauden Ezkioko baserri batzuk ere bai.

485. Antiguako errepidea (ZMG-035/004)

Berak 19 urte zituela egin zen Antiguako errepidea, eta horrek asko erosotu zuen auzora heltzea. Bide luzea dago Elorriagagoikotik kalera. Pikatxoiz eta palaz egin zen, baina ordurako hasita zeuden konpresoreak tiro-zuloak egiteko.

486. Fraide azkoitiar jatorra (ZMG-035/012)

Fraideen artean bat euskalduna zen, azkoitiarra. Baserritarra zen bera ere eta ikaragarri ondo portatzen zen baserritarrek, sekula ez zituen jotzen. Kaletarrei, berriz, egurra. Bazekien etxean lan egin behar izaten zutela baserriko umeek.

487. Artzain lanetan (ZMG-035/013)

Behiak, idiak eta ardiak zituzten. Eta bi asto. Lursail onak. Ardi-lan gehienak berak egiten zituen. Izaspi mendira eramaten zituzten bazkatzera. Muturgorriak ziren ardi gehienak. Txabola badute. Belarra ondu behar izaten zen udan, neguan zer jana izan zezaten.

488. Garotan udazkenean (ZMG-035/014)

Udazkenean garotan. Pagotxetan zuten garo saila. Lera eta gurdia erabiltzen zuten garraiatzeko. Segaz ebakitzen zuten; leku txarretan igitaiaz. Ez zen garo bakar bat ere ekarri gabe gelditzen. Etxe barruan gordetzen zen tokia zegoen bitartean. Gero zugatzak (metak) egiten ziren kanpoan.

489. Txanketean gari jotzen (ZMG-035/016)

Eskuz jotzen zuten lehenago, "txanketen" esaten zitzaion. Eguzki berotan ihartu behar zuten gari sortek, eta gero harri gainean jotzen ziren.

490. Inguruko errotak (ZMG-035/018)

Lizaratzu errota eta Gerra errota ziren beren errotak. Udan Aizpurutxora joaten ziren, ura urritzen zenean. Gerraostean prezintatuta egon ziren errotak. Garia lautik bat entregatu behar izaten zen. Ordaindu ere laurdena egiten zuten, pezeta balio baldin bazuen kiloak, erreala ordaintzen zuten.

491. "Laka", errotariaren saria (ZMG-035/019)

Azkoitiko Montterra joaten ziren ezkutuan garia ehotzera. "Laka" kobratzen zuten ehotzeagatik, 100 kilotik 15 errotariarentzat. % 15a. Gaez ibiltzen ziren, guardia zibilen beldurrez beti. 1.000 pezetako isuna arriskatzen zuten. Astoari ahoa lotzen zioten arrantza egin ez zezan. Aita aurretik eta bera atzerago. Errotako pasadizoa eta jabeak aitarekin izandako solasa.

492. Kaletarrak baserrira lan eske janariaren truke (ZMG-035/021)

Ez da gariaren prezioaz oroitzen, baina oso garestia zen. Olioa ere bai. Garia eta artoa etxe guztietan egiten ziren. Baserritarrak hainbestean defenditzen ziren. "Kalegorria" zen txarra orduan. Kaletarrak baserrira joan ohi ziren lan eske janariaren truke.

493. Aroztegian lanean (ZMG-035/022)

14 urterekin hasi zen lanean, Uribesalgonean. Arotz-lanean, pintxe. Denetik egiten zuten: ateak, markoak, hil-kutzak... Pinu maritimoa erabiltzen zen. Zura nola lantzen eta muntatzen zen. Uribesalgotarrak Arrasate aldetik etorritakoak ziren.

494. Adabegi-zuloak estaltzen (ZMG-035/023)

Familian ez zen arotzik. Neurriak hartzea nagusiaren eginkizuna izaten zen. Haritza gutxi erabiltzen zen garestia zelako. Gaztaina ere erabiltzen zen markoak egiteko. Pinua eta gaztaina ez dira gogorak, haritza bai. Adabegi zuloak estali egiten zituzten zerrautsez eta kolaz.

495. Zuhaitz mota bakoitza noiz bota behar den (ZMG-035/024)

Pipia garai txarrean botatako egurrari sortzen zaio. Hosto-luzea ilbeheran bota behar da eta borobila ilberrian: pagoa, hurritza, haltza, lertxuna, makalak. Hosto-luzeak: haritza, gaztaina, lizarra, akazia... Azaroko eta abenduko ilbeherak dira garai onenak botatzeko. Haltza botatzeko, maiatzeko ilberria. Botatakoan zerratu egin behar da, eta okertu ez dadin "kastillau", zutik tolestu.

496. Goldearen eskulekuak (ZMG-035/026)

Akazia zurezko goldearen eskulekuak ("mangos de arados") egiten ziren lantegian, Gaztela alderako batik bat. Gero traktoreak etorri ziren eta amaitu egin zen hori guztia. Gurdi-lantegia zegoen Urretxun.

497. Hil-kutzak (ZMG-035/027)

Neurri ezberdineko hil-kutzak egiten zituzten. Handiegia ez da komeni. Pinuzkoak izaten ziren. Nogalina eta berniza ematen zitzaaien. Aingeruentzakoa (ume jaioberrientzako) kolore zurikoa izaten zen ("aingeru-kutzak").

498. Zuhaitzak trontzaz botatzen (ZMG-035/028)

Trontzaz botatzen ziren zuhaitzak. Motozerra duela 50 bat urte sartu zen. Pago asko bota zen bere gazte denboran.

499. Morroi hiru baserri ezberdinetan (ZMG-035/030)

10 urtetik 14 urtera morroi ibili zen hiru etxetan. Igartzan lehendabizi artzain. Gero, Zelaietan (Matxibenta); eta, azkenik, Ezkion.

500. Morroien eta neskameen lansaria (ZMG-035/031)

Jana eta arropa izaten zen morroiaren saria, diru oso gutxi irabazten zen. Zelaietan gustura egon zen. Morroiaren lanak izendatzen ditu. Etxeko bat bezala izaten zen morroia. Neskameak ere berdintsu ibiltzen ziren. Hilean 15 duro irabazten zituen Zelaietan.

501. Antiguako serora (ZMG-035/032)

Antio (Antigua) auzoa nolakoa zen. Serora-etxea eliza ondoan. Serora bizi zen bertan. Elizako giltza edukitzen zuen. Hitz motela zuten haurrak ekartzen zituzten elizara sendatzeko esperantzan. Gurasoek oilanda pareka ekartzen zioten serorari. Eliza garbitzea zen seroraren eginkizun nagusia.

502. Antiguako tabernak eta elkarteak (ZMG-035/033)

Bi taberna zeuden Antiguan, bata serorarena eta bestea Elizaldekoa. Serora-etxean sarri afaltzen zuten. Errepidea eginda gero egin zen elkarteak.

503. Antiguako jaiak (ZMG-035/036)

Santa Isabel egunean egiten ziren festak. Ezpata-dantzariak, saltzaileak, hiru-lau tabernari ere bai. Idiekin jasotzen zen jeneroa. Urrestillako Auntxa soinujolea ere etortzen zen Pagotxetan behera soinua joz. Dantza loturik ez, trikitixa. Jaitsiera orduan ere egiten zen. Egundoko jende pilak etortzen ziren mendiz Antiguako egunean "pardela" hartuta.

504. Pagotxetako Eguna (ZMG-035/037)

Pagotxetako eguna abuztuko azken igandean izaten zen. Martirietara joaten ziren lehendabizi auzoko denak. Han dirua eman apaizari ganaduen osasunaren alde, bazkaldu etxetik eramandakoa, eta gero Pagotxetako erromeriara joaten ziren. Soinujoleak zeintzuk ziren.

505. Euskara batua gauza ederra da (ZMG-035/039)

Santa Barbara aldekoek pixka bat Antzuola aldera jotzen omen dute hizketan, baina berdintsua omen da Zumarraga aldeko euskara. Tolosakoa omen da euskararik ederrena. Telebistako euskara batua erraz ulertzen du. Denek berdin egiten dute, eta hori gauza ederra da.

506. Semeari hika, alabari zuka, apaizari berorika (ZMG-035/040)

Hika egin ohi du anai-arrebekin. Semeei hika egiten die eta alabei zuka. Berori apaizari. Kanean apaiza ikusiz gero, berarengana joan eta "Ave María Purísima!" esan behar zen. Eta hori egin ezean errieta eta belarritik tira. Apaizak baino gehiago militarrek omen ziren. Parean pasatzean txapela kendu behar zen.

507. Aitaren lanak: ogia eta zumea (ZMG-036/004)

Aita okina izan zen Irizarrekin batera. Lan hura utzi, eta zumearekin tratua egiten hasi zen aita.

508. Zumearen inguruko lanak (ZMG-036/006)

Zumea udaberrian hasten da, eta udazkenean igitaiaekin banan bana ebaki. Urtero, 20-28 tona biltzen zituzten beraiek. Inguruko baserrietatik etortzen ziren beraien lurretara lanera. Zumea biltegian gorde, eta Valentziara saltzen zuten. Zumea saskiak egiteko erabiltzen zen; baina plastikoa iritsi zenean, zumea behera etorri zen.

509. Gerrako bonbak Zumarragan (ZMG-036/008)

Gerra garaian, Zumarragan hegazkinek bonbak bota zituztenekoa gogoan du. Bonba batzuen helburua RENFEko zentrala zen.

510. Euskaldunen eta katalanen arteko bilera Zumarragan (ZMG-036/010)

Errepublika garaian, parlamentari euskaldunek eta katalanek independentzia nahi zuten. Bi taldeen arteko bilera egin zuten Zumarragan, eta harrera ona egin zieten herritarrek. Baina "guardia de asaltok" ez zien utzi bilera hura egiten.

511. 150 ardiren ardura (ZMG-036/013)

Hasieran, 300 ardi eduki zituzten, 3 bazkideren artean. Gerora, bitan zatitu zuten artaldea, eta erdi bat aitaren eta bere artean gobernatu zuten. Orduan nola moldatzen ziren azaltzen du.

512. Zegamako krimena (ZMG-036/014)

Behin, Zegaman krimena egon zen, ama-alaba batzuk hil zituzten. Kasu hura ez zen argitu; baina handik urte batzuetara zabaldu zenez, abeslari batek bere gain hartu zuen krimena.

513. Elurte izugarria egin zuenekoa (ZMG-036/015)

Garai batean, Mañariko larreak zeuzkan hartuta aitak. Han zeuden batean, elurte izugarria bota zuen, batere espero ez zutela. Estutasunak pasa zituzten orduan.

514. Ardien gaineko tratua ferian (ZMG-036/016)

Ardien gaineko tratua ferian egiten zituzten. Ardiak diru truk saltzen zituzten. Orduko ohiturak azaltzen ditu.

515. Galdutako behorren bila (ZMG-036/019)

Behin, behor batzuk falta zitzaizkieneko gorabeherak kontatzen ditu.

516. Zumarragako Eliz Kalea (ZMG-036/024)

Zumarragako Eliz Kalea lehen nolakoa zen azaltzen du.

517. Gerra garaiko oroitzapenak (ZMG-036/031)

1936ko Gerra Zibila gogoan du: emakumeei ilea mozten zieten zigor gisa, jende askok egin zuen alde herritik, aitak guardia egin behar izaten zuen... Jende asko fusilatu zuten garai hartan.

518. Zumarragako alemanaren zorigaitza (ZMG-036/033)

Militar asko egon ziren Zumarragan gerra garaian. Zumarragan aleman bat bizi zen gerra aurretik ere; gerra garaian, familia Alemaniara joan zen, eta gizona bakarrik gelditu zen Zumarragan. Bere buruaz beste egin nahi izan zuenean, soldadu italiarrak hori eragozten saiatu baziren ere, azkenean lortu zuen.

519. Soldadu italiarrak Zumarragan (ZMG-036/034)

Gerra garaian, soldadu italiarrak egon ziren Zumarragan. Haiei buruzko oroitzapenak gogoan ditu.

520. Dantzako doinuak eta oroitzapenak (ZMG-036/039)

Gaztea zeneko dultzaineroen piezak gogoan ditu. Dantza lotua egiten zuten; baina, leku askotan, hori bekatu zen. Iluntze aldera, mutilak borrokan hasten ziren neskengatik. Neska-laguntzaren helburua.

521. Bere lehenengo bizikleta (ZMG-036/042)

Bizikletan ibiltzea asko gustatu izan zaio Migeli. Gogoan du bere lehenengo bizikleta.

522. Orbegozo lantegiko makinarekin izandako istripua (ZMG-036/053)

Orbegozo lantegira Alemaniatic ekarri zuten makina, sukaldeko plantxak egiteko. Makina hura trenetik lantegira eramateko nola moldatu ziren azaltzen du. Makina horrekin istripua izan, eta pertsona bat hil zen.

523. Gerrak ekarritako komeriak (ZMG-037/003)

1936rako, Ataundik Tolosara joanak ziren bizitzera. Gerra ostean, aita lanetik bota egin zuten, arrazoi politikoengatik. Orduan, aurrera ateratzeko nola moldatu ziren azaltzen du.

524. Han eta hemen, eskolan eta morroi (ZMG-037/005)

Tolosan bizi zirenean, bidezainen etxean bizi ziren. Tolosako Santa Luziako eskolan ikasi zuen Migelek. Andereñoa oraindik gogoan du. Bederatzi urte zituela, 1939an, morroi joan zen Migel, eta 12 urte pasa zituen han. Gerora, soldadutzara joan zen.

525. Orbegozorenean lanean, lan-istripua izan zuen (ZMG-037/006)

1953an, soldadutzatik itzuli zenean, Orbegozoren lantegian hasi zen; baina handik urtebetera lan-istripua izan zuen, eta hankaren zati bat moztu egin zioten.

526. Eskolako garaiak eta "auxilio soziala" (ZMG-037/008)

Tolosako eskolan ikasi zuen, baina denbora gutxian. Orduko oroitzapenak baditu: Xabiartxo liburua, andereño jatorra... Eskolan ez zuten Cara al Sol abestu behar izaten, baina bai, ordea, "auxilio sozialean"; han jaten ematen zieten, eta ondo tratatzen zituzten; baina batzuek, politika dela-eta, ez zuten joan nahi izaten. Hara joaten zen jendearen egoera nolakoa zen azaltzen du.

527. Orbegozon lan-istripu ugari egon ziren (ZMG-037/015)

Soldadutza bukatutakoan, Orbegozo lantegian hasi zen lanean. Garai hartan, lan gogorra zen, eta jende asko hil edo zauritu zen lanean. Berak izandako istripuari buruz hitz egiten du. Orduan, sindikatuan kontatu behar izan zituen istripuaren gorabeherak. Orduko lan-baldintzak aipatzen ditu.

528. Orbegozo fabrikaren garai onak (ZMG-037/016)

Migel Orbegozo lantegian lanean ibili zenean, 4.000 langile inguru zebiltzan bertan; gerora, ordea, desegin egin zen fabrika. Langile asko kanpotik etortzen zen: Urolako trena beteta etortzen zen Zumarragara; Espainia eta Nafarroa aldetik ere etortzen ziren...

529. Lan-istripuaren osteko lanak eta baldintzak (ZMG-037/017)

Migelek lan-istripua izan zuenetik, lanean jarraitu zuen, beste kargu batzuetan. 57 urte zituela hartu zuen erretiroa. Erretiroko lege eta baldintzak aipatzen ditu.

530. Baserriko bizi-baldintzak garai batean (ZMG-037/029)

Migel baserrira morroi joan zenean, ez zeukaten ez urik, ez biderik. Argia erdi-ipurdikoa zen. Ur bila, Baiona iturrira joaten ziren. Beste hainbat leku ere bazeuden ura lortzeko.

531. Soldadutza Afrikan (ZMG-037/034)

Soldadutzan Afrikan egon zen, zozketan hala tokatu baitzitzaion. Han primerako bizimodua izan zuen. Han zer zeregin izaten zituzten aipatzen du.

532. Garai bateko otorduak (ZMG-038/002)

Urdaila eta indaba jaten zen batez ere bazkaltzeko. Gosaltzeko artoa esnea eta morokila eta hauek nola prestatzen ziren azaltzen du. Afaltzeko berriz gaztainak, asko zegoen eta.

533. Intxaur-salsa, torradak eta txerri belarriak (ZMG-038/004)

Gabonetan intxaur-saltsa eta turroia jaten zuten. Inauterietan ogi-torradak prestatzen ziren baserrian eta baita txerri belarriak ere.

534. Elizkaleko denda eta tabernak (ZMG-038/007)

Elizkaleko denda eta tabernak aipatzen ditu. Gainean, bi edo hiru pisu izaten zituzten.

535. Banketxean aldiko pertsona bat (ZMG-038/010)

Geltoki inguruan hotelak eta banketxeak zeuden. Geltoki ondoko Kutxako sukurtsala oso txikia zen, aldiko pertsona bat sartu zitekeen. Hotel Urola ere han zen.

536. Trena zetorrela eta astoak aurrera (ZMG-038/012)

Errotara zetorren astoarekin behin eta merkantzia trena parean tokatu zitzaion. Astoak ez zuen geratu nahi eta larri ikusi zuen bere burua

537. Errotara joan-etorriak (ZMG-038/013)

"Sakamantekas" udazkenean ateratzen omen zen. Errotarako bidea batere argirik gabe egiten zuen baina ez zen beldur. Kotxerik ez zen ia egoten kaminoan.

538. Alkate izateko hauteskunderik ez (ZMG-038/014)

Felipe Elgarresta, "Iturri" urte askotan izan zen alkate Urretxun. Hauteskunderik ez zen egoten, alkateek borondatez hartzen zuten kargua.

539. Orbegozoko greba luzea (ZMG-038/016)

Orbegozon greba luzea egon zen hirurogeigarren hamarkadan. Elizan sartuta egon ziren. Don Domingo bikarioa saiatu zen poliziari sarrera isten baina azkenean atera zituzten. Kaleratu asko egon ziren

540. Nagusiaren txoferrarekin ospitalera (ZMG-038/018)

Istripua izan zuenean nagusiaren txoferrak eraman zuen Ategorrietara. Bidean udaltzainak geratu zituen semaforoa gorrian pasatzeagatik. Berrogei egun egin zituen bajaran eta ondoren kalte-ordaina eman zioten.

541. Apaizak baserrietara bisitan (ZMG-038/019)

Garizuma garaian San Kristobal auzoan sermoia entzutera joaten zen. Uzta garaian baserrietara ere joaten ziren. Erramua baserri guztietan egoten zen.

542. Erramu gurutzeak eta lizarraren adarrak (ZMG-038/021)

Erramuarekin egindako gurutzeak soroan jartzen ziren udaberri aldera. Ateetan ere egoten ziren gurutzeak. San Juanetan Lizar adarrak eta loreak etxeko atarian jartzen ziren.

543. Txakurra baserri inguruan (ZMG-038/022)

Txakurra zuten baserria babesteko. Gaur egun baserrian baino gehiago kalean ikusten dira txakurrak. Artzain ibiltzen zenean ez zuen txakurrik eramaten. Ogi lehorra erabiltzen zuten animaliak elikatzeko. Pentsua garestia izaten zen

544. Gauero porru-patatak afaltzeko (ZMG-039/003)

Etxeko ohiturak. Amak eta izebak baserrian laguntzen zuten. Edurnek, zazpi urte zituenetik, etxean afaria prestatzeko ardura zuen, alaba zaharrena zelako.

545. Etxeko lanetan, neskak beti (ZMG-039/005)

Hiru neska eta bi mutil ziren etxean. Etxeko lanetan neskak aritzen ziren beti. Gaur egun gauzak desberdinak dira.

546. Erdaraz hitzik jakin gabe eskola nazionaletara (ZMG-039/007)

Gerra ondoren, eskola nazionaletan ibili ziren. Erdaraz ez zekitelako barre egiten zieten. Nazionaletatik mojen eskolara; eta handik, eskola partikularrera ikasketekin jarraitzea.

547. Klase partikularretan kontabilitatea ikasten (ZMG-039/008)

Mojetatik irtendakoan, kontabilitatea ikastera joan zen Edurne 12 urte ingururekin. Eskola garbitzearen truke ez zizkieten klaseak kobratzen. Batxilerra ere ikasi nahi izan zuen; baina, atzetik zetozen anai-arrebek ere nahiko zutelakoan, ez zioten utzi.

548. Jateko aukera handiegirik ez (ZMG-039/011)

Gerra garaian goserik ez zuten pasa, baina jateko aukera handiegirik ere ez zeukaten: babarrunak eta porru-patatak. Bazkaria amak prestatzen zuen eta denek elkarrekin bazkaltzen zuten.

549. Urretxu eta Zumarraga arteko pikeak (ZMG-039/014)

Urretxu eta Zumarraga artean pikea zegoen. Tabernara joaten zen Urretxuko kuadrilla bat zirikatzen egoten zen beti, baina bi ahizpek ez zieten kasu handiegirik egiten.

550. Gauez auzoko umeekin jolasean (ZMG-039/016)

Lanean ibiltzen ziren, bai, baina jolasteko denbora ere izaten zuten. Gauean, amamari itzarotea ateratzen ziren eta orduan ibiltzen ziren auzotarrekin jolasean. Jostailurik ez, baina jolasak bai.

551. Zazpi urterekin ume bat zaintzera (ZMG-039/017)

Zazpi urterekin, Maite Ezkioko baserri batera bidali zuten ume txiki bat zaintzera. 13 urte bete bitartean egon zen bertan, eskolara joan gabe gainera. Etxetik aho bat kentzea zen kontua, ez baitzuen ordainetan ezer jasotzen

552. Errege egunean, hogeiturokoa (ZMG-039/018)

Errege egunean, hogeiturokoa sartzen zieten zapatan; gero, ordea, berriz ere etxean behar izaten zuten eta kendu egiten zieten. Angila kaxa txikia izaten zen oparia.

553. Mari Nieves deitu eta kasurik ez (ZMG-039/021)

Eskolak erdaraz izaten ziren. Lehenengoz Mari Nieves deitu ziotenean, ez zuen kasuri ere egin. Neskak eta mutilak elkarrekin ibili ziren hasieran mojekin eskolan.

554. Anai-arreba guztiek liburu bera (ZMG-039/024)

Anai-arreba guztiek liburu berarekin ikasi zuten: "Historia de España". Gainera, eskua jasota abestu behar izaten zuten egunero. Uniformerik ez zuten erabiltzen eskolarako.

555. Jantzi berarekin egunero (ZMG-039/025)

Jantzi bakarra izaten zuten, gauero garbitu eta goizean plantxatzen zutena. Amak josten zizkien arropak.

556. Doktrinatik ibilaldiak hondartzara (ZMG-039/028)

Saturrarango hondartzara doktrinatik joan ziren trenez. Eburnek amamari ere bainuak hartzera laguntzen zion Zumaiako bainuetxera. Udaletxeak ere jartzen zuen noizean behin Zumaiara joateko autobusa.

557. Seminariotik kanpora, gutuna idazteagatik (ZMG-039/031)

Anaia seminariotik bota zuten "grisen" jokabidearen aurkako eskutitz bat idazteagatik, bertan 13 urte pasa eta gero.

558. Anaia semirariora bere borondatez (ZMG-039/032)

Semirariora borondatez joan zen anaia; hala ere, urtebete beranduago sartu zen bere lagun bat joan zelako nahi zuela uste baitzuten etxeok. Askotan baserrietatik aho bat kentzearren joaten ziren semirariora. Abuztuan hilabete Alemanian ematen zuten.

559. Mutilekin dantzan eta mojak haserre (ZMG-039/033)

Mutilekin dantza egitegatik, Hijas de María kongregaziotik bota zuten Edurne. Anaia zaintzeko aitzakiaz, ez zen igandeetan mojekin paseora joaten eta astelehenero zigortuta egoten zen

560. Erromeria Oletan (ZMG-039/034)

Lehengusuekin joaten ziren Oletara erromerian. Osaba soinu-jotzailea zuten. Mutilekin dantzan egitea debekatua zegoen, baina ez zitzaien asko inporta. Festa nagusia abuztuaren hamabostean ospatzen zen. Santa Isabel, Kizkitza eta Elosun ere izaten ziren erromeriak.

561. Ama ezkongabeak ezkutuan (ZMG-039/039)

Ezkondu gabe geratzea baino okerragoa zen ama ezkongabea izatea. Ezkutuan eramaten ziren gauza horiek. Ezkondu gabe elkarrekin bizitzea ere ez zen ondo ikusten.

562. Zinean azkena sartu eta lehena irten (ZMG-039/040)

Zumarragako zinera igandero joaten zen Edurne. Azkena sartu eta lehenengoa atera. Tabernara bezeroak iristerako barran egoten zen. Bakeroen pelikulak egoten ziren. NODOa pasatuta iristen zen zinera beti.

563. Ezkondu eta Ameriketara (ZMG-039/041)

Ezkondu eta Ameriketara joan zen Maite, Caracasera. Senarraren anaiak negozioa zuen han, baina lau urtez bakarrik egon ziren. Segurtasun faltagatik etorri ziren bueltan.

564. Karakolekin egindako jarabea (ZMG-039/043)

Osasun ona zuten eta ia ez ziren medikuarengana joan. Karakolaren babarekin egindako jarabea egiten zuten etxean katarroak sendatzeko.

565. Enplastoak eta sendabelarrak (ZMG-039/046)

Medikua etxeetara joaten zen, baina beraiek ez zuten asko ikusi. Etxean egindako enplastoak erabiltzen zituzten sendatzeko.

566. Lutoa eta hil kanpaiak (ZMG-039/050)

Amak hamar urtetik gora egin zituen lutoa kendu gabe. Umeak ere beltzez janzten ziren orduan. Hildakoa emakumea edo gizonezkoa izan, kanpaiak jotzeko eran bereizten zen.

567. Alpargatak galipotarekin (ZMG-039/051)

Egunero jantzi bera erabiltzen zuten. Gauetz garbitu, sutondoan lehortu eta hurrengo goizean janzteko prest. Oinetan alpargatek gehiago iraun zezaten, galipota ematen zieten.

568. "Sakamantekas" ote zen? (ZMG-039/053)

Ahariaren bila joanda zerbaitek beldurtu zuen Edurne. Tifoi Sukarra zela eta, baserrira joan behar izan zuenean ere, beldurtuta pasatzen zuen eguna. Beldurtzeko istorioak izaten ziren.

569. Ilargiaren faseak (ZMG-039/054)

Ilargiaren faseek garrantzia handia izaten zuten baserrian. Baita ilea mozteko ere

570. Politikaz hitzik ez etxean (ZMG-039/055)

Sekula ez zen politikaz hitzik egin etxean. Osabak heriotza-zigorra izan zuen kartzelan, baina gerora jakin zituzten kontu haiek.

571. Taberna izatetik jantzi-denda izatera (ZMG-039/056)

Taberna izan zuten lehenengo; eta jantzi-denda geroago. Hogeita hamasei urtez izan dute gizonezkoen jantzi-denda. Azoketara joaten ziren arropa ikustera.

572. Jantziak probatzeko, etxera (ZMG-039/057)

Nahiz eta jendeak arropa probatzeko etxera eramaten zuen, jende gutxi joaten zen ordaindu gabe. Gizonak ez ziren dendara joaten eta emazteek etxera eramaten zizkieten arropak probatzeko.

573. Orbegozo greban eta ezin ordaindu (ZMG-039/058)

Denda ireki eta gutxira, Orbegozo lantegiko greba tokatu zitzairen. Fabrikanteei ordainketak atzeratzeko eskatu zieten. Hiru mila langile baino gehiago kobratu gabe egon ziren denbora luzez eta herrian antzeman zen.

574. Dendak lanordu asko eskatzen zituen (ZMG-039/059)

Irekiera ordutegiaz gainera, ordu asko egiten zituzten jeneroa atera, zenbatu eta horrelakoak egiten. Denda handia zen, atzealdera ere leku handia zuen, garai batean etxebizitza izan zelako.

575. Mutilzahar kuadrilla batekin hika ikasi (ZMG-039/060)

Hika erabiltzea gauza berria da. Tabernan, mutilzahar kuadrilla batekin ikasi zuten, baina ez zegoen ondo ikusita. Errespetu falta adierazten zuen.

576. Abadiñora lanera eta ezin ulertu (ZMG-039/062)

Bizkaiera oso desberdina iruditzen zaie. Abadiñora lanera joan, eta ezin ulertu zer eskatzen zioten: mingainaren ordeaz, "mihina". Tolosatik Donostiarainoko euskara iruditzen zaie politena.

577. Zumarragako Labekoa baserrikoa (ZMG-040/002)

1930. urtean, Zumarragako Labekoa baserrian jaioa da. Lau senidetan zaharrena zen bera. Etxe berria egin zuten baserriaren aldamenean eta hamaika senide joan ziren bertara bizitzera. Guruzeaga izena jarri zioten arren, Labekoa etxe berri bezala zen ezaguna.

578. Kaleko baserria (ZMG-040/003)

Eitzako bizilagunak bakoitzaren etxearen izenez ezagutzen ziren. Kaleko bizimodua egiten zuten, nahiz eta soroak eta abereak izan. Berari ez zaio baserrian lan askorik egitea tokatu.

579. "Gularik ez, goserik ere ez" (ZMG-040/004)

Gerra ostean, etxeko ardiekin zezina egiten zuten. Jateko aukera ez zen oso zabala, baina goserik ez zuten pasa. Amandrearen etxetik behi-esnea ekartzen zuten eta artoa eta indabak izaten zituzten etxerako, baita sagarrak ere.

580. Igandeetan zopa eta garbantzuak (ZMG-040/005)

Egun berezietan zopa, garbantzuak eta haragi egosia jaten zuten. Aurrerago, amak paella ere prestatzen zuen. Auzoan baziren bi harategi eta arrandegia.

581. Gerra aurretik mojekin euskaraz (ZMG-040/006)

Mojetara joaten zen eskolara. Ama ere eskola berean ibilitakoa zen. Zazpi urtera bitartean, mutikoak ere mojetara joaten ziren. Gerra aurretik euskarazko eskolak jasotzen zituen, batzokiak Sor Leonorri ordaindu egiten ziolako euskaraz egitearren. Gerra ostean, eskola eta moja berarekin erdaraz izango ziren klaseak.

582. Sor Leonorren belarrondokoak eta "Arriba España" mahai gainera (ZMG-040/007)

Sor Leonorren oroitzapen oso txarrak ditu. Mojak ez zion sinistu zenbakiak hain ondo berak bakarrik egin zituenik eta bi belarrondoko eman zizkion. Gogor egiten zieten mojek. Pelukeria egindako "arriba España" orrazkera ere desegin zion kolpeka lagunari

583. Trapuzko panpinak eta bestelako jolasak (ZMG-040/009)

Jostailuak beraiek egiten zituzten. Trapuzko panpinak josten zituen berak. Jatetxetik latak hartu eta jostailuak egiteko erabiltzen zituzten. Tortoloxekin eta sokasaltoan ere aritzen ziren. Jolas moduan, Antiora bidean prozesioak irudikatzen zituzten.

584. Gosea zetorrenaren beldurrez, hautsa jaten (ZMG-040/011)

Umeak zirela, gosea zetorrela entzuten zuten asko eta beldurtuta hautsa jaten ibili ziren lagun bat eta biak.

585. Zumarragako tiroketa (ZMG-040/012)

Zumarragan tiroak egon ziren egunean, familiako kideak etxe ugarian harrapatu zituen. Beloki mendian hildakoak egon omen ziren. Gau bat baino ez zuen iraun. Tropak sartu ostean, gauzak ez ziren askorik aldatu Zumarragan. Ez zen txikizio handirik egon eta bizimodua ere ez zitzaion asko aldatu. Eskolak erdaraz hasi ziren eta ikasi egin behar izan zuten.

586. Zinema eta sailkatzeko koloreak (ZMG-040/013)

Bandaren atzetik ibiltzen ziren jaiegunetan. Bi zinema zeuden: Zumarragako "Itzalon txikian", nahiko pelikula txarrak botatzen zituzten; Urretxukoan, hobeak. Elizako atean koloreak egoten ziren pelikulak sailkatzeko.

587. 'Acción Católica' eta 'Hijas de María' (ZMG-040/014)

Acción Católica eta Hijas de María kongregazioetakoak zen. Mezara joateko biltzen ziren. Kongregazioko intsignia jaso nahi bazuten, ezin zuten dantzarik egin.

588. Jaunartze txikia eta handia (ZMG-040/015)

Bi jaunartze egiten zituzten. Zazpi urterekin lehenengoa, eta hamar urterekin bigarrena, zuriz jantzita eta familia guztiarekin. Egun horretan pozik zeuden, eskolarik ez zutelako izan.

589. "Mundua eliza zen" (ZMG-040/016)

Mezak latinez izaten ziren beti eta apaiza bizkarra ematen egoten zen. Ez zuten ezer ulertzen, baina meza-liburuarekin jarraitzen zuten. Don Anastasio apaizak kromoak ematen zizkien ondo portatzen baziren, eta Liernira eramaten zituen trenez.

590. Bekatuak aitortzen (ZMG-040/017)

Astero konfesatu behar ziren eta zerbait esan behar zenez tontakeria asko esaten zituzten. Penitentzia moduan astean bi aldiz mezetara joatea jarri zioten behin eta eskerrak etxeoak ez zirela konturatu.

591. Mutilak dantza eske (ZMG-040/018)

Hamazazpi urterekin egin zuen lehenengo aldiz dantza mutil batekin. Neskak hasten ziren elkarrekin dantzan, eta mutilak etortzen ziren gero dantza eske. Hemezortzi urterekin, ordea, bere senarra ezagutu zuen geltokian.

592. Ezkontzerako etxea altzari eta guzti (ZMG-040/019)

Ezkontzeko dirua senarrak aurreztu zuen, berak irabazitako guztia etxean ematen zuelako. Arreoa poliki-poliki egiten joan zen, amak izarak erosi eta berak bordatu zituen. Etxea fabrikak eman zion senarrari; eta, ezkontzerako, altzariak ere bazituzten. Baina ezkondu arte ia muxurik ere ez.

593. Eztei-bidaia hegazkinez eta Talgoan (ZMG-040/020)

Ezkontzako soinekoa eta eztei-bidaiarako arropa Beasainen josi zioten. Eztei-bidaian Iruñea, Zaragoza, Bartzelona eta Madril bisitatu zituzten. Hegazkinez eta Talgoan ere ibili ziren. Garairako asko zen hura eta senarraren amonari dirutza izugarria iruditu zitzaion.

594. Lanean irabazitako guztia etxerako (ZMG-040/021)

Zazpi urtez lanean, irabazitako guztia etxean entregatzen zuen. Izeba bati laguntzen zion umeak zaintzen eta trukean eskupekoa ematen zion zinemara joateko. Tabernetan emakumerik ez zen sartzen; eta, beste gasturik ez zuenez, ez zuen dirurik behar izaten. Taberna asko zeuden hala ere Zumarragan.

595. Osabaren tailerrean administrari lanetan (ZMG-040/022)

Osabaren lantegian egin zuen lan administrari bezala. Osaba istripuz hil zen lantegian, makina batek zapalduta, eta haren ordezeko sartu zen bera. Eskola partikularretan ikasi zuen kontabilitatea, Don Juan Zaitegirekin, Urretxun. Arratsaldez egiten zuen lan. Ezkondu zenean, lanari utzi zion.

596. Emakumeak lantegietan (ZMG-040/023)

Aita ez zen emakumeek lan egitearen aldekoa. Gauza txarrak ikasten zirela pentsatzen zuen; hala ere, osabarekin lan egiten utzi zion. Emakumeek ere egiten zuten fabrikan lan. Zumea lantzen zen gehienbat Zumarragako lantegietan.

597. Kanpotik langile asko etorri zen Orbegozora (ZMG-040/025)

Orbegozo lantegiak langile asko ekarri zuen kanpotik Zumarragara. Familia ere ekartzen zuten askok eta ez zegoen denentzako etxebizitzarik Zumarragan. Baserrietan, txaboletan, Aizpurutxon, etxeak familien artean elkarbanatuz eta ahal zuten moduan bizi ziren. Greba bat ere izan zen bera lanean zegoela.

598. Etxerako koltxoiak ere josten zituen (ZMG-040/026)

Ezkondu zenean, lanari utzi zion. Etxerako eta haurrentzako arropak josten zituen etxean. Kumako koltxoia ere berak josi zuen. Udan, ardi-ilearekin egindako koltxoiak astindu eta garbitu egin behar izaten ziren.

599. Erditzeko, nahiago klinikan (ZMG-040/028)

Ez zuen etxean erditzea nahi eta Beasaingo klinikan izan zituen lehen eta hirugarren haurrak. Bigarrena etxean jaio zen, ez zuelako joateko denborarik izan; senide guztiak etxean izan zituen, traba egiten. Hirugarrena erditzeko, klinikara joan zenean, hiru eguneko oporraldia iruditu zitzaion. Ospitaleko egonaldia ordaindu egin behar izaten zen, hiru mila pezeta inguru.

600. Katarroak sendatzeko enplastoak (ZMG-040/030)

Umetan katarro asko izaten zituen eta enplastoak erabiltzen zituzten. Alkoholari sua eman eta bularrean jartzen zioten arnasa hartzeko. Beste batzuetan linazia eta mostazarekin egindako enplastoak hamabost minutuz eduki behar izaten zituzten, eta arrosarioa errezatzen egoten ziren bitartean.

601. Umeak Paristik maletan etortzen ziren (ZMG-040/031)

Sexuari buruzko informazioa kalean jasotzen zuten, inork ez zien azalpenik ematen gai horien inguruan. Haurrak Paristik etortzen zirela sinetsarazten zieten. Etxean ez zen horri buruz hitzik egiten.

602. "La república independiente de Eizaga" (ZMG-040/032)

Eitza auzoa Zumarragakoa da, baina beti egon da herritik bereiztuta. Garai hartan, Eitzara iristea ere zailagoa zen, bide ilun eta estua zeharkatu behar zen.

603. Urretxu vs Zumarraga (ZMG-040/033)

Hamabost urterekin hasi zen Urretxu eta Zumarraga arteko lehia sartzen. Urretxun kontabilitatea ikasten hasi zenean, Zumarragan denek kontra egiten zioten; eta berak gogor hartzen zituen haiek.

604. Kanean ez zuen inork euskaraz egiten (ZMG-040/034)

Etxean euskaraz egiten zuten; hala ere, amarekin erdaraz aritzen zen, garai hartan modan zegoelako. Senarrarekin ere erdaraz egiten zuen, nahiz eta biek zekiten euskaraz. Kanean ez zuen inork egiten euskaraz, gutxietsia zegoelako. Mutilek neskek baino gehiago egiten zuten euskaraz eta hika egitea ere mintzaira arrunta zela erakutsi zion amandreak. Urretxun denak erdaldunak zirela pentsatzen zuen, inork ez zuelako euskaraz egiten. Euskaraz etxean eta auzoan bakarrik egiten zuten, baserriko dendariekin.

605. Goierriko euskara ona eta Tolosakoa "emea" (ZMG-040/035)

Bertako euskara gustukoa du. Senarrak euskara onena Goierrikoa zela zioen, eta Tolosakoa "emeegia", ez zuen gustuko. Elgetako izeba bat zuten eta bizkaieraz egiten zien haiek. Horrela ikasi zituzten asteko egunak bizkaieraz.

606. Gabirian, lau urtez osabarenean (ZMG-041/002)

14 urterekin ikasketak utzi, eta Gabirian osabak aroztegia zuenez, lanbidea ikastera bidali zuten gurasoek. Baserriko lanetan ere aritzen zen han. 18 urtera arte egon zen Gabirian; asteburuetan etxera bueltatzen zen.

607. Matxain baserria (ZMG-041/003)

Gurasoak kaleko etxe batean bizi arren, Juan Marik Matxain baserrian egiten zuen bizimodua hango senideekin. Baserrian zer lan egiten zituen kontatzen du.

608. Donostiara, errenta ordaintzera (ZMG-041/004)

Matxaingo familia, aitona-amonak eta osaba-izebak, errenteroak ziren. Juan Mari mutikoa zela, amona edo izebarekin joan ohi zen Donostiara etxejabeari errenta pagatzera. Garia, oilaskoak, kopoiak... eraman ohi zizkien. Etxejabeek gosaria eta arropa eman ohi zien. Gerora, emaztegaiarengana Donostian oparitutako jaka batekin joaten zela kontatzen du.

609. Matxain inguruko auzoa (ZMG-041/006)

Matxaingo baserri inguruari buruz hitz egiten du. "Poblado de aparicio", "Ipiñarrieta kalea"... esaten zitzaion. Auzoko hainbat ezaugarri aipatzen ditu: "Kaminpe" baserria, Ipiñarrieta taberna, bi pasonibel...

610. Aita, trenbideko langile (ZMG-041/007)

Juan Mariren aita trenbideko langilea zen. Zer lan egiten zuen kontatzen du: errailak jarri eta konpondu, egurrezko trabesak sartu, trenbidea harriz ondo inguratu...

611. Ama, abereak eta larreko behia (ZMG-041/008)

Ama etxeko lanez arduratzen zen. Untxiak, oiloak, txerriak... izaten zituzten baserrian. Larrean, karril bazterrean, behia ibili ohi zen; trenak behiari adar bat puskatu zueneko kontakatu du.

612. Kaminpe baserria (ZMG-041/010)

Auzokoen arteko harremanak. Kaminpe baserrikoekin harreman handia zuten. Behiak txahala egin behar zuela, garotan... elkarri laguntzen zioten. Garotan Kaminpe lurretan ibiltzen zirela kontakatu du.

613. Txerri-hiltzea eta txerri-erregaloak (ZMG-041/011)

Txerri-hiltzeari buruz hitz egiten du. Kaminpe baserriko bizilagun batek hiltzen zuen txerria. Txerri-erregaloak: solomo pusketa bat, odolkiak eta hezurren bat aza-orri batean bilduta izan ohi ziren. Mutikotan, txerri-erregaloak banatzen ibiltzen zen. Beste etxeetatik ere jaso ohi ziren txerri-erregaloak.

614. Eskolan: mojetan eta "hermanotan" (ZMG-041/012)

Eskolako lehen urteak ditu hizpide. Bost urterekin hasi zen eskolan, mojetan. Gero, 'La Salle'-ra pasa zen. Inguruan ziren ikastetxe batzuk aipatzen ditu: 'Medranotarrak', 'Don Amundio'.

615. "Hermanotan", erdaraz (ZMG-041/013)

"Hermanotan" gaztelaniaz ikasten zuten, eta gaztelaniaz hitz egiten ez zuen "kaletarrek adina erraztasun". Ikaskideen burak aipatzen ditu: "caseros" esaten zien.

616. Urretxuko pasiotarrak (ZMG-041/014)

Urretxuko pasiotarrei buruz hitz egiten du. Juan Mari meza-laguntzaile aritzen zen pasiotarretan mutikotatik. Pasiotarretan, kofradia izaten zen eta eskapularioarekin joaten ziren bertara. Gabiriatik zuen harremana pasiotarrekin.

617. Antzerkia egiten, Pagoetan (ZMG-041/015)

Urretxuko Pagoetan antzerkia egiten hasi zirela kontakatu du. Antzerki-taldeko hainbat kide aipatzen ditu. Astean, bi-hiru aldiz elkartzen diren antzezlanak irakurtzeko.

618. Euskarazko antzezlanak egiten (ZMG-041/016)

Euskarazko lanak antzeztu zituzten. Azpeitian eta Lazkaon baziren antzerki-taldeak, eta haien bidez lortzen zituzten antzezlanak; baita pasiotarren bidez ere. Hasieran, herrian antzezteko prestatzen zituzten antzezlanak, baina gero beste herri batzuetan antzezteko deiak ere jaso omen zituzten.

619. Abadiñon, antzezteak galarazi (ZMG-041/017)

Antzerkiko gorabeherak. Abadiñora (Bizkaia) antzeztera joan zireneko kontakatu du. Luistarrek antolatuta zuten emanaldia hura. Antzerkia hasi baino ordubete lehenago guardia zibilek galarazi egin zuten antzerki hura egitea.

620. Antzerkia: entsegatzeko zailtasunak (ZMG-041/018)

Antzerkiko gorabeherak. Pagoetan egiten zituzten entseguak. Behin, guardia zibilak joan omen ziren bertan talderik ba ote zen galdezka; atezainak ezetz esan eta joan egin omen ziren. Antzerki-taldeko kideek eraikinaren atzeko aldetik atera behar izan zutela kontatzen du. Euskaraz egitea debekatuta zegoen.

621. Pagoetako antzokia (ZMG-041/019)

Antzerki-taldeak Pagoetako antzokian egin ohi zituen bere obrak. Antzokia nolakoa zen deskribatzen du.

622. Ikastolaren sorrera (ZMG-041/021)

Antzerki-taldearen ondoren, idazketa talde bat sortu zen; euskaraz idatzi eta izengoitiek sinatzen zuten. Juan Marik Irimo izengoitia erabiltzen zuen. Talde horren bueltan etorri zen ikastolaren sorrera.

623. Ikastolaren sorrera: pasiotarren laguntza (ZMG-041/022)

Ikastolaren sorreran, pasiotarren laguntza izan zen. Hasieran, bi gela utzi zituzten...

624. Nobiotako kontuak (ZMG-041/026)

19 urterekin andregai bilatu zuen. Nobio garaiari buruz hitz egiten du. Asteburuetan ibili ohi zen andregaiarekin. 25 urterekin ezkondu zen.

625. Nobiotako kontuak: Antzuolara bueltaka (ZMG-041/027)

Nobio garaiari buruz hitz egiten du. Neskaren familia ezagutzea, Deskarga aldera egiten zituzten paseoak, zinea... Andregai Antzuolakoa zen, eta, elurte garaian, zer gorabehera izaten zituen kontatzen du. Neska-laguntza egin ondoren, Antzuolara joan ohi ziren mutilak herriko taberna batean elkartzeko ziren txikito bat hartzerako, eta, gero, elkarrekin bueltatzen ziren automobilean; neguan, berriz, oinez bueltatu ohi ziren.

626. Erromeriak eta bikote kontuak (ZMG-041/028)

Hainbat erromeria leku aipatzen ditu: Gorla, Elosu, Agiña, Tellarte... Gabirian bizi zela, soinujolea izaten zela gogoratzen du. Denen artean ordaintzen zuten soinujolea. Behin andregai bilatutakoan, "erabat andregaiarekin" ibiltzen zela dio. Lehen, gaztetan bilatutako bikotearekin jarraitzea normalagoa zela dio.

627. Santa Ageda eta Gabonetako kanta eskeak (ZMG-041/031)

Gabirian bizi zela, kantu eskean ibiltzen ziren. Pasiotar batek gazte talde bat osatu zuen, eta inguruko baserrietan eskean ibiltzen ziren Santa Agedatan eta Gabonetan. Juan Marik koplari moduan abeste zuen estrofaren lehenengo sarrera, eta, gero, korduak jarraitzen zuen. Bildutako diruarekin txangoren bat egiten zuten. Jateko zerbait ere eskaintzen zien: "baserrietan beti izan da zerbait emateko borondatea".

628. Bertso irakasle ibilia (ZMG-041/033)

Juan Mari bertso irakasle lanetan ibilia da ikastolako umeeekin. Luxio Gabiria bertsolaria aritu zen berarekin batera. Ikastola herrira zabaltzeko balio izan zuela dio: izan ere, umeeek bertso ikasiak kantatzen zituzten herrian egiten ziren saioetan.

629. Esku-pilotarako zaletasuna (ZMG-041/036)

Umetan, esku-pilotan ibiltzen zen. Antzuolan jokaturako pilota txapelketa bati buruz hitz egiten du. Mutiko nerbioa omen zen. Palaz ere ibiltzen zen, ezkondu eta gero ere.

630. Urretxuko Euskal Jaiak: Arrate eta Segura irratiei buruzko karroza (ZMG-041/038)

Urretxuko Euskal jaietan, karroza ateratzen zuten kuadrillakoek. Bengolako zerrategian egiten zuten karroza. Nolako karrozak izaten ziren kontatzen du. 15 lagun aritzen ziren lan horretan. Urte batean, Arrate eta Segura irratien itxiera zela eta, gai horri buruzko karroza egin zutela kontatzen du. 20 urte zituen orduan.

631. Urretxuko Euskal Jaiak: karrozen hasiera (ZMG-041/039)

Urretxuko Euskal Jaietan karrozak ateratzen hasi zireneko garaia buruz hitz egiten du. Lehenengo karrozak Urretxua eta Txirimiri elkarteek atera zituzten. Hasiera batean, karrozak aldarrikapenen bat egiteko ateratzen omen ziren.

632. Arrate eta Segura irratien itxiera (ZMG-041/040)

Arrate eta Segura irratien itxierari buruz hitz egiten du. Garai bateko irradi emisioak nolakoak ziren kontatzen du: arrosarioa, eskelak... Gero, irradi horiek ireki egin zituztela aipatzen du.

633. Garai bateko egunkariak (ZMG-041/041)

Garai bateko egunkariei buruz hitz egiten du. Juan Mariren aitak 'La voz de España' erosten zuen, eta Basarriren kronika omen zuen gustukoan. Klandestinitatean ateratzen zituzten egunkariei buruz hitz egiten du.

634. Soroen bedeinkazioak (ZMG-041/042)

Lurren bedeinkazioak nola egiten ziren kontatzen du. Urtean behin egin ohi ziren. Otoitz bat egin eta ur bedeinkatua botatzen zen soroan, eta, gero, hamarretakoa egiten zen. Apaiza akolitoarekin joan ohi zen.

635. Urretxuko Aste Santuetako prozesioak (ZMG-041/043)

Ostegun eta Ostiral Santu Egunean, Urretxuko prozesioan erromatarrez ateratakoa omen da Juan Mari. Nolako prozesioak izan ziren kontatzen du.

636. Aita iturgin (ZMG-046/002)

Aita Donostiakoa zuen, baina Urretxura etortzen zen lanera, iturgin ("fontaneria") tailerrera. Dena egiten zuten eskuz orduan.

637. Estankoa (ZMG-046/005)

Orain estankoa dagoen lekuan, Seberianak oihal denda eduki zuen. 1937an estankoa jarria zuen bertan Leandroren familiak.

638. Txikitutako tabakoa (ZMG-046/008)

Orduan txikitutako tabakoa erosten zen gehien. 60 zentimo inguru balio zuen.

639. Aguazila kotxetik bandoa botatzen (ZMG-046/012)

Euren auzoko batek, Sanpedrok, danborra jotzen zuen. Aguazila kotxean ibiltzen zen bandoa botatzen. Aguazila 'Atxurra' zen abizenez.

640. Eskolan aljebra ikasi arte (ZMG-046/013)

Eskolara joateko gogo gutxi edukitzen zuen Leandrok. Aljebra ikasi arte joan zen eskolara. "Historia Sagrada" derrigor ikasi beharreko bat izaten zen. Neskak eta mutilak banatuta egoten ziren.

641. Erromeria Zumarragako plazan eta Urretxuko frontoian (ZMG-046/014)

Dena zen bekatu. Mariaren Alabak taldekoek, esaterako, ezin izaten zuten dantzan egin. Zumarragako plazan egiten zuten dantzan eta Urretxuko frontoi zaharrean. 'Tirili' izaten zen orduko soinujolea. Pezeta bat kobratzen zuten dantza egiteagatik. Inoiz, Besainera joaten ziren mutilak dantza egitera; bertan, neskek lotuta dantza egiteko baimena edukitzen zuten eta.

642. Oñatiko komentu batean sukaldari (ZMG-046/017)

Urtebete eman zuen Oñatin, moja komentu batean sukalde lanetan. Sei eta erdietan jaikitzen zen Leandro gosaria prestatzeko. Orduan gose handia zegoen.

643. Sei urte Arantzazun zerbitzatzen (ZMG-046/020)

Hamabost urte zituela sartu zen Arantzazun lanean eta hogeita bat urtera arte egon zen bertan. Lan handia zegoen han eta ahal izan bezain pronto utzi zuen.

644. Jende ugari Arantzazura ikastera (ZMG-046/022)

Leandroren anaia bik Arantzazun ikasi zuten. Garai batean jende asko joaten zen bertara apaiz egiteko. Hala ere, batzuek ikasi eta apaiz egin gabe joaten ziren.

645. Egunero bost eta erdietako mezara (ZMG-046/023)

Arantzazun zegoela, egunero joaten zen goizeko bost eta erdietako mezara. korua ere bazegoen, ikasleena. Kantak latinez izaten ziren. Jatekoak ikasleek eurek zerbitzatzen zituzten.

646. Soldaduska Afrikan (ZMG-046/027)

Afrikan egin zuen soldaduska. Bertako emakumeak zuriz jantzita ikusten zituen Leandrok eta mojak zirela pentsatzen zuen. Merkantzia trenean eramane zituzten bertaraino.

647. Soldadutzan sukaldari kapitainaren etxean (ZMG-046/030)

Afrikako azokak ezberdinak ziren eta baita jatekoak ere. Garbantzua ugari zegoen han. Kapitainaren etxean sukaldari egon zen Leandro.

648. Morroi Agiñan (ZMG-046/032)

Arantzazura joan aurretik, hamabost urte zituela, Agiñan egon zen Leandro morroi, Agiñeta aizkolariaren etxean. Gari-jotzean ibiltzen zen bertan, iturrean... Behin, behiak etxe ondoko soloan zaintzeko esan zioten. Lizarraren azpian lo geratu zen.

649. Morroi lanak (ZMG-046/033)

Lan asko egin behar izan zuen morroi egon zenean: iturrean, egurrak ekarri, azpiak atera, mendira ardi bila joan... Orduan ez zegoen urik etxe hartan; argia bai, ordea.

650. Gazta ketua egiten (ZMG-046/034)

Gazta egiten zuten Agiñan, gazta ketua. Gaztak ketzeko, labea pizten zuten eta kea ateratzen zuenean bertara sartzen zituzten gaztok. Leandrok ez zeukan jaiegunik bertan. Ez zeukan jorialik, "tripa truke" egiten zuen lan.

651. Tabako errazionamendua (ZMG-046/036)

Estankoan ere errazionamendua zeukaten. Jendeak kartila bat edukitzen zuen zenbakiekin eta horrekin joan behar izaten zuen tabakoa errotera. Errazionamendua asterako izaten zen. Eurak estraperloan aritzen ziren tabakoarekin: tabakoa ogiaren truke aldatzen zioten errotariari.

652. Etxean baino ez euskaraz (ZMG-046/040)

Lehen, etxean baino ez zen egiten euskaraz. Ez zuten euskaraz egiten uzten. Legazpin, Urretxun eta Zumarragan baino gehiago egiten zen euskaraz.

653. Zumearen prozesua (ZMG-047/003)

Zumearen prozesua eta sasoiak deskribatzen ditu. Udaberrian moztu, lehortzen

654. Zumea zuritzea (ZMG-047/005)

Emakume asko ibiltzen zen zumea zuritzeko lanetan. Zume sorta bakoitzagatik txartel bat ematen zieten eta aste amaieran, txartel bakoitzagatik hiru pezeta jasotzen zituzten ordainetan. Nahiko prozesu erraza da; azalpenak ematen ditu.

655. Zume kolore desberdinak lortzeko prozesuak (ZMG-047/007)

Zume kolore desberdinak lortzeko nola egiten zen kontatzen du.

656. Zumearekin egindako produktuak (ZMG-047/008)

Saskiak, arrantzarako otarreak, sehaskak, aulkiak, besaulkiak etab. egiten zituzten zumearekin. Denda txiki bat zuten Zumarragako plazaren aldamenean

657. Laranjak ekarri eta zumea eraman (ZMG-047/011)

Zumea Balentziara saltzen zen. Laranjaz kargatuta etortzen ziren kamioiak aprobeztatzen ziren saldutako zumea garraiatzeko. Plastikoa iritsi zenean utzi zion aitzak zumea kanpora saltzeari.

658. Emakume asko aritzen zen zumegintzan (ZMG-047/012)

Lantegiko antolamenduaz ari da: bakoitzak lan konkretu bat egiten zuen. Emakumezko asko aritzen zen lanean

659. Zumearen azalaren erabilerak (ZMG-047/014)

Zumearen azalarekin jolas egiten zuten haurrek. Eskarolak lotzeko ere erabiltzen zen eta baita San Joan eguneko sua pizteko ere

660. Opor garaian haurrak zumategira (ZMG-047/016)

Lana egiteagatik eskolarik ez zuten sekula laga. Uda garaian egoten zen lan gehien eta, oporretan zeudenez, lanerako libre zeuden senideak.

661. Zumarragako beste zumategiak (ZMG-047/018)

Zumarragan baziren zumea lantzen zuten beste hainbat lantegi ere. Hauek izendatzen ditu. Rufino Mendizabalen zumategia erre zeneko eguna ere gogoan du.

662. Zumategiko lanerako baldintzak (ZMG-047/019)

Ez zen lan arriskutsua. Langileen baldintzei buruz ari da. Zumarragako merkatua igandez egiten zenez, denda zabalik izaten zuten.

663. Zumarragako merkataritza (ZMG-047/020)

Zumarragako merkataritzaz ari da, zenbat denda eta negozio zeuden erreparatzen du.

664. Kapritxozko gauzak kanpotik (ZMG-047/023)

Zumarragan denetik erosi zitekeen arren, kapritxozko gauzak kanpotik ekartzen zituzten. Zumarragan zeuden beste hainbat denda aipatzen ditu.

665. Euskarari buruz (ZMG-047/025)

Ikasketa garaiaz ari da. Irakasle desberdinak gogoan ditu. Erdaraz izaten ziren eskolak. Familia euskalduna izan arren, ondo moldatu zen erdaraz. Zorionez, euskarari eustea lortu zuten sendian eta harro dago.

666. Etxerako izan orde, lanera (ZMG-047/026)

15 urterekin eskolak amaitu zituenean, okindegian hasi zen lanean nahiz eta neska zaharrena izateagatik "etxerako" behar zuen. Josten ere ikasi zuen

667. Aisialdiko ibilerak (ZMG-047/027)

12 urte zituela jaio zen anaia gazteena beraz, jolaserako denbora asko ez zuen izan. Aisialdian zer egiten zuten kontaktzen du.

668. Lehengo aldiz oporretan 21 urterekin Gorbeia (ZMG-047/029)

Oporretara joan zen lehen aldian 21 urte zituen. Gorbeia joan ziren kanpin-denda eta guzti. Iritsi arteko komeriak kontatzen ditu

669. Pagoetako antzerki taldea (ZMG-047/030)

Pagoeta auzoan zegoen antzerki talde bateko kide zen. Auzo horretan, Ikastolaren inguruan, giroa euskaldunagoa zela kontatzen du. Inguruko herrietara ere joan izan ziren antzezlanak egitera

670. Zumarraga eta Urretxuko zinemak (ZMG-047/031)

Hiru zinema zeuden Zumarragan, elizaren inguruan guztiak. Urretxun ere bazen eta bertan botatzen zituzten hiru erronborekin katalogatutako pelikula asko. Honekin lotutako pasadizoa kontatzen du.

671. Gurasoak Zumarragara nola iritsi ziren (ZMG-049/006)

Jokinen ama Extremadurakoa da eta aita nafarra. Ama gurasoekin etorri zen umetan Zumarragara. Lan bila etorri ziren. Aita Legazpiko CIE lantegian egon zen lanean.

672. Euskara ikastolan ikasia (ZMG-049/007)

Etxean gaztelaraz egiten zuten baina hiru anaiak ikastolara joan ziren. Gurasoek argi zuten semeek euskara ikastea nahi zutela. D ereduan ikastea hasieran pixka bat zaila egin zitzaion. Euskaraz guztiz ondo moldatzen ez zirenak "gela berezia" deiturikora joaten ziren. Jokinen gelakide gehienak bertakoak ziren eta abizen euskaldunak zituzten. Irakasle batzuegan enpatia falta sumatzen zuten.

673. Lagun artean gaztelaraz (ZMG-049/008)

Lagunak ez ziren ikastolakoak, lehengusuekin eta haien lagunekin ibili izan dira eta beraien artean, nahiz eta euskaraz jakin, gaztelaraz egiten zuten. Gurasoak beti saiatu ziren semeak giro euskaldunean hezten.

674. Euskarak atek zabaldu (ZMG-049/009)

Jokinentzat gaur egun euskara da bere ama hizkuntza. Azken urteetan herrian ere gehiago erabiltzen dela sumatzen du. Orain erosoago sentitzen da euskararekin gaztelararekin baino. Lanak, emaztearen familiak... asko lagundu diote. Komertzial gisa egin du lan eta argi zeukan euskara erabili beharra zeukala. Euskarak atek ireki dizkio: adibidez, Euskal Telebistako saio batean parte hartu zuten anaiak eta biek.

675. Euskara, ama hizkuntza (ZMG-049/010)

Jokinen ustez, euskara derrigorrez ikasteak atxikimendu eza ekar dezake. Beraiek derrigortasun hori bizi izan bazuten ere, denborarekin Euskal Herrian bizitzeko euskara beharrezkoa zela konturatu ziren. Gaur egun bere ama hizkuntza sentitzen du euskara eta hizkuntza honetan pentsatzen ez zituen gauzak egitera iritsi da. Erronka txikiak gairatzen joan da.

676. "Kanpotarrak" (ZMG-049/011)

Amak ez zuen euskalduna ez izateagatik bazterketarik bizi izan, baina Jokinek eta anaiek, eremu erabat euskaldunean bizi zirenez, nabaritu zuten.

"Kanpotarrak" esaten zieten eta horrek min ematen zien. Gertatu izan zaio euskaraz ondo egiten duelako jendea harritzea.

677. Euskara, babestu beharreko ondarea (ZMG-049/012)

Garai batean, kanpotik zetorrena euskara eta Euskal Herriarentzat mehatxu moduan ikusten zen. Euskara ezker abertzalearekin lotzen zen. Gaur egun hori aldatu dela eta ikuspegi irekiagoa dagoela uste du. Amaren garaian gaztelera inposatua zegoen eta orduko euskaldunen mina ere hor zegoen. Jokinen ustez, euskara bertakook babestu beharreko ondarea da.

678. Hizkuntza bat ikasteko lotsa gainditu behar (ZMG-049/013)

Pena du gurasoek ez zutelako euskara ikasi, baina garai hartan muga asko izan zituzten. Semeak giro euskaldunean hazteagatik meritua dutela uste du. Bilobek hitz batzuk egiten dizkiete euskaraz eta hitz egitera animatuko diren esperantza dauka Jokinek.

679. Amaren herrira udak pasatzera (ZMG-049/015)

Umetan amaren herrira ("pueblora") autobusez egiten zuten bidaia. Udak pasatzen zituzten han. Autobuseko ilusio giroa du gogoan. Hemendik eramaten zituzten gauzak eta handik bueltan ekartzen zituztenak. 14 orduko bidaia neketsuak izaten ziten. Bere nortasunaren parte bat handik dator.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2024-04-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com